


GRAZIANO ANDUAGA

BERTSO-BILDUMA

**Biltzalle eta Adigarrien egille:
Aita Luis Billasante, O. F. M.**



AUSPOA LIBURUTEGIA

BERTSO - BILDUMA

AUSPOA LIBURUTEGIA
52-53

COLECCION AUSPOA

Administración: **Plaza de Santa María, 2 - Tolosa**

Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**

Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta

Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "

GRAZIANO ANDUAGA

BERTSO - BILDUMA

**Biltzaille eta Adigarrien Egille:
Aita Luis Villasante, O. F. M.**

**AUSPOA LIBURUTEGIA
1965**

Núm. Registro 7048/65
Dep. Legal S. S. 1017/65

A R K I B I D E A

Graziano Anduaga, "Gesaltzako aitona"	11
Gauza guztien egillea	19
San Juan ostiralekoa	24
Mundua, negar-erria	30
Moskorra eta neskatxa	36
Zer dakarren San Juan ostiralekoak	44
Nere bizitza	50
Arantzazu-aldeko gurutzeak	56
Gaurko gazteak	61
Basarri jaunaren erantzuna	67
Uranga-ren erantzuna	72
Goyalderen erantzuna	77
Baserriko bizitza	82
Grazianok Basarri jaunari	86
Bizi dedilla euskera	91
Gure izketaren alde	96
Otsail gogorra	101
Gesaltzako baserriak berreun urte	105
Arrokeria	110
Aretxabaletako aitona bati	114
Pernando Amezketarra	118
Erleak	122
Erruki kaltegarria	126
Moskorra	129
Latz azitakoaren bentajak	131
Neskazar baten zotiñak	133
Gertu egon	134
Zeru-bidea	136
1962-ko urteari	137
Okumardin-go nagusiari eun urte betetzean ...	142
Lengo oitura garbiak	147
Pello Mari tontua	154

Lengo errotariak	158
Paula Aundi ta Mari Talan	163
Alabaren eztaietan	166
Baserriko eztaiak leen eta orain	174
Aita ta ama ipiski	179
Santu berria	182
Lotsati baten ezkontza	188
Andre gogaikarria	194
Gure euskera bizi dedin	197
Euskalduna pardeldu	202
Bartolo ta Praisku	205
Negu garratza	208
Aundizkien oiturak beartsuen etxeetan	209
Egi mardulak lengo esaerak	211
Tonto arroak	212
Aize gorria	216
Etxeetako goraberak	219
Familiko goraberak	222
Sukaldea erdibitu	227
Trasterik okerrena	228
Komunismua	229
Auzoko etxeoandreen bizimodua	230
Jesus, San Jose eta astoa	235
1962-ko udazkena	239
Tenporetako aizea	244
Jainkoaren Aginduetako bidea	249
Jainkoaz aaztu gizona	253
Baserriko ezkontza-legea	258
Ardi jantziko otsoak	260
Bertsolari txikiak	263
Zezenaren bertsoak	270
Ditxa gozo batekin	281
Ispillu bat jartzeko	288



GRAZIANO ANDUAGA

GRAZIANO ANDUAGA
"GESALTZAKO AITONA"
1877-1965

Joan zaigu azkenean Gesaltzako aitona ere. Alegiñak egin nituen garaiz ibiltzeko; baiña berandu eldu naiz. 1965-ko martxoaren 2-an, gabeko amarretan, itzali zan gure bertsolalaria. Bere kristau eginbearrak zintzoki ta arduraz bete ondoren joan zaigu. Buruko argia ta ezaguera azkenerarte izan zuen.

Arantzazun iñoiz izan bazera, irakurle, jakingo dezu, noski, nun dagoen Gesaltzako baserria. Kamioan gora goazela, eskubi-aldera, Arantzazura eldu baiño iru kilometro leenago, an beean, sakonean, patxara ederrean kokatua arkitzen da. Etxe galanta da, iru bizitzakoa. Antxe jaio, bizi ta il da Graziano Anduaga, Gesaltzako aitona.

* * *

1877 gnean. jaio zan, abenduaren 18-an. Bere aitak Pedro Migel zuen izena. Pedro Migel onek ba zuen anai bat, Jose Anduaga,

Gesaltzan jaiotakoa au ere. Erlojugille famatua izandu zan, lenengo Bilbon eta gero Madrillen; beronek izaten omen zuen Puerta del Sol-ko erlojuaren ardura. Urtero-urtero, utsik egin gabe, etortzen omen zan Gesaltzako baserrira, udaldia pasatzera.

Osaba au Bilbon zegoen garaian, Grazianok (artean mutil gaztea izango zan) denporalditxo bat egin zuen aren etxean. Udara batean Naparroan ere ibilli zan basolanetan, ogeita iru urte zituenean. Bestela, berriz, bere jaiotetxean bota du bere bizi guztia, baserrian, alegia.

Txikitan Uribarriko auzo-eskolara ibilli zan. An ikasi zuen irakurtzen, idazten eta lau erreglak egiten. Eta —ez dago zer esanik— Kristau Dotriña ere bai. Idatzi, letra apain eta garbi askoakin egin oi zuen. Ikui-lluan edo soroan edo oean asmatutako bertsoak, txintxo-txintxo jarriko zituen gero bere paperetan.

1905 urtean ezkondu zan Estefania Arregirekin. Iru seme-alaba izan zituzten: Pedro, Victoria ta Jose. Jose Venezuelan dago, Victoria Legazpian bizi da. Pedrok segitzen du baserriarekin. Familia ederra azi du Pedrok: 10 seme-alaba (lau mutil ta sei nexka).

43 urtetan ibilli zan Graziano goizean-

-goizean Arantzazuko kolejioko mutikoentzat gosarirako esnea ekartzen, zaldi edo asto batek laguntzen ziola. Eguraldi ona naiz txarra egin, bost kilometroko joan etorria egin bear zuen ortarako: bere etxetik komen-tura, eta buelta.

Arantzazu auzoko alkate ere izandu zan makiña bat urtean.

Baiña gauza guztien gaiñetik, nekazaria zan Graziano. Oso-osoko nekazaria. Biotz-biotzetik nekazaritzari lotua.

Pentsalari zorrotza zan. Beti bere bidetik ibilliko zana. Gaur eguneko modak, oiturak eta propagandazko itz lilluragarriak ez zu-ten batere indarririk gure aitona bere bidetik atera-erazteko.

Lengo gizaldietako ispillu jatorra genuen. Askotan entzun nion esaten: "Beste zintzo-tasun bat zegoan len". "Zintzotasuna galdu da". Bere ustez, dirua ugaritu danean, bere doai on-ederrik asko ta asko galdu du eus-kaldunak. Txepeldu, zabartu ta pardeldu egin dala zion.

Beti samurrera joate ori seiñale txartzat jotzen zuen. Geiegikeri ta zakarkeri batzuk gazteen kontra iñoiz esango zituen —ez zan,

ez, "olatu berrikoa"—, baiña aitortu bear da ba dala ikasbide zuzenik aren esanetan.

* * *

Gazte gaztetatik somatu zuen bertsoetarako griña. Bertsolari famatuen bertso-paperrak irakurriz eta ausnartuz erne zitzaion zaletasun ori. Eta bera ere bertso-jartzaillea biurtu zan. Bere semeak esaten zidan bein: "Au, soroan lan egiten ari dan bitartean ere, bertsoak asmatzen ibiltzen da". Lan bitartean bertsoak asmatu, eta gero paperean jarri. Orrela atera zaizkio ainbeste bertso mardul, trinko, borobil, eta ezin obeto tajutuak.

Izan ere, bertso pillo ikaragarria egin izan du Grazianok bere bizitza luzean zear. Batzuk bertso-paperetan inprentatu eta zabaldu ziran; geienak, berriz, Arantzazuko illerokoan irten dira; "Goiz-Argi"n ere bai bat edo beste; eta bertso-paperetan eta aldizkarietan agertu ziranak baiño askoz geiago egin zituela, esan bearritz ez dago. Pillo bat etxekoak erre ziotela ere esaten zuen. Ala ere ez dira gutxi gure eskuetara eldu diranak.

Bera bertsolaria izanez gaiñera, bertsoetarako zaletasuna erein du Grazianok bere inguruan, bere familian beintzat. Venezue-

lan dagoen bere semea bertsolaria atera zaigu. Eta bere billobetatik bat, Joxe Mari Anduaga, bertsolari datorkigu, ta ez nolabaitekoa. Etxetik dakarte nunbait bertsolari-
-ezpala. Ezin uka: eskolarik onena, etxeko eskola...

* * *

Berari artutako esaera, ipui eta bertso-pilloaz liburu bat agertu genduen Zarauzko Itxaropena etxean, Kuliska-Sortan: "Aitonaren Uzta", 1961.

Beste liburu bat agertu zan geroago aren bertso-mordoaz "Auspoa" liburutegi onetan bertan: "Egunsentiko Txoria ta beste bertso asko", 1963.

Eta azkenik, oraingo bertso-bilduman sartu ditugu liburutan jaso gabe gelditzen ziranetatik geienak, ez danak. Gure asmoa zan danak argitaratzea, baiña ezin; liburua geiegi ez loditzeagatik, bazartu bear izan dira ez gutxi. Arantzazuko illerokoan, esate baterako, 1949 urtetik onuntza, ba dira Grazianoren makiña bat bertso gure bildumatik kanpoan gelditu diranak. Bertso-paperetan agertu zituen guztiak ere ez daude emen.

Bereizte bat egin bear izan degu, beraz. Aita Zavalaren eskuan utzi nuen nik bereiz-

te-kontu au, eta gaiari ta abar begiratuaz, berak autatu izan ditu bilduman datozenak.

Bakoitzari adigarri bat erantsi diot, noizkoa dan, nondik artu dedan, zertaz ari dan ta abar esanez. Bilduma ontan dijoazten bertso danak ez dira, ba, garai batekoak, eta Grazianok izan du bere eboluzioa bertsoak egiteko bere tankeran. Aren bertsorik zaarrenak zezenarenak dira, eta oien ondoan datozen beste biak ("Ditxa gozo batekin", "Ispillu bat jartzeko"). Urte-muga jakiteak beti du bere ajola, autore baten eboluzioa ezagutzeko.

Eta ba al dago esan bearrik? Graziano-ren bertsoetan guk ez degu aldatu edo ikutu egin nai izan, ortografiako uskeren bat edo fonetizismo txiki bat edo beste izan ezik. Paperetan arkitu izan ditugun bezelaxe, edo bere ezpainenatik zuzen-zuzenean gerok jaso izan ditugun eran dijoaz, ba, emengo bertso danak.

* * *

Graziano Anduaga bezelako langille fin gutxi arkitu izan det nik. Euskera, Euskalerra, ta batez ere Arantzazu, zorretan gelditzen dira berarekin.

Gure erriaren jakituri zaarra, oiturak, iz-

kerak ta abar ezagutzeko, Grazianoren bertsoak ez dira arrobi makala.

Goian bego gure adiskide zintzo eta miña izan degun Gesaltzako aitona.

Aita Luis Villasante, OFM.

Arantzazun, 1965-ko azaroaren 12-an

Oarra. — Gesaltzako aitona berri geiago jakin nai dituenak, aipatutako bi liburu oietan billa ditzake ("Aitonaren Uzta"n eta "Egunsentiko Txoria"n, alegia).

GAUZA GUZTIEN EGILLEA

Gaur eguneon gizona arro-xamar dabil, tresna berriak asmatu dituela-ta. Baiña orain ere, beti bezela, gizonaren bizitza Jainkoagandik dago zintzilika. Bear deguna Ari eskatu eta iritxi ondoren, eskerrak eman: orra zer egin bear degun. Arrokeriak zigorra besterik ez dakar.

Arantzazuko errebistan agertu ziran bertso auk. Ikus "Aránzazu" XXIX (1949), 190-191.

- 1/ Gauza guztien egillea da zeruan daukagun Aita, gizona ere berak egiña doai ederrez jantzita. Bide zuzena eta okerra zein diran erakutsita, gure animak zeruratzeko orra aukera polita.

- 2/ Bere antz eta irudikoa egiña degu gizona eman zizkigun buru argia zentzuna ta adimena; beti berari eskatutzeko noiz-nai bear genduena gauza on asmatutzeko doaia eta almena.

3/ Gizonak asko asmatu badu
aspalditikan onera,
gai guzietan laguntzallea
beti izan degu Bera.
Esaten digu noiz-nai juteko
bear deguna eskatzera
baita iritxi ondoren gero
esker onak ematera.

4/ Aldi askotan ikusi degu
aspaldiko denboretan
lurra egarri, mendiak legor,
urikan ez erreketan;
lantegi asko indarrik gabe,
argiak ere illunetan;
Jaungoikoaren bear generala
sinistu zagun benetan.

5/ Nun zera, gizon asmatzallea,
nora zaude zu begira?
indargai eta tximistargiak
zuk asmatuak badira,
asmatu zazu nola ekarri
itxasoko ura mendira;
orduak zure tresna oriek
bizkor ibilliko dira.

6/ Lañoak zintzo ibiltzen dira
Jainkoaren esanean,
mendira ura ekartzen dute
ark agintzen dienean.
Gizonak ala bizi bagiña
bere bide zuzenean,
ez giñake zori txarrekoak
iñor emen lur gañean.

7/ Begira danok nola geraden
Jainkoaren bearrean,
naiz gazte eta aberats egon
diruz eta indarrean,
arrokeriaz jartzen bagera
Jaungoikoaren aurrean
uste baño len bere zigorra
laister degu bizkarrean.

8/ Eskerrak eman bear dizkagu
zorionez gaudenean
bakoitzak artu beti gogoan
zer degun ondorenean.
Txorakeritan dabilenari
osasunez dagonean
begi illuna jarriko dio
negarrez juten danean.

- 9/ Mundu ontako izaki eta
diran animalia danak
zintzo betetzen bizi dirade
Jaungoikoaren esanak;
beraren gogoz guri emanik
on-biderik ederrenak,
lotsarik gabe esker gaiztoa
beti agertu gizonak.
- 10/ Jainkoak jarri zigun eguna
ogia irabazteko
gau illuna gorputzarentzat
gure atsedena artzeko.
Tximistargia asmatu dute
illuna argi jartzeko,
gaiztakeritan gau eta egun
biak alperrik galtzeko.
- 11/ Onak diranak Jaungoikoari
beti ai dira erregutzen
errukituta gaiztoai ere
jarraitutzeko laguntzen;
Jaungoikoaren asarre aldiak
oiek dituzte biguntzen,
gaizto itxuak mesede ori
sekula ez dute ezagutzen.

12/ Noiz eta nola agertzen digun
Jainkoak bere zigorra;
txanda batzuek euritsuegi,
beste askotan legorra.
Ala ta ere ezin bigundu
gizonen biotz gogorra.
Al izan eta pagatu nai ez
berari diogun zorra.

13/ Bene-benetan zeruko Aita
maite ez degun artean
gure emengo alegin danak
bakoitzak bere kaltian;
gorrotoari leku ematen
badiogu biotzean
zoritzarrean biziko gera
bakoitza bere etxean.

14/ Lagun urkoa maitatu zagun
beti borondate onean,
al dan guzia lagun egiñaz
premian dagueanean;
ori egiten baldin badegu
Jainkoaren izenean,
arrera ona egingo digu
emendik goazenean.

SAN JUAN OSTIRALEKOA

Esaera zaharra omen da —ala dio Grazianok— San Juan eguna ostiralez gertatzen dan urtea, urte txarra izatea. Gosea dakarren urtea, alegia. Au da bertso auetan azaltzen dana. Grazianok galdetu omen zion bein praille bati ia ori siñistea aztikeria ote zan. Eta ark erantzun: Aztikeria eta astakeria. Baiña baserritarrak ba dituzte beren jakinduri-iturriak, liburuetan murgildurik daudenak ez dakizkitenak. Sarri-askotan uste oiek ba dute beren oiñarria. Au da beintzat Grazianoren iritzia.

Ikus “Aránzazu” XXIX (1949), 226.

1/ Lengo esaera zarrak
—ikasbide onak—
ala utzi zizkiguten
antxiñako aitonak,
urte askoren buruz
ikusiak danak,
zazpitatik bostetan
gertatzen diranak.

- 2/ Bat esatera noa
askoren tartean
Txantxonek asmatua
gabon gau batean:
San Juan ostiralez
jausten dan urtean,
saldu idiak eta
jarri artoa etxean.
- 3/ Orra aurten San Juan
ostiralekua;
len ere ganbaratan
badegu lekua.
Gertatzen bada, berriz,
ark esandakua
ez dakit jango degun
artoa naikua.
- 4/ Nolabait erein ziran
ain zeuden urriak,
gazterik zigortuta
aize otz gorriak.
Gero trumoia jota
txikitu arriak;
ezbear danen jabe
gu nekazariak.

5/ Latza ta gogorra da
baserriko lana,
itxuan da epetan
egin biar dana.
Ni aurten ala nago
bildurrak emana
gertatuko ote dan
Txantxonon esana.

6/ Munduko jakintsuak
asko edo geienak
liburutan dauzkate
beren sinismenak;
orlako esaera
baserritarrenak
dira aztikeritzat
artzen dituztenak.

7/ Jaun oiek izan arren
asko ikasiak
ez dakizte munduko
goibera guziak.
Gu ezjakiñok beti
itzdun itxusiak,
argatikan gerade
gaizki ikusiak.

8/ Gure esaerairi
burla dagiote
ain uts edo erotzat
artutzen gaituzte.
Guzia dakitela
batzuek bai uste
beren eginbearrak
naiz ta gaizki bete.

9/ Munduan liburuak
egin dituztenak
ez dira baserrian
lana egin dutenak.
Gu ere berdin gera
Jaungoikoarenak
guri ere eman dizkigu
geure adimenak.

10/ Uztaillan amarra
gogoangarria,
ondo zigortu digu
Oñatiko erria;
irugarren urtean
egin digu arria,
baserriko ondasun
danen galgarria.

- 11/ Oñatin egin ditu
kalte izugarriak,
artuak txikitu ta
aletu gariak.
Nun dira jakinduri
askoren jabiak
orlako ekaitzari
artzeko neurriak?
- 12/ Xamur da parre egiten
nekazariari
baña laguntzallerik
ez degu agiri.
Begiratu ezkerro
gaurko munduari
inpernua ote dan
berak badirudi.
- 13/ Nekazariok egin
biar degu beti
gure Jaungoikuari
eskatu gogoti;
baita eskerrak eman
gero biotzeti;
laguntzarik ez degu
beste aldetati.

14/ Neke danak igaro
bere izenean,
gorde gaitzala berak
osasun onean.
Nolako urtea degun
ikusten danean,
berriz itzegingo det
uda atzenean.

MUNDUA, NEGAR-ERRIA

Giza-bizitzaren samiña: orra alde ta aldi guztietako olerkariak erosta joaz adierazi digutena. Gurasoak ume jaio-berriari parre eragiten egingo dituzte alegin danak. Gero, berriz, ume orrek bere guraso zaharrei parre ez, baiña negar eragingo die, bearbada.

Arantzazuko errebistan agertutako bertsoak. Ikus "Aránzazu" XXIX (1949), 251-252.

- 1/ Gizona jaiotzen da
mundura negarrez
negar-erria dala
igarrita aurrez.
Gaztetan goxo goxo
danak jan biarrez
zartutakoan iñork
ikusi ere nai ez.

- 2/ Aita ta ama pozez
berari begira.
Goxotasun guziak
arentzako dira.
Parre noiz eragingo
amatxo ari da;
aitari esango dio:
A! parrez asi da.

- 3/ Alaxe semetxoa
bigun bigun azi
gozatsu eta xamur
bizitzen ikasi,
jantzirik politenak
beretzat erosi;
geroko ordain ona
nai dute irabazi.
- 4/ Gurasoak txoratzten
geroko pozean
semetxoa daukate
beti biotzean,
laguntza badutela
azitzen danean,
ez dira aspertutzen
beretzat lanean.
- 5/ Ai, zenbat bearleku
artutzen dituzten!
Musu bat eman gabe
iñoiz ez dute uzten;
beren seme polita
danai erakusten.
Gero zer datorkien
ez dute ikusten.

6/ Mutikotan mutil nai
semetxoa amak,
ortan egingo ditu
alegiñak danak.
Gaizki artuko ditu
aitak ondo esanak
ortatik sortzen dira
gero ezbear danak.

7/ Ama baten burua
beti egundaño
ortan saiatuko da
sekulataraño.
Ez da konturatuko
bera galtzeraño;
semea maiteago
beti aita baño.

8/ Gero semetxo ori
ezkontzen danean
andre berriarekin
maiz erromerian,
aita ta ama zintzo
etxean lanean
gero ondo izateko
itxaropenean.

9/ Egiten diranean
aitona ta amona
errañak semeari
begiramen ona.
Ikusi arren zarrak
premian daudena
goxotasun ordez
aientzako lana.

10/ Errañak esango dio
bere senarrari:
Nik bai sufritu bear
zure aita ta amari...
Oiek ematen didate
zer egiña neri;
zuri esango dizute
gezurra ugari.

11/ Senarrak sinistatu
bere andriari,
gorroto artzen die
aita ta amari.
Orla gertatzen zaie
munduan askori
bigarren umealdi
zorigaiztoko ori.

12/ Aitona ta amona
oso nekatuak
erraña konfesatzen
aien pekatuak.
Senarrak sinistatu
ark esandakuak;
etxe askotan dira
orla gertatuak.

13/ Amonak egiten du
negar gogotikan,
aitonak ala dio
bere agotikan:
Ni baño maiteago
zenduan lendikan,
orra zer sortu zaigun
semeagandikan.

14/ Amonak biotz miñez
ala esaten du:
Soldata gabe morroi
oraintxe gaude gu.
Ai, Jaungoikoa! Ala
merezi badegu
Purgatorio orde
izango aldegue.

15/ Zori gaiztoko seme
ori dek biotza!
Irri-parre eraitea
uan gure poza.
Zartzarorako jarri
diguk ik morrontza.
Guri negar eraiten
orain ez aiz lotsa?

16/ Begiratutzen badek
pixka bat atzera
iritxiko aiz gaitzak
ezagutuzera.
Gero jarritakoan
gu gauden antzera
orduan sortuko zaik
miña biotzera.

17/ Aitonak dio malkoz
begititik beera:
Negarrez jaio giñan
ona lur gañera.
Mundu ontan luzaro
izango ez gera,
orain aurki negarrez
bagoaz bestera.

MOSKORRA ETA NESKATXA

“Amodioa zein dan zoroa / mundu guztiak baleki”... Ala dio erri-kanta batek. Neskak bat moskor batekin ezkontzen da, naiz ta bere senargaiaren bizioa jakin. Gurasoen esanak alperrikakoak izan ziran. Geroak gero...

Ikus “Aránzazu” XXIX (1949), 298-299.

1/ Lau mutil kaletarrak
taberna batean
botilla galantakin
zeuden zurrutean.
Nola andrerik ere
etzuten etxean
bapo edaten zuten
basoa betean.

2/ Bete ziradenean
zintzurretaraño,
aotik zeriela
upatz eta laño,
zutik egon eziñik
batek ala diño:
—Ardoa obe diagu
guk andrea baño.

- 3/ Gauerdian kanpora
atera zituzten,
nora joan bear zuten
etzuten ikusten.
Eskuak luzatuta
baztarrairi eusten,
laurak ipurdiz bera
nunai ziran jausten.
- 4/ Danak erori ziran
bide baztarretan,
ezin jaiki ziran da
jarri ziran lotan.
Izotza egin zuan
galanta gau artan;
goizean dardaraka
antxe zeuden bertan.
- 5/ Bat esnatu zanean
—dana otzak iltzen—
berealara asi zan
besteari deitzen:
—Gu gaituk asta-putzak,
ez dezute aditzen?
Zentzuna daukanikan
ez dek orla ibiltzen.

6/ Etzeok premiarik
orla ibiltzeko,
utsa falta diat nik
bertantxe iltzeko.
Au ez dek ibillera
gizonarentzako;
botoa egin diat
aurki ezkontzeko.

7/ Atera ziranean
moskor aretati,
errekadu egin zion
neskatx gazte bati,
esanaz: Maite zaitut
biotz-biotzeti;
zure senar zintzoa
izan nai det beti.

8/ Neskatxak erantzuten
dio mutillari:
—Ontzat artutzen dizut
nik agerpen ori.
Baña nola zabilzen
beti txurrutlari
esan bearko diet
aita ta amari.

9/ Mutillak egin zion
zenbait inbusteri
esanaz: Zuk ez egin
kasorik besteri.
Oso utzita nago
orain txurrutari.
Besterik ez det maite,
bakarrik zerori.

10/ Neskatzak esan zien
aita ta amari:
—Nobio bat maitale
agertu zait neri;
kariño artu diot
nik ere berari;
nik ezin utzi neike
komentzi ori.

11/ Erantzuten diote
txit minberatuta:
—Or ibiltzen den ori
beti moskortuta,
tabernariak ere
beraz aspertuta.
Nola bizi bear den
ik ori artuta?

12/ —Egiña bada ere
zenbait moskorkeri,
oso utzi diola
gaur esan dit ori.
Nik ere kariñoa
badiot ugari;
zuek ez egin kontra
gai orretan neri.

13/ —Iretzat on bearrez
guk itzegin arren
gurasoen esanak
ez din balio emen.
Eure amets txorua
bete bear baden,
emen daukan dotea;
ezkondu lenbailen.

14/ Kanean jarri ziran
laister ezkondata,
dote-arrio onak
aita-amai kenduta;
merezi baño geio
aiek lagunduta,
gurasoak umea
maite izaten du ta.

15/ Denbora gutxi barru
ezkondu zanetik
gizon ori asi zan
lengoko bidetik.
Emaztea negarrez
ikusiagatik,
bearrari utzita
tabernara betik.

16/ Gaztetatik bai zegon
bizioz betea,
aren amesa beti
txurrit egitea.
Beti tabernarako
al zuan guztia.
Azkenik edan zuan
andrea dotia.

17/ Goiz baten erdi tarraz
eldu zan etxera.
Andreak mosua illun
asarre antzera.
Esan zion amorruz:
—Nator zu iltzera
neri begira parrez
jartzen ezbazera.

18/ Makilla baten billa
bertatik zan asi.
Gurasoen etxera
andrea igesi.
Ala esaten die
negar da garrasi:
—Ni arekin geiago
ezin neike bizi.

19/ Erantzuten diote
miñez biotzian:
—Or zer etorriko zan
guk baginiekian.
Gurasoen esana
ondo artu ezian
orra ze lanbideak
datozen atzian.

20/ Zer egingo diñau ba?
Besterik ezean
gurasoen bitartez
banakatu ziran.
Andrea neskame ta
gizona eskean
ala ibilli ziran
bizitza guztian.

21/ Nobio enbustero
askok badakite
neskatxairi egiten
nai ainbat konbite.
Mutil txurrutzaliak
bazaituzte maite
moja edo neskame
azkar joan zaitezte.

ZER DAKARREN SAN JUAN OSTIRALEKOAK

“Nolako urtea degun / ikusten danean, / berriz itzegingo det / uda atzenean”. Ala agindu zigun Grazianok “San Juan ostiralekoa” izena duten bertsoetan. Eta orduan emandako itza betetzera dator orain. San Juan ostiral egunez gertatzen dan urtea, urte txarra izaten omen da. Eta siñiskera orren egia probatzeko urtearen azkenera arte itxoin zuen Grazianok. Benetan urte txarra aterra zan 1949 ura. Beraz, esaera zaharrak, egia mardulak dirala ezin uka.

Ikus “Aránzazu” XXX (1950), 10-11.

1/ Argitaratu ziran
San Juanen bertsoak
uztaillan amarrean
nik jarritakoak.
Berrogeita bost egun
ondorenekoak
aize otz gorriakin
legor ta sekoak.

2/ Legortu ziran mendi
soro ta zelaiak,
baita agortu ere
iturri ta ibaiak;
arto, baba, patata,
ta ganau jangaiak
kixkalduta gelditu
ziraden guziak.

3/ Gero dagonillaren
ogeita lauean
aize tximistatsu bat
sortu zan gauean,
arbola, arto, baba,
arturik aurrean,
txikituta ezarri
zituan lurrean.

4/ Biaramon ona zan
ogeita hostian
toki asko arriak
txikitu goizian;
beste erri askotan
berriz arratsian
arto ta babarrunak
desegindu ziran.

5/ Bizi-poza ekarri
bazigun agorrak,
asieratik egin
euri gozo ederrak.
Orduan jaio ziran
arbi ta belarrak;
baña ezin berpiztu
arto baba igarrak.

6/ San Migeletan ziran
“ordi zaragiak” (1):
euri-jasa lodiak
neurrik gabiak;
urak azpiratuta
soro ta zelaiak,
usteldu ziran asko
an ziran jangaiak.

7/ Aurten baba gorririk
ez da eltzerako,
jarri janari fiñak
bazkaritarako.
Askok esan oi dute:
potajia basto.
Bi oñekin ba-dabill
makiña bat asto.

(1) “Ordi-zaragiak” = euriteak, egun askoko euriak. Lengoen esaera da: “San Migelek botauko ditu bai ordi-zaragiak” (Graziano).

8/ Parabolak esaten
arto zuriketan
pozik ibilli gera
amaika urtetan;
aurten nola etziran
banastak betetan,
igartzekorik ere
inork ez du esan (2).

9/ Sagarrak eman dute
lora bi alditan,
baña antzu gelditu
baten eta bitan;
patatak alerik ez
amaika tokitan.
Negua nola igaro
aurten baserritan?

10/ Gaztañak ere frutu
ariña eman du
jakiña zan ugari
etzuana emango,
naikua gaztaiña ere
ez baitegu jango
neguan musikarik
ez degu izango.

(2) Parabolak = igarkizunak.

11/ Gure izardi eta
alegiñak danak
legor, aize ta arri
dituzte eramanak.
Nok ordainduko guri
neke eta lanak?
Erantzun dezatela
jakintsu diranak.

12/ Zer dakarren San Juan
ostiralekuak?
Utsik gelditutzea
ganbara lekuak.
Ara bete Txantxonek
len esandakuak,
sinistu nai badute
orain jakintsuak.

13/ Eskoladunak beti
bere arrokeria,
lelua dala gizon
eskola gabia.
Orra aurten ikusi
ispillu argia.
“Arta Manuel (3) askok
jaten dute ogia”.

(3) “Arta Manuel”. Grazianok dionez, Urruxola-ko auzoan ba-omen zan antziña gizon bat, ez-izen orrekin; artoa jaten zuelako-edo izango zan. Emen leloa edo orrelako zerbait esan nai du.

14/ Artzaiak mendian ta
gu nekazaritzan
nola bizi guzian
kanpoan gabiltzan,
berez ikasten degu
pronostikugintzan.
San Juan ostiralekoz
beti bildur izan.

15/ Nolakuak diraden
aurtengo ondasuank,
orra argitaratu
Gesaltzako aitonak;
orain guzientzako
nere zorionak
ongi igarotzeko
eguarri-gabonak.

NERE BIZITZA

Bere bizitzako gorabera nagusi batzuk kontatzen dizkigu emen Grazianok. Zorrez jositako baserri bat utzi omen zioten gurasoak. Baiña gogotik lan egiñez eta beti zintzo, zur eta fin jokatuaz, etxea jaso al izan du.

“Arantzazu”-n agertutako bertsoak. XXX (1950), 62-63.

1/ Ara Gesaltzako aitonatxoa,
iñork nai badu ezagutu.
Arantzazuko illerokoa
etxe guzietan artu,
Andre Mariari gau eta egun
biotzetik erregutu,
samintasunak gozatutzeko
beti emen dago gertu.

2/ Arantzazutik nire izenez
irten diraden bertsoak,
naiz itxusiak, naiz egokiak,
dira neuk jarritakoak;
parregarriak izan badira
batzuk orain artekoak,
xelebriago izango dira
emendik aurrerakoak.

- 3/ **Kristau maitea, ondo gogoan**
artu zazu Arantzazu,
zeru ta lurren Erregiña dan
Amatxo emen daukazu.
Gau eta egun otoitz egiñaz
bera maitatzen badezu
orain da gero zorioneko
beti izango zera zu.
- 4/ **Nere bizitza nolakoa dan**
oraintxe nator esaten.
Mendi onetan mundura nintzan
baserri erratal (1) baten.
Gure aitonak orain eun urte
zorra besterik etzuten,
argatik beren jaiotetxea
iru puske egin zuten.
- 5/ **Zoritxarrean baserri ona**
egin zuten iru zati;
nere aitari eman zioten
erratal bat irutati;
soroak batzuk errentakoak,
belar zelaiak urruti;
famili baten lekuan iru
estu bizi bear beti.

(1) *Erratal*=zati, puska. Gesaltzako baserria garai batean baserri bakarra zan; gero baserri bakar ortatik iru bizitza egin ziran, bakoitzari zati bana emanaz..

6/ Nere aita-amak zintzoak ziran,
—egondu bitez zeruan—,
zintzotasuna ikasi nuan
nik ere aien onduan;
naigabe eta ezbear asko
igaro zuten munduan;
gaurko gazteak ez dira bizi
gu oitu giñan moduan.

7/ Esan zidaten seme zarrena
ni nintzala etxerako,
pisu aundia genduala-ta
biarra zintzo egiteko;
akats guziak berdindutzean
gero dana neretzako:
ala txorotan jarri ninduen
zor guzien mayorazko.

8/ Gero obeto izatekoa
beti guztien amesa,
nire buruan ere sortu zan
nolabait geroko poza.
Nola luzaro eraman nuan
ain bizimodu nekeza,
amaika aldiz damutu nintzan
gaztetan praile jun eza.

9/ Seme-alabak azi giñuzen
maite-maite, goxo-goxo,
gaur sukaldean bildutzen zaizkit
bederatzi illobatxo.

Saritsuakin natorrenean,
aurpegiak argi oso;
nik lantxoren bat agindutzean
polañak aguro jaso. (1)

10/ Jatorri edo oiñorde onak
baditut ondorenean,
nik nuan bezin pisu astunik
orain ez dute gañean.

Neke guziak igaro ditut
Jaungoikuan izenean,
iltzeko ere korforme nago
Berak deitzen didanean.

11/ Zeruko Aitak eman dit neri
merezi ainbat suerte,
alegiñean saiatzen ere
jarraitu det oraiñarte.
Poltsatik arin, aragiz plako,
ezurretara bai fuerte,
naikua pisu bizkarrian det
irurogei ta amabi urte.

(1) "Polañak jaso" = iges egin.

12/ Salto ederra bota berri naiz
lengo zalditik astora (1),
nola nabillen ezagutzeko
begiratzea asko da.

Aldapabera samur da juten,
nekez igotzen da gora,
itzul amilka igarotzen da
mundu ontako denbora.

13/ Bertsotarako aize pizka bat
nik banuan gaztetati,
baña artako astirikan ez
biarrian zintzo beti.

Orain auldua banago ere
saiatuko naiz gogoti,
Arantzazuko illerokoa
danok artutzeagati.

14/ Luzaro ezin bizi liteke
Arantzazuko aitona,
nere biotzak guzientzako
dauka borondate ona.
Iñork badaki ipui ederrik
zerbait parregarri dana,
bertsotan biok jarriko degu,
datorrela neregana.

(1) *Zalditik astora*. Izan ere, lenago zaldia erabil-
tzen zuan Grazianok esnea Arantzazura eramateko;
gero zaldia kendu ta astoa ipiñi zuan.

15/ Mesede baten eske azkenik
banator guziokgana
kristau on batek ezin ukatu
ni eskatzen natorrena:
argitutzeko pixka bat niri
zentzuna ta adimena,
Andre Mariari esaiozute
danak "agur Mari" bana.

16/ Gure gaitz danen sendagillea
emen Aloñako Ama,
biotzetiko jaiera ona
izan danok beragana.
Zure auzoan iñor badago
Rebista au ez dakana,
al dan lenena billatu danok
irakurle berri bana.

17/ Ama goxo au uda ta negu
prailleak zaitzen dute-ta
oieri zerbait lagundutzero
gu beartuak gaude-ta.
Il guzietan liburu on bat
orri bat bertsoz beteta,
ez uste izan garesti dala
urteko amabost pezeta.

ARANTZAZU-ALDEKO GURUTZEAK

1951'gn. urtean beren urrezko eztaiak bete zituzten gure mendietako gurutzeak. Ori dala-ta, Arantzazu inguruko aitz nabarmenetan dauden gurutzeak aipatzen eta izendatzen dizkigu Grazianok.

Arantzazuko errebistan azaldutako bertsoak. Ikus "Aránzazu" XXXI (1951), 48-49.

1/ Gizon guziok agurtu zagan
danon Aita Betikua,
orobat Jesus Salbatzallea
bere Seme Jaungoikua;
baita ere bere Ordezkaria
Erromako Aita Santua.
Beartzen gera gu egitera
Berak agindutakua.

2/ Gipuzkoako mendi danetan
Aizkorri degu goiena.
An dago gure Salbatzallea
gurutzean il zutena.
Maitale askok bere oñetan
urtero agurtzen dutena,
toki alaia, Euskal-errian
danak ezagun dutena.

3/ Oñatik dauka ispillu ederra
Aloñako erpiñian,
zintzo jarrita gizaldi onen
lendabiziko urtian.
Andik onera gordetzen gaitu
bere itzalaren azpian;
ez dakit inor gogoratzen dan
berrogei ta amarrenian.

4/ Urte Santuan agindu digu
guzioi Erromati,
gurutzearen maitatzalleak
izan gaitezela beti;
señale aiek deika jartzeko
gure mendi gañetati,
Jesus esegi zuten arbola
gogoratzeko oietati.

5/ Aizkorrira joan gaitezen danok
Jesukristori eskatzera
gorde gaitzala argi ta garbi
kristau zintzoen antzera.
Txorakeritan joaten diranak
jolasean ibiltzera
len baño erdoi zikiñagoa
ekarriko dute atzera.

6/ Gurutze oiek erri askotan
daude orduan jarriak.
Garaia da, ba, nai badira egin
orain urrezko eztaiak.
Ortan aurrena izan bear du
gure Oñatiko erriak,
ori ez dute gaizki artuko
emengo buruzagiak.

7/ Arrionako aldamenean (1)
Arantzazutik gorantza,
zorrotza eta luze apaña
dago Gazteluko aitza (2).
Bere gurutza gaiñean dauka
aspalditxotik jarrita,
erromes askok bera ikusita
egiten diote otoitza.

(1) *Arriona*. Arantzazu-inguruko arkaitz baten izena. Iturrigorri-aldera dago.

(2) *Gazteluko aitza* edo *Gazteluaitz*. Aitz nabarmena au ere. Gaztelu baten itxura edo antza duela-ko deitzen zaio ala.

8/ Aren alboko gurutz-aitzari
Aitz-zabal deitutzen zaio.
Deabru-aitza zuan izena
gu gazte giñanerako (3).
Erromes askok ara joateko
ez dute ainbeste enpeño,
auntzak obeto zaindutzen dute
kristau mosoloak baiño.

9/ Naimenez bete nai ez duanak
Aita Santuen esana
argi ta garbi erakusten du
ez dala kristau zuzena.
Zergatik dabil oiñ-azpiratzen
Jesukristoren izena?
Pauso oietan dabillen ori
ez da egiazko gizona.

(3) *Aitz-zabal* edo *deabru-aitza*. Arantzazuren aurrean dago aitz au. Ainbeste kontakizun eta ipui dago berari buruz: jentillen bizi-lekua zala, ta abar. Jentillak, mairuak eta deabruak folklorean nola naastuta dabilzan, ortik eldu zaio nunbait *Deabru-aitza* edo *Peña del diablo* izena.

- 10/ Baita beste bat Gurutz ederra
 Arantzazuren aurrean,
 nundinaitikan agiri dana
 Beillotzako Aitz-gañean.
 Erromes asko Arantzazutik
 ikusitzen dutenean,
 bere ondora igotzen dira
 Jesukristo-izenean.
- 11/ Azpil gañean ta Atxurin ere (1)
 jarri ziraden gurutzak.
 Lenak erori berriz ez jarri
 orain biak daude utsak.
 Batzuek arin jotzen dituzte
 beste mundurako gauzak,
 berriak ere jarri lezazke
 kristau zintzoen laguntzak.
- 12/ Anaitasuna gorde dezagun
 batez ere Euskalerrian,
 al dan guzia otoitz egiñaz
 gurutze oien aurrian.
 Bata besteai zintzo lagundu
 premi ordua danian,
 Arantzazuko Andre Maria
 zaintzalle degun artian.

(1) *Azpil*. Arantzazuko auzoko mendixka biribil baten izena. Bertan daude *Azpilleta* izeneko bi etxe. *Atxuri*, Aloña-aldera dagoen aitz baten izena.

GAURKO GAZTEAK

Lehenago ziran kalea kale, eta baserria baserri, dio gure bertsolariak. Baiñan orain dana jarri da azpikoz gora. Baserriko gazteak kaletarren antzera nai dute bizi: kaletarren jazkerak eta kaletarren oiturak artu; aberats ta aundizki bezela bizi, naiz ta patrikadak utsik izan. Gabardina jazteko moda zabaldu da baserriko mutillen artean. Prenda berri ori begitan artua dauka Gesaltzako aitonak: *asto-manta* deitzen dio. Jai-egunetan kaletarrakin jolastutzero joan bearrean, mendi-mutillak ikuillura joan bear luketela dio, bei ta txekorrak orraztera...

Bertso xeleb्रे auek asko zabaldu ziran. Baita erantzunak ere eldu ziran Arantzazura. Erantzun oetatik iru beerago ikus ditezke.

“Arantzazu” XXXII (1951), 52-53.

- 1/ Emen gu zortzi aitona ximel
meza nausitan bilduta,
prailleak nola jarri gaituzten
gaur ederki bazkalduta,
baserriako oitura onak
nola dauden ain galduta,
orain bertsotan astera goaz
biotzak minberatuta.

2/ Lenago ziran kalia kale
ta baserria baserri,
kale-jazkerak eta oiturak
etxera zaizkigu etorri,
aurrekoai ezin jarraituz
gazteok dabilta larri,
beren galera nundik datorren
ezin diote igarri.

3/ Gure auzoan zortzi aitona
gabiltz nekazari jantzik,
gabardina edo asto-mantakin
or dabilta beste guzik,
oiek ez dute erakutsi nai
iñola baserri-antzik,
gañez aberats ematen dute
askok patrikadak utsik.

4/ Nekazaria kale-jazkeraz
nola jartzen dan ain zarkin (1)
ematen dute ote dijoan
asto bat krabeliñakin,
kaletarrakin bildutakoan
nola ibilli ez jakin,
aiek bai parre egiten dute
baserriko leluakin.

(1) *Zarkin*=zakar, itxusi.

5/ Nekazariak ibillitzia
nun bizi diran aztuta,
korbata, pultzera, pitxi ta abar
buruak ongi orraztuta,
lepotik bera oñetaraño
asto-mantaz estalduta,
zaku-patatak ematen dute
atzetik begiratuta.

6/ Gaurko gazteak jai-egunean
beste lanik ez dute nai:
meza laburra, txurruta luze,
gero parrandara lasai;
asto-mantia jantzitakoan
ez dira juango ganau-zai:
obe litzake jungo balira
Lekunberrira (1) errementai.

7/ Adizak, mutil baserritarra,
nun bizi aizen ez aztu;
jai-egunean parrandarako
kaletarrakin ez nastu;
ez tabernara, ukullura jun,
txekor da beiak orraztu,
bestela zorra nagusi dala
bizi bearko dek estu.

(1) *Lekunberri* = Oñatiko kale-bazter bat da, errementari-kalea (Graziano).

- 8/ Aitona zarrok beti lanean
oso daude nekatuak,
oien errukiz ala ditugu
gorputzak txit urratuak,
esan ezkeron nola len zintzo
bizi giñian kontuak,
erantzuera ematen dute:
gu zarrok danok tontuak.
- 9/ Ez dute uste daudenik ere
gurasoakin zorretan,
aitamak zintzo ikusiarren
gastatzen modu okerretan,
gu leporaño beteak gaude
ikusten modu orretan,
listotutzeko garaia dala
pentsatu degu gaur bertan.
- 10/ Tonto izena beti aditzen
txit aspertuak gaude gu,
meza nausitan egin diogu
Birjiña Amari erregu;
familiarren laguntzarikan
iñoiz merezi badegu,
gaurtik asita bazkari on bat
jaiero egingo degu.

11/ Irakasleak ugari dira
gazteai erakusteko:
ordua dala guraso zarroi
noizbait laguntzen asteko;
lengo txamarrak asko ditugu
gure soñetan jazteko,
ez dute bear dirurik guri
asto-mantak erosteko.

12/ Guraso gazte batzuek ere
ainbeste dira txoratu,
esaten dute: Gure alaba
nola doian begiratu,
neskatilla bat oraindik dala
bai neska antza goiz artu,
mutil guziak bera nai dute,
laister da ezkontzeko gertu.

13/ Semea, berriz, ain da bizkorra,
ama esaten ari da;
gaztea dala igo du orrek
mutil elduen neurrira,
jaiki orduko jarriko da bai
ispilluari begira,
erri guzian au bezelako
potxoluak gutxi dira.

14/ Gure bizitzan ikusi degu
makiñatxo bat goibera,
bizi-moduak salto galanta
egin du lendik onera,
luzaro tonto izanda ere
oraintxe listotu gera,
guk alegiña egin degu ta
ez goaz berriz lanera.

BASARRI JAUNAREN ERANTZUNA

Asto-mantaen bertsoei erantzuten Basarri jauna izandu zan lenena. Gazteen alde azaltzen da. Zer ajola du bruxa beltza naiz asto-manta jantzi? Gaiñera gazteak ere ikasi bear du kristau bezela jolastutzen, jaiak ikuilluan, txekor ta beiak orrazten, pasatu gabe.

Ikus "Aránzazu" XXXII (1952), 157-158.

1/ Gesaltzan degun aiton maitea
orra indarberrituta;

negua iges dijoan ontan
iñon ezin kabituta.

Bere amalau bertso ikusi

ditut guztiz arrituta;

ordañak jarri bear dizkiot

ondo merezi ditu-ta.

2/ Uste al dezu, aiton maitea,

gauza bidezkoa dala

beti besteri esate ori

burura etorri ala?

Etzazu aztu txori guziak

mokodunak oi dirala,

zar eta gazte, emen geienak

pekatariak gerala.

3/ Ongi dakigu, garai bateko
konturik eztaukaguna;
lengoak lengo, gaurkoak gaurko,
ta... biar? —datorkiguna.
Naiz bruxa beltza, naiz asto-manta,
esan zazu nai dezuna,
jazkeraren gain ezta egoten
sarritan gizatasuna.

4/ Jazkerak lendik egonagatik
erabat txit aldatuak,
gabardiñazko estalgarriak
etxe askotan sartuak;
oiek ez dira ortano gogor
zigortzeko pekatuak,
bruxa beltzaren azpian ere
danak ez daude santuak.

5/ Kaleratuta or asten dira
neurritz kanpora edaten,
edozein baño geiago dira
birau gordiñak esaten,
lanak dituzte kaleko kargak
baserrira eramaten,
ala dabilzan bruxa beztunak
ez dute ederki ematen.

- 6/ Jazkeraz pixkat apaindutzea
zeñek ar lezake pena,
bere dirutik egiña badu
soñean jartzen duena;
besteri neurri artu nai ori
askok izaten dutena,
norbereakin konpormatzea
ez al da gauzik onena?
- 7/ Batek trintxera daramalako
zertan jarri zipotzean,
aren jantziak eztu mermarik
egiten nere poltsean,
arekin ere ibilli leike
jatorrenaren antzean,
lanikan asko ez al daukagu
bakoitzak geren etxean?
- 8/ Sinisten ditut, zure denboran
egingo zinduzen lanak,
bañan alpertzat ez itzazula
artu gaurko gazte danak.
Bruxa utzita egonagatik
modari zerbait emanak,
oraindik asko dira lur ontan
bapo saiatzen diranak.

9/ Gaurko aitona askok ez dute
ez moduaren paltikan,
bañan pillatzen jarraitu naia
len ikasitakotikan.
Prenda berriak ere gustatzen
zaizkiete gogotikan,
zarrekin pasa naiago dute
ez gastatzeagatikan.

10/ Fede biziko gazterik ezta
edozein moduz narrasten,
neurri estuko kontseju oiek
ez ditut ondo ikusten;
gazteak noizpait jakin bear du
kristau bezela jolasten,
jaiak ukullun pasatu gabe
txekor da beiak orrazten.

11/ Noizean beingo lagunarteak
nor ez gaitu jartzen alai?
Nekeak bere poza bear du,
asteak aste, jaiak jai.
Dirurik iñoiz ez bota gaizki,
ori ez nuke esan nai,
alperrik galdu ezer ez baña
premizko gauzak artu bai.

12/ Erabaki bat artu dezute
Arantzazuko elizan,
bazkari on bat jaiero egin
dirudun batzuen gisan.
Orretarako modu paltarik
len ere ez dezu zuk izan,
zure tokian egon banintz ni
lenago asiko nintzan.

13/ Aiton maitea, urtez zu ere
pixkabat aurreratuta,
zertan ibilli bear dezu zuk
ortafio ernegatuta?
Bildu zaitetze zortzi auzoak
jaiak jaitzakoz artuta,
lasai bazkaldu asto-mantaren
kezkak burutik kenduta.

14/ Ikusirikan gaztien aurka
ain gogor sartzen zifiala,
nik pentsatu det alde jarrita
asko poztuko dirala.
Ba-dakit berriz len bezin lagun
onak izango gerala,
Arantzazuko Ama maiteak
luzaro gorde zaitzala.

URANGA-REN ERANTZUNA

Itziar-ko Uranga —bera ere gaztea, noski— Grazianoren eraso zorrotzari erantzutera dator. Zergatik ez kaletarrekin bildu? Danok ez al gera anaiak?

Ikus "Aránzazu" XXXII (1952), 179-180.

- 1/ Nola langintzan ikusi detan
aitona orren obretan,
nik uste nuan bizi giñala
gazteok fama obetan.
Erantzutea iduritzen zait
nere burutik gaur bertan;
aitona jauna, barka zaidazu
faltatzen badet ezertan.

- 2/ Jaunari eskerrak ematen dizkat
oraindikan naiz gaztia,
pobrea naiz ta lana egiñaz
pasatutzen det astia;
gustatutzen zait, al baldin badet,
jaietan ondo jaztia,
asto-mantakin dabilzan zarrak
asko obeak ezta.

- 3/ Iñoiz errian egin izan naiz
kaletarrakin alkartu,
danok anaiak gerade eta
nola gindezke bakartu?
naiz ta astean lana egiñaz
gorputza zerbait baldartu,
zaku-patatak geralakoan
ez gaitu oraindik artu.
- 4/ Ai, bruxadunak berak'e ba-du
iñoiz komeria pranko;
ballara baten auxe pasa zan
iya bota zuten zoko:
burruxa jantzi ta ardi bati
larru kentzen ai zan bapo,
ta eiztariak tirua tira
putre zarren bat zalako.
- 5/ Kaleko jira dakigunikan
ainbat ez dezu usteko,
egun jornala ez da naikoa
ogia irabazteko,
gero beraien bizioetan
dabiltz batekoik besteko;
baserritarra obeto dago
jaietan ondo jazteko.

6/ Zuk esan gabe zerbait badakit
gaurko kaleko eskola:
aste-egunean zine, teatro,
jaietan berriz fubola;
jan-orduetan errietia
ogirikan ez dagola;
Jaunari eskerrak baserritarrak
ez gerade bizi ola.

7/ Aste-illuntzetan, ixil-ezkutu,
zintera azkar igesi;
gu Errosariyoa esaten
geure guraso ta guzi;
guk ez badegu, kaletarrikan
nola ezin leiken bizi,
eiten duanak ondo jaztea
berak ez al du merezi?

8/ Aitona zarrak urte batzutan
gora junda daudezenak,
orain gaztien pekatu-billa
oiek dira errezenak;
neuk'e badakit oingo gazteak
fallik gabe ez gaudezenak,
baño lengoak ere etziran
danak alaje zuzenak.

9/ Oin baño zallo ez det pentsatzen
len bizi izaten zanik,
esaten dute: Ola ez gendun
eiten jan eta edanik;
gañera asto-mantak erosten
etzan gastatzen zuanik;
alare ez det iñor ikusten
aberastuta dagonik.

10/ Aitona zarrak, badakit nola
zaudeten ain nekatuak:
gu bizi izaten ipintzearren
gorputzak minberatuak;
baño oin baño geio etziran
komentuetan sartuak,
oin bezelaxe lengoak ere
bazituzten pekatuak.

11/ Alaje edo pintatutziak
lagatzen ditut aparte,
oiek askotan familirako
arri aundia dakarte;
otz dagonean asto-manta orrek
nola eiten ez dun kalte,
aurrera ere nik jantziko det
Jainkoak nai duan arte.

- 12/ Baserritarrak gabardinakin
 emana gauden txapuza,
 otz dagonean ori jaztea
 nork egingo du eskusa;
 danak dakite negu beltzean
 ez dala ona burruxa,
 zeuk nai badezu ibilli zazu
 nik ezin ninteke usa.
- 13/ Diferentzia egingo zuan
 antziñatikan onera,
 baño ez da ain gauz egokia
 abonatzia norbera;
 zeuen buruak gora jasota
 gu gazteak bota bera,
 zerbait fallua nunbait degunak
 lur onetan danok gera.
- 14/ Pralle jaun maite, biotzekoak,
 ta berdin aitona zarra,
 alde batera lotsa eman dit
 lan ontan sartu bearra,
 baño aurrera alkartasuna
 ez al da gauza earra?
 berriz'e lagun izango gera
 etorri lasai Itziarra.

GOYALDEREN ERANTZUNA

Goyalderen izenaz etorri zan erantzun au. Lau mutil baserritarrek egiña. Gabardinaren alde azaltzen dira.

Ikus "Aránzazu" XXXII (1952), 185-186.

1/ Zu, Gesaltzako Grazian Jauna,
etzaitut nik ezagutzen,
baña lengoan egondu nitzan
zure bertsoak entzuten,
"Aránzazu" ain zabaldu orrek
ditunak argitaratzen,
Euskalerriko bazter danetan
bai-dirade irakurtzen.

2/ Alde batean eta bestean
mintza dirade gizonak,
oien artean ez gutxiena
nekazari txapeldunak;
danak diote: Aundiak dira,
bai, Gesaltzako aitonak
kulparik gabe baserritarroi
gaur botatzen dizkigunak.

- 3/ Orain, bakarrik esango dizut
zer pasatu zan lengoan,
lau mutil gazte maiorazkogaz
nere basarri auzoan;
bildu ziraden jai-arratsean
lan danak egindakoan,
zure bertsoak irakurtzeko
rebista Aranzazukoan.
- 4/ Nik dakidanez gazte oiek dira
kristau zintzo ta apalak,
baserrietan lan egiteko
langille ez ain makalak,
giza-artean tratatutzeko
mutil jator ta leialak,
obe bearrez jazten dituzte
kalerakoan "mantalak".
- 5/ Irakurri ta ondorenean
ain triste ziran gelditu,
laurak batera galde zidaten
ez al nituen aditu;
erantzun nien: Gazte maiteok,
etzaitezela arritu,
era ortako zirika aldiak
Gesaltzak sarritan ditu.

- 6/ Ikusi dezan nola askotan
aldatzen diran oiturak;
esan zaiogun agure orri
gabardiñaren onurak,
ez dutelako bera pasatzen
ez aizeak ta ez urak,
zer dio ajola jazten dunari
ematen dion itxurak!
- 7/ Naiz mantal ori baldin bada ere
oraingo jantzi berria,
ez gentzake esan izan bear dula
iñoren kaltegarria,
gastatzeari artzen bazaio
bear bezela neurria,
gauza ona da gorputzarentzat
orlako berogarria.
- 8/ Gaurko egunean orixe dezu
“prendarik” egokiena
bear bezela estaldutzeko
papar, gerri ta barrena,
bere azpian ondo gordeaz
jaiko trajerik onena,
“elegantia” azaldutzen da
soñean damakiena.

9/ Ondo jan da edan egin ondoren
mingaferatu indarra,
gero bertsotan asitakoan
zera pikaro samarra,
orlako orduan nola sentitu
gabardiñaren bearra,
naikoa dezu itxurarako
sorbaldatikan txamarra.

10/ Gizon aundi ta jakintsu batek
onela esan omen du:
Bide obero aldatutzeko
beñere ez da berandu,
Grazian jauna, zure burutik
uste oker oiek kendu,
oraindik ere garai da eta
asto-manta bat zuzendu.

11/ Oitura berri au artutzea
kalte ote degu benetan?
Zerori ere erortzen zera
iñoiz egite oietan,
asmo berriak artu dituzu,
ikusten danez, gaur bertan,
lenago ola pentsatu eza
igual zaude penetan.

12/ Zure bertsoan beste gauz batzuk
gurasoentzat badira,
gu, ezkongaiok ezin gindezke
gelditu oiei begira,
au bai, nai degu gazteak bildu
ditezela baserrira,
aitona-amonai bear bezela
lagundutzeko tokira.

13/ Ona emen gaur lau mutil gaztek
dakarkigun erantzuna,
“Aránzazu” mandatari dala
bialdutzen dizuguna,
iñola ere ez genduke nai
asarratzea aitona,
zerbait gogortxo esan badegu,
barkatu zaiguzu, jauna.

14/ Kaso geiegi egin gaberik
lau gazte oien bromari,
nere aldetik esan nai diot
itz bi Grazian jaunari:
biok biotzez eska zaiogun
Arantzazuko Amari,
bide onetik jarraitutzeko
argia deigula danari.

BASERRIKO BIZITZA

Grazianoren iritziz, udazkena da sasoirik atsegiñena baserrian. Beste irurak ez dira gozoak. Baserrira ezkondu nai duenak, andrea artu beza udazkenean. Bestela, udaberrian ekartzen badu, iges egingo dio...

Baserriko bizitzaren ispillu eder bat utzi digu Grazianok bertso auetan. Arantzazuko errebistan agertu ziran. Ikus "Aránzazu" XXXIV (1954), 4.

1/ Garai atsegiñena
noiz dan baserrian,
bizimodu onena
uda atzenian,
udako ondasunak
biltzen diranian,
lo egiteko gaba
luzatzen danian.

2/ Sagar bigunak janaz
artoak zuritzen,
zarrak ipuiak esan
gazteak aditzen,
baita asmakariak
eta igarritzen;
orra neska-mutillak
zein pozik dabilten!

3/ Gaztain erreak jaten
danbolin soñuan,
txerri-mortzil goxoak
gabon inguruan;
gazteak jolasen da
zarrak su-ondoan,
bizimodu oberik
ez dago munduan.

4/ Gero datozenean
elur ta izotza,
aik ustutzen digute
ganbara ta poltsa;
urdallak arin eta
bizkarretik otza,
andik aurrerakoa
ezta izaten motza.

5/ Iritxi ordurako
neguan erdira,
bizigarri guziak
urritutzen dira;
poltsak ariñak eta
kalera begira,
petriñak (1) estutuaz
andi udaberrira.

(1) *Petriñak* = gerrikoak (cinturones). Arantzazu
aldean esaten da.

6/ Lurrak aztertu bear
ereñaz aziak,
ongarritu soloak
ta zelai guziak;
jatordu motzak baña
lan ordu luziak,
neguak eramanda
lengo irabaziak.

7/ Gero itxumustuan
udako garaian,
kaletarrak soseguz
jostaketan jaian;
gu beti bearrean
solo ta zelaian,
urrengo negurako
zerbait bildu naian.

8/ Jaungoikoak ez badu
laguntzen goitikan,
etzaigu baliatzen
neke laurdenikan;
bildurtzen ez danean
bizigarririkan,
uda atzenerako
ez dago pozikan.

9/ Ezkondu nai baluke
iñork baserrian,
andrea artu beza
uda atzenean;
ekartzen baldin badu
udaberri aldian,
iges egingo dio
gosetzen danian.

10/ Orra garbiro esan
gure bizi-bidia,
gañerako guziak
gure etsai dira,
gure inbidiatan
kalean badira,
al dan onena iges
egin baserrira.

GRAZIANOK BASARRI JAUNARI

Asto-mantaen bertsoak Grazianok atera zituenean, Basarri jauna izan zan erantzun ziotenetatik bat. Erantzun orri erantzutera dator berriz ere Gesaltzako aitona. Gaur baserriko gazteak geiegizko lasaitasunean oituak daudela dio, eta ortik kaltea eta galera datorkiela guraso zaarrei.

Ikus "Aránzazu" XXXIV (1954), 217-219.

- 1/ Ikusi danok Basarri jauna
aitona zarrari aurka,
egiak esan ditudalako
gizon biurritzat nauka,
gezurra dio ni nagoala
orain indar berrituta,
nere ordaña dijoakio
berak irabazi du-ta.

- 2/ Aurrak txikitan samur oi dira
bai jantzi ta bai mantendu,
neska ta mutil egindakoan
nai ainbat ezin zuzendu,
munduan nola xamur igaro
bizkorrak asmatutzen du,
umeak nausi ez jarritzeko
berandu xamar ezkondu.

3/ Nik ez det esan gabardinadun
danak alperrak dirala,
brusa beltzari moskorkeria
zuk bota diozun bezela,
esan dedana baserritarrok
jator jantzi gaitezela,
gure bizitza aldapa bera
amilduko da bestela.

4/ Gurasoaren eginbearra
Jaungoikoaren legea,
al dan guzia zapaldutzea
gazteen arrokeria,
arro xamarra nola datorren
gaur mundura gaztedia,
goruntza aize eman ezkerok
laister apalduko dia.

5/ Zuk diozunez egon ezkerok
etxeko poltsak betiak,
ez larritzeko zoritxarrean
ikusiarren bestiak,
baña anaiak nola geraden
Adangandiko guztiak,
irabazia ekarriko du
bide ona erakustiak.

6/ Iru-lau seme jartzen bazaitzu
amasei urtez gorontza,
erakutsiko dizute zer dan
soldata gabe morrontza,
aita naigabez ikusiarren
ustuko dizute poltsa,
orduantxe bai ikusiko da
nork artzen duan zipotza.

7/ Baita iristen baldin bazera
gero aitona izatera,
amar illoba nere moduan
bildurik eskaratzera,
emallerikan iñor ez eta
danak zerbait eskatzera,
juizioan bai sartuko zera
txoroa izan bazera.

8/ Gaztedi jator benetakoa
eman oi du baserriak,
brusa urdiña bizkarrean da
matralla txuri-gorriak,
auzoan egin jai-eguneko
dantza ta jolas garbiak,
oiek dirade noranairako
landare maitagarriak.

- 9/ Jakiña dago zer dakazkien
gañeko apainduriak,
jai egunian erakutsiaz
pekaturako bidiak,
astomantia bizkarrean da
ibillera galgarriak,
ze ondorena izango duan
orrelako gaztediak.
- 10/ Baserritako gazterik asko
kalez-kale jai gauerdin,
etxerakoan burua astun
baña patrikadak arin,
kaletar askok atzetik parre
aurretik ondo itzegin,
urrengo jaian poltsa beteta
berriro etorri dedin.
- 11/ Gure gaztetan anjelusetan
egiten zan erretira,
gaurko txoroak ordu orretan
dijoaz txurrutegira,
aita ta ama egonagatik
noiz etorriko begira,
aiek etxera biurtzerako
olloak jaikitzen dira.

12/ Ustez jakintsu diraden askok
ez dute ondo ikusten,
guraso askok ze naigabeak
jaian izaten dituzten,
obe litzake saiatutzea
gazteai erakusten,
gurasoakin daukaten zorra
nola ordainduko duten.

13/ Jai bazkaritan ez gera asi
esan genduan bezela,
guk nai deguna ondorengoak
ongi izan ditezela,
zuk esan dezu nere lekuan
lenago asiko ziñala,
orra garbiro adierazi
gorputz maitale zerala.

14/ Begira danok gazte batzuek
aitona zarra zapaltzen,
Basarri jauna maixu artuta
nola etorri ziraten,
itxusikeri aundientxuak
orain ez noa esaten,
zirikatutzen banaute berriz
esangoitut beste baten.

BIZI DEDILLA EUSKERA!

1955-ko Maiatzaren 29-an Euskaltzaindiko jaun argiek Arantzazun egin zuten beren illeroko batzarra. Bazkal ondoan Grazianok bertso aukeratuak zuzendu zituzten, berberak egun artarako propio aterak. Gero Arantzazuko errebistan argitaratu ziran. Ikus "Arantzazu" XXXV (1955), 216.

1/ Zorion agur bat guzientzako
Arantzazuko lurrian,
bazkariak on egin deigula
bakoitzai bere neurrian;
zirikatuta jarri naute ni
zerbait esan biarrian;
ezjakin batek nola itzegin
jakintsu askoren aurrrian?

2/ Ez dakit nola adierazi
nere biotzan minbera,
ikusirikan gure izkuntza
amilka aldapa bera;
erderatarrak artu nai dute
gure euskera oinpera,
indarberritu nai ez badegu
seme zintzoak ez gera.

3/ Aitona zarrok ez gera bizi
aspaldi goxo ta legun,
nola ain maite degun euskera
urrituta ikusten degun.
Arantzazuko Andre Maria,
Zuk egin zaiguzu lagun!
Oin azpirañõ sartu bañõ len
buruz gain altxa dezagun.

4/ Esnatu danok jaiõ geranok
ama euskaldunakgandik,
zeruko Aita maita dezagun
gauza guzien gañetik;
arren urrena gure euskera
biotzen barren-barrendik,
etsai guzien eskuetatik
askatu gentzake oraindik.

5/ Txiki giñala norbere amak
zintzo ta maite azita,
beren bularra goxo emanaz
euskeraz erakutsita,
orain erdera maite badegu
au bazterrera utzita,
Euskalerria galdua dala
egon giñezke etsita.

- 6/ Gure lurra ere miñaren puruz
 dago dardaraz asita,
 erderatarrak bere gañean
 kukurrukuka ikusita;
 bere txokoan jaio geranoi
 gau t'egun daukagu deika,
 euskal semien izenik ere
 ez degula merezita.
- 7/ Lur euskaldun au negarrez dago
 malko miñak dariola,
 ikusirikan gure euskera
 peril (1) txarretan dagola;
 esaten digu zertako eman
 zigun zañetako odola,
 zintzo ta garbi ez gordetzeko
 geu jaio giñan kaiola.
- 8/ Euskalerriko neska guziai
 nai diet adierazi,
 erdaldunakin ezkonduzea
 ezin leike galerazi;
 baño jatorritiko izkuntza
 galtzen ez dezatela utzi,
 beren senar eta umiei
 euskeraz ondo erakutsi.

(1) "*Peril, perilla* da pelligrua. Emen ezta esaten itz ori. Emen esaten da pelligrua, baiña perilla da euskeraz". —Nola ikasi dezu ba zuk itz ori, emen esaten ezpada? —"Kiputz-aldeko jendeari entzunda" (Graziano).

9/ Erderatarrai esango diet
agoa bete-betea,
guziak maite ditugula guk
egizko borondatean;
baño ez artu guri gorroto
bizi gaitezen pakean,
geu jaio geran txoko onetan
goitikan deitu artean.

10/ Euskaldun batek beste izkerak
azkar oi ditu ikasi,
norberak gogo artu ezker
bear du denbora gutxi;
baña euskera erdaldunari
iñork ezin erakutsi,
beragatikan ezin gaituzte
begi onakin ikusi.

11/ Nere bertsoak atera dira
biurri edo itxusi,
baña biotzak bere gogoa
orra garbi erakutsi;
gure euskera ilko dutenik
gazteok iñoiz ez etsi,
alegifiakin saiatu gabe
seme zintzuok ez utzi.

12/ Aditzalleok aspertu dira
orain noa bukatzera,
iflori miñik eman badiot
barkapena eskatzera;
oraintxe bizkor saia gaitezen
seme zintzoen antzera,
zutik jaikita deadar bana:
Bizi dedilla euskera!

GURE IZKETAREN ALDE

1956-ko urtean, jubileoko urtea izan genuen Arantzazun, eliza berriaren bukaera ospatzeko. Urte artako jaialdi eta pesta ospetsuen artean, Euskaltzaleen Biltzar zoragarri bat ere egin zan, Euskaltzaindiak eratua. Agorraren 14-an asi eta 16-an bukatu zan batzar ori. Makiña bat itzaldi, estudio sakon eta jardun egin zan egun oietan euskerrari buruz. Gesaltzako Grazianok egin zuen agertu bat batzarrera eta bertso batzuk kantatu ere bai: Ikus "Euskera" Euskaltzaindiko agerkaria, 1956, 232-233.

Batzar artako kezkak gaitzat arturik, bertso auek atera zituen gero Arantzazuko errebistan. Ikus "Aránzazu" XXXV (1956). 283.

I/ Agorrillaren amabostean
jubilioko urte ortan,
euskaldun jator eginda asko
emen Arantzazun bertan,
otoitz egiñaz lagun deigula
gure euskera goraketan,
Birjiña Amari utzi diogu
gai au bere eskuetan.

2/ Euskaltzale jaun arduratsuak
batzar orren buruzagi,
egun oietan eman digute
erakutsi onak ugari,
nere biotza jarri didate
pozaren pozez igari,
urte askotan izandu bitez
gai ortan danon gidari.

3/ Zenbat naigabe igaro dedan
nere gaztetati onera,
gure izketa beti urritzen
ugaritutzen erdera
arrotzak bizkor ibilli dira
baña gu lo egon gera,
amaika bider esana nago
seme zintzoak ez gera.

4/ Jakintsu askok erdera ori
artu zuten bai modako,
gure euskera lotsagarritzat
ustez zala berentzako,
emakumeak beti bizkorrak
modak arrapatutzeko,
beren buruak jarri dituzte
jakintsu oien antzeko.

5/ Jakiña dago zertan dijoan
emakumeen denbora,
orain artean bezela beti
aurrera ere izango da,
gure euskera jarriko balitz
gonadun oientzat moda,
len bera bota badute ere
aguro litzake gora.

6/ Aspaldi ontan kanpoko asko
amilka datoz onuntza,
bizitokiak zuzendutzero
guri egiteko bultza,
euskaldun danok egin ezian
maitasunezko gorputza,
denboriakin izango gera
gu oien aurrean utsa.

7/ Jakintsu danak bear lukete
euskeraz egiten asi,
len dakitenak erakutsi ta
ez dakitenak ikasi,
euskaldun danok biribillatu
len galdua irabazi,
orduantxe bai izango gera
gure errien nagusi.

- 8/ Eta azkenik aditu danok
nai diet adierazi,
kanpo errira goazeneko
erderaz danok ikasi,
geure txokoan euskeraz egin
danok orretara esi
erdera ori ibilli dedin
euskeriaren igesi.
- 9/ Kristau guziak maitatu zugun
gure Birjiña Maria,
ta baita ere bera zaindutzen
dagon komunidadia
Guardian jaun ta Bikario ta
gañerako talderia,
erromesari zintzo egiñaz
beren ongi etorria.
- 10/ Erromes danak ezin kabitu
lengo eliza zarrean,
Prailleak nola agertu diran
berria egin bearrean,
otoitz lekua jarri digute
geure naiera ederrean,
Andre Maria agurtutzeko
auspeztuta bere aurrean.

11/ Dioten moduz gastatu zaie
bildu zuten diru dana,
oraindik ere bukatutzeko
asita daukaten lana,
euskaldun danak erakutsiaz
geure borondate ona,
berriro eman bear diegu
beste eskupeko bana.

12/ Euskera ederrez eman biarrez
Birjiña-Amari atsegin,
erdera-zale gu ikusita
dio artzen duela min
bere esana zintzo betetzen
danok saiatu alegin,
guzion Ama errukitsu au
aserre jarri ez dedin.

OTSAIL GOGORRA

1956-ko otsaillean egundoko otz ikaragarriak egin zituen. Makiña bat piñu galdu zan Gipuzkoako mendietan. Otsail artako goraberak gogoratzen dira bertso auetan.

Arantzazuko errebistan agertu ziran.
“Aránzazu” XXXVII (1957), 54.

1/ Jesukristo munduan
ibilli zanetik,
milla bederatzireun
urte ziranetik
aldiko bat kontatzen
bizi gera beti,
berrogei ta amasei
ditugu gañetik.

2/ Nola etorri zaigun
aurtengo urtia?
Epela ta gozoa
ilbeltza guztia,
beste bera lako bat
gaitz da ikustia;
gero etorri zaigu
istillu tristia.

3/ Gorriak erakutsi
digu Otsaillak,
utsik egon dirade
askoren urdaillak,
ezin ibilli trenak
eta automobillak,
otzak eta goseak
asko dira illak.

4/ Elurrez da izotzez
bideak itxita,
erritikan errira
ezin ibillita,
bizigarririk ezin
iñola iritxita,
galduak geradela
egon gera etsita.

5/ Aiton-amona zarrok
gaitu kastigatu,
jantzigarri guziak
gorputzari lotu,
ala ta ere ezin
iñola berotu,
ez dakit nola geran
bizirik geratu.

6/ Bi gaitz gogorak dira
otza ta gosia,
askok orla igaro
Otsailla guzia,
ala utzi dizkigu
ozta-ozta bizia,
lepoa meia eta
sudurra luzia.

7/ Ardi gaixoak preso
egon illabete,
arkumak azitzeko
almenik ez dute.
Agur, Otsailla, zuri
urrengo urterarte!
Aurten egin diguzu
makiña bat kalte.

8/ Pozik eldu gerade
San Josen illera,
aize epela dakar
gozo goitik bera,
Otsaillak utzitako
elurra kentzera.
Zu, Martxoa, obeto
portatuko al zera?

9/ Elurtoki aundia
beti Arantzazu,
prailleak Birjiñari
zintzo erregutu,
alperrik Otsaillak
petriñak estutu,
Arantzazuko Amak
danok gorde gaitu.

GESALTZAKO BASERRIAK BERREUN URTE

Gesaltza, toki-izen famatua da Arantzazuko kondairan. Bertatik pasatzen baitzan Arantzazuko kaltzada zaharra. Antziña ermita bat eta benta bat zeuden bertan. Gero baserri bat egin zan, gero bi, eta azkenean iru. 1957 gnean. bete ziran berreun urte bigarren baserri ori egin zan ezkeroztik. Gesaltzako gorabera oiek danak kontatzen dizkigu emen Grazianok, Aita Jose Ignacio Lasaren aotik ikasita. Ikus Aita onek "Aránzazu"-n idatzi zuena: "El bicentenario del caserío Guesalza de Aránzazu", 1957, 233-236. Eta luzeago "Anuario de Eusko Folklore"-n, XVI (1956).

Bertso auek Arantzazuko errebistan agertu ziran. "Aránzazu" XXXVII (1957), 231-232.

- 1/ Arantzazuko Gesaltza da au,
gu ementxe bizi gera,
orain berreun da larogeita sei
urte diraneti onera;
Zumalde-tarren apellidua
etengabe dator bera,
jarraituzeko bidea ere
libre daukate aurrera.

- 2/ Garai artako onen izena
zala Gesaltzako Benta,
Arantzazuko kaltzada-senda
emendik zegoan-eta;
Andre Marian erromesakin
egoten zala beteta,
orain berreun urte dirala
ondata zala erreta.
- 3/ San Martiñekin ermita zegon
alboko muño gañian (1),
deseginduta gelditu zala
Benta kiskaldu zanian,
gero baratza jarrita dago
Benta ori zan tokian,
gure etxe au zutitu zuten
beraren aldamenian.
- 4/ Garai aietan au guzia zan
Santa Anako monjaena (2),
Zumalde eta Igartuari
eman zien erdi bana,
ala bi maizter jarri zituzten
lenagotikan bat zana,
Igartua zan gure etxeko
nere aitonan biraitona.

(1) Izan ere San Martiñen ermita bat zegoan an-txiña etxe-osteko muiño-gaiñean. Gesaltzakoak *eltzal-de* deitzen diote oraindik toki orri.

(2) *Santa Anako monjak*: Oñatiko monja-komen-tua. Monja auenak ziran antziña Gesaltzako baserri eta lurak.

5/ Errenta lareun bana errial,
amarna anega gari,
arroa bana gaztaia eta
biña kapoi ta biña ari,
imiñak bete intxaurrak eta
zenbait ezti ta argizari,
urtero karoia erre bear
botatzeko soluari.

6/ Igartuaren alabarekin
Anduaga zan ezkondu,
geroztik gure apelliduak
etengabe irauten du,
berreun urtetan gu zortzi belaun
ementxe gera mantendu,
biarra zintzo egin ezkeru
lurrak ondo ematen du.

7/ Zumalde-tatik zortzi il ziran
gureak bost dira joanak,
opa diegu goi-zeruetan
sekulako zorionak,
aiek bat eta gu iru gera
oraindik bizi geranak,
nik Grazianok utziko ditut
aurki mundu ontako lanak.

8/ Oiek baserri onak ziraden
bi bakarrik ziranian,
Anduaga ta Zumalde biak
erosi zituztenian,
Zumalde-rena osorik dago
lenagotik zan neurrian,
baña gure puskatu zuten
guzizko modu txarrian.

9/ Gure aitonak egin ziguten
beren etxea iru zati,
nere aitari eman zioten
latzena iruretati,
aurreko zorrak pagatu bear
artzekorik ez atzeti,
aien akatsak ezin berdinduz
andik oneraño beti.

10/ Jakiña dago garai aietan
baserri lasaia zana,
iru zatitan iru famili
aspaldi bizi gerana,
danok ditugu nor bereaz gain
errentako soro bana,
toki estuan lasai bizitzen
badago naikoa lana.

- 11/ Batekin iru egin ezkeru
seguru dira mirriñak,
ontzat artuta bizi gerade
gure aitonak egiñak,
lasaitasunik ez dan lekuan
egiñarren alegiñak,
bizimodua ateratzeko
estutu bear petriñak.
- 12/ Zintzoak izan dira ta dira
emengo belaun guztiak,
apellidua galdu gaberik
batzuek eta bestiak,
baliorik aundiena du
zerua irabaztiak,
nik aurki agur egingo diet:
Zintzo jarraitu, gaztiak!
- 13/ Aita Lasa jakintsuak digu
gai au dana argitaratu,
antziñatiko liburu zarrak
bai-ditu berak billatu,
len ezjakiñak giñanok ere
danok jakindun geratu,
Jaun onek digun maitasun ori
guk sekula ezin pagatu.

ARROKERIA

Geure utsak ikusi gabe, besteri neurriak artzen ibiltzea: itsuskeria ori arrokeritik dator, noski. Arrokeriaren aize okerra Luziferrek sartu zion gizonari buruan, eta ala dabil mundua ain nahastua.

Arantzazuko errebistan agertu ziran bertso auk. Ikus "Arantzazu" XXXVIII (1958), 154.

1/ Zozuak esan zion beleari:
"Ipurdia daukak beltza".
Erantzun zion: "Esan didazu
ausnartu gabeko itza;
utsa litzake zure ipurdia
txuriagoa balitza.
Bere burua ezagutzea,
orren al da gauza gaitza?
Buru ariña duten guztiak
zure antzera dabilta".

2/ Au aditzean zozo leloak
egin zuana lenbizi,
bere ipurdien koloreari
begiratutzen zan asi.

**Beleak baño ainbat beltzago
berea zuan ikusi.**

**Nola izketan ala ipurdiz
arkitzen zan ain itxusi,
sasi batean ezkutatu zan
beleagandik igesi.**

**3/ Amaika txoro juten gerade
zozo leluen antzera,
geure utsunak ikusi gabe
besteri neurrik artzera,
beti aurrera begiratuaz
iñon faltak billatzera
nola gabiltzan begiratutzen
ez degulako atzera,
arrokeriak irixten gaitu
geure on-bidea galtzera.**

**4/ Mutil arrobat leio batean
zefon alkandora utsik.
Bere lagun bat antxe zijoan
pasatzen etxe-aurretik.
Dei egin zion: "Pare bat fraka
ekar zadak eure etxetik,
begiratu zak nola nagoan
jazteko fraka gaberik,
kalera ezin aterako nauk
nagoanetan emendik"..**

5/ Erantzun zion: "Iretzat nola
frakak nai dek ekarri nik,
soiñeko oiek kendu ezian
etzaukiak nik besterik.
Nere etxian egon ezkerro,
ekarriko nitek pozik,
mesede ori ezin egifia
ezagutu bear dek ik.
Ezin duanik ez dik egiten
iñork nai izanagatik".

6/ Mutil arroak esaten dio
barre egiñaz leiotik:
"Bero ago ez euki ezian
pare bat fraka besterik".
Arrokerizko oitura txarrak
bere zentzuna nasturik
lagun bateri mesede eske
nola zegoan aazturik,
frakadunari burla egin nai
alkandoriaz bakarrik.

7/ Geure utsunak ondo billatzen
bear genduke ikesi,
bestieri gaizki esan baiño len
norbere mingaiñak esi.
Iñori tatzak billatze orrek
beti ematen du itxusi.

Arrokeriak zer ondorena
ekartzen duan ikusi.
Zozo leluen gisara gero
juan nai ezbadazu igesi.

- 8/ Arrokeriak eraman zuan
Luzifer ere inpernura.
Mundu guztia arek darabil
bera ibilli zan modura.
Arrokerien aize okerra
sartutzen digu burura.
Galdu baiño len artu ezian
bakoitzak bere ardura,
umiltasunik ez daukagunok
ez gera jungo zerura.

ARETXABALETAKO AITONA BATI

Bere apaiz-lanak Aretxabaleta-aldeetik egiten zebillela praille bat, saritxo bat artu zuen aitona ezezagun batengandik Grazianorentzat, bere bertsoengatik eskerrak emanetz. Aitona orri bere eskerrona agertzeagatik atera zituen Grazianok bertso aukeratuak. Gure denpora onek egin duen jira, lengo gazteen zintzotasuna, oraingoan ajolakabea ta abar aipatzen ditu: ots, biotzean eta bai mingaiñean ere Grazianok sarritan darabilzkin kezkek.

Arantzazuko errebistan agertu ziran.
"Aránzazu" XXXVIII (1958), 196.

1/ Aretxabaletako
aitona bateri
biotzez opa diot
zorionak ugari.
Sari eder bat berak
bialdu dit neri.
Noraño nai diogun
bata bestiari,
gure maitetasuna
ara emen agiri.

2/ Aita Agirre (1) egon da
an mixiolari.
Erakutsi ederrak
eman die ugari.
Aitonak eman dio
sari bat berari,
bere ordez esanaz
emateko neri,
bertso onak jartzeko
Ama Birjiñari.

3/ Aurten Arantzazura
etortzen bazera,
aurrez neri deituta
elkartuko gera,
kontu zarrak esanaz
kristauen legera,
otoitz beroa egiñaz
Birjiñaren aurrera.
Gure laguntzallee
izango da bera.

4/ Gaurko bizi moduari
gaude gu begira,
gure denpora onek
egin duan jira.
Gazte danok oituraz
aberatsak dira.

(1) Aita German Agirre, Azpeitiako semea. Urte artako aste santuan Aretxabaleta-aldeetik ibilli zan bere apaiz-lanetan.

Aldatu gera noski
bizitza berrira,
San Martin ezpadator
gero Euskalerrira.

5/ Umiak txikitatik
lasai-lasai azi
aundi egindakoan
gero ezin zuzen ezi.
Gurasoen aurretik
eurak nai nagusi.
Naieran ibiltzeko
ezin irabazi.
Modu orretan ezin
iñun ondo bizi.

6/ Gu txikitatik gaude
ain zintzo azita,
artoa jan da oiñutsik
arrote jantzita.
Dirua ondo gorde,
gutxi irabazita,
beti gerokoentzat
al dana utzita.
Ala ere eskerronik
ez degu iritxita.

7/ Naigabeak zapaltzen
guk egin alegin,
zarzaroko trangua
ondo igaro dedin,
egunero esanaz
pazientziakin:

Jesus, Jose, Maria,
Ana eta Joakin,
eriotzako orduan
atozte gurekin.

8/ Agur, nere laguna,
nai dezun artian.
Deitu Arantzazura
zeu zatozenian.
Jaungoikoak nai badu
bere izenian,
an bilduko gerade
Birjiñaren aurrian,
alkar besarkatuaz
maitetasunian.

PERNANDO AMEZKETARRA

Milla istorio ta pasaizo jostagarri kontatzen dira Pernandori buruz. Bein gau berandu an etxera edana zetorrelako, emazteak ez zion atea idiki nai; baiña maltzurak ala-koak ederki engañatu zuen andrea. Erakutsi bat atera nai du Grazianok istorio onetatik edanda datozen gizonen emazteentzat: une ortan andrearen zakarkeriak eta itz txar-rrak ez dutela gauza onik ekartzen.

Arantzazuko errebistan agertu ziran bertso auek. Ikus "Arantzazu" XLI (1961), 319.

1/ Amezketako Pernando zana
bere bizitza guztian
tabernatikan etxeratzen zan
sarri gauerdi ostian.

Andreak esan zion leiotik
ala eldu zan batian:

—Ez noa atea idikitsera,
iñor ezta falta etxian.

2/ Pernadok bizi erantzun zion:

—Beti izan zaitut maite:
ni mundutikan bialdutzia
ezpada zuretzat kalte,
umeak zure kontu dira ta,
ongi ongi bizi zaite:
pozura salto eitera nua,
agur, Josafatera arte.

3/ Pozu aundi bat nola zegoan
bere etxian aurrian,
orma gaiñetik arri aundi bat
artu zuan bizkarrian,
baita pozura tiratu ere
berebiziko indarrian;
etxe osterera bera gorde zan
illargien itzalian.

4/ Plastada ura aditutzian
andre ori larritu zan.
Leiotik larri begiratuta
pozu guztia balantzan,
inguru danak begiratuta
Pernando agiri etzan.
Itsumustuan kamisutsian
ataritikan irten zan.

5/ Pozu onduan kamisutsian
ikusirik emazia,
Pernando orrek parre egiñaz dio:
—Ara emen nere trastia:
asko poztu naiz modu orretan
zu ementxe ikustia.
Salto batian bera sartu ta
itxi egin zion atia.

6/ Andreak larri deitzen dio:
—Ai nere senar maitia,
txantxan izan da, ez artu gaizki
gaur nik ori egitia.
Ni emen otzak il bear nau ta,
idiki zazu atia.

7/ Baiña Pernandok parre egiñaz,
leiotik dio esaten:
—Jaungoikoaren legien kontra
zu asi zera jokutzen,
alperrik zatoz orain onera
barkazioa eskatzen,
penitentzia kunplitu gabe
pekatua ezta barkatzen.

8/ Baiña andreak garrasiz dio:
—Arrizkoa ezpazera,
atoz aguro salto batian
ataria zabaltzera.
Oraintxe bizkor ezbazabiltza,
ni emen noa iltzera.
Pentsatu ondo zer datorkizun,
alargun gelditzen zera.

- 9/ Pernandok dio: —Zuk ase dezu
lenbiziko egarria,
baiña ondoren zer zetorkizun
etzeunden ondo igarria,
orain alargun ni gelditzia
ezta gauza mingarria.
Traste zarrakin aspertu naiz ta
billatuko det berria.
- 10/ Ordu erdi bat eduki zuan
ate ondoan negarrez,
an egin zion penitentzia
ondo kunplitu biarrez.
Orduan atea idikita,
ala esan zion parrez:
—Urrengorako gaur baiño obeto
kontuak atera aurrez.
- 11/ Ispillu ontan begira ondo
emazte zeraten danak.
Zuen senarrak datozenian
tabernatikan edanak
gizon zuzenak okertzen ditu
andrian gaizki esanak.
Begira nolakoak diraden
gizon moskorraren lanak.

ERLEAK

Grazianok oso begiko ditu erleak. Zintzoak diralako, langilleak, eta janaririk gozotena egiten dakitelako. Eta gaiñera, alperdanak iltzen dituztelako. Oin biko alperrakin ere ala egingo balitz!

Arantzazuko errebistan agertu ziran. Ikus "Arantzazu" XLII (1962), 155.

1/ Izaki danetatik
erlea da zintzoena,
loratatik jangaia
bildutzen duana:
ezti gozo, janari
danetan onena,
gizon listuak ezin
asmatu dutena.

2/ Erleak ere danak
eztira zintzuak,
batzuek jaiotzen dira
alper ta anbuak (1),
aiek samur jateko
bestek egindakuak;
mundu guztian dira
batzuek orrelakuak.

(1) *Anbuak* = erle alperren izena (zánganos).

- 3/ Langilleak goizean
egunen begira
loratxuak biltzera
juteko mendira,
egun dana laisterka
buelta eta jira:
anbuak ordu artan
lo egoten dira.
- 4/ Langilleak prisaka
gora eta bera
bildu al duten dana
ekartzen etxera,
arratsaldean ere
laisterka atzera;
anbuak orduantxe
pasiatutzera.
- 5/ Erle biargilleak
ezdabiltz eroso,
loratetik jangaia
biltzen da nekoso;
izan bear ginduzke
maite-maite oso,
ematen dutelako
zenbait ezti gozo.

6/ Beste lan bat daukate
uda atzenezan
lora guztiak zimel
jartzen diranean:
erregiñaren aginduz,
aren esanean,
orduan asten dira
ilkintza lanean.

7/ Erregiña bat dute
danairi agintzeko,
langilleak bai zintzo
obedezitzeko;
neguan garbi garbi
lasai bizitzeko,
berak agintzen die
anbuak iltzeko.

8/ Berak autatzen ditu
bear dituanak,
aiekin egiteko
aurrerako lanak;
zintzo betetzen dira
beraren esanak;
esaten die iltzeko
gaiñerako danak.

9/ Anbuak egonarren
oso indartuta,
nai duten dana janda,
gutxi nekatuta,
bik ezin dutenari
iru-lauk elduta,
an botatzen dituzte
bizia kenduta.

10/ Arras iltzen dituzte
anbo eta nagi:
begiratu erleak
duten legeari;
negurako etxea
uzten dute garbi:
au ongi letorkio
mundu guztiari.

ERRUKI KALTEGARRIA

Grazianoren iritziz umeak gaur egunean leunegi azi oi dira. Erruki kaltegarri onek ez dakar gauza onik, eta bai ondore txar asko bizi guzirako. Ez nuke esango arrazoi pixka bat ez duenik.

Bertso auek neronek artu nizekion magne-tofoiz eta andik gero atera ziran Arantzazuko errebistan. Ikus "Arantzazu" XLII (1962), 238.

1/ Gaztetan gozo egiten duana
ardoa edan ta fumatu,
uste baño len egingo da bai
bizi guztiko ondatu,
gorputza oso anportu (1),
eta burua guztiz lokatu.
Mediku eta botikak gero
sekula ezin osatu.

(1) *Anportu, anporra*. "Egurragatik esaten da: ispiritua joaten zaionean, gauza ezтана biurtzen danean" (Graziano).

2/ Amazortzi bat urte artian
bizi bear da mutiko;
osasun ona ak izango du
bere bizitza guztiko.
Gaztetan gaizki oitutakoa,
sekula ezta ondo eziko.
Osasuna bein galdu ezkerro,
gero eztu erosiko.

3/ Mutillak lasai bizi bear du
gorputza azi artian.
Gurasoeri lagun egiñaz,
biarra egin astian.
Jai egunian jolas egin
ta lotan soseguz gabian:
osasun ona ak izango du
larogeiko bat urtian.

4/ Ama sinpliak umientzako
erruki kaltegarria;
mutikotxuak mutil egiten
ain bizimodu larria:
orretatikan sortutzen zaie
beren buruen arria,
bide orretatik etortzen zaie
zarzaro negargarria.

5/ Ama sinplia nola liteke
ainbesteraño kaskaldu!
Jai arratsian mutikotxuak
mutil-artera bialdu,
txurrut egin da gaizki ikasi,
tabernatan gaba galdu...
Pekatu orrek parkaziorik
merezi ere bai al du?

6/ Zeruko Aitak familiako
buru egin zaitu, aita;
ezpadaukazu asieratik
andria ondo ezita,
zure isillik gero semiak
gaizki badaukazu azita,
ezta zuretzat zorionikan,
eztezu irabazi ta.

7/ Emazte onak bere senarra
beti biar du maitatu,
bere esanak zintzo egin,
ta beti zintzo obeditu.
Aiten isillik bere semiak
oker azitzen baditu,
mundu ontako irabaziak
bestek kobrauko ditu.

MOSKORRA

Ardoa da gizonaren galgarria, Graziano-
ren iritzian. Gaiñera, Euskalerriko ardoak
zer dira? Ura eta autsa, besterik ez.

Bederatzi puntuko bertso auek magneto-
foiz artu eta gero Arantzazuko errebistan
azaldu ziran. Ikus "Aránzazu" XLII (1962),
274.

I Moskorra da gauzarik
lotsagarriena,
negargarria da bai
bere izena.
Norberak soiferatu
etsairik txarrena,
beretzako galmena
arras dakarrena,
danak dakienna,
geiegi edana
kaltegarri dana,
alperra da esana,
galtzen ditu bera
ta bere ondorena.

2/ Maatsen arduak al du
moskorrik ematen?
Alako asko emen
ez da edaten.
Euskalerriko arduak
zer dira izaten?
Ura ta autsa sartu
ontzi aundi baten
Diranian asten
koloria artzen,
nunai jarri saltzen;
danak zurrupatzen.
Askoren osasunak
ak ditu galtzen.

LATZ AZITAKOAREN BENTAJAK

Leunkerizko azierak ez dakar atzen onik. Latz azia izan dana, berriz, beti izango da gero estimatua.

Magnetofoniz Grazianori artutako bertsoak, eta gero Arantzazuko errebistan agertuak. Ikus "Arantzazu" XLII (1962), 275.

1/ Mutilla azitzen bada
gaztetatik legun,
ala bizi naiko du
gero ere gau t'egun.
Latzera eldutakoan
izango da ezagun:
zeiñek izan naiko du
gero aren lagun?
Gorputza alper eta
kopetie illun,
arentzat leku onik
ezta izango iñun.

2/ Latz eta zintzo-zintzo
gaztetan aziak,
ontzat artuko ditu
neke ta gosiak.
Almen aundia dauka
gorputz ondo eziak.
Zintzo zainduko ditu
bere irabaziak,
maite izango dute
beti nagusiak:
arentzat leku onak
dirade guziak.

NESKAZAR BATEN ZOTIÑAK

“Neskatxak, ez fiatu mutillen itzetan”.
Ala dio jakintza au bere kaltetan ikasi zuen
batek.

Bertso au ere magnetofoniz Grazianori artu
eta gero Arantzazuko errebistan agertu zan.
Ikus “Arantzazu” XLII (1962), 275.

Eperrak kantatzen du
goizeko intzetan:
“Neskatxak, ez fiatu
mutillen itzetan”.
Ni fiatu nintzan
ta damu det benetan.
Pozik ibiltzen nintzan
txorakerietan:
neskazar utzi naute
berrogei urtetan.

GERTU EGON

Gazteak eriotza urruti ikusten dute. Ala ere batzuetan ba daki bizkor etortzen. Bai zaharrak eta bai gazteak, danak degu gertu egon bearra.

Magnetofonoz artu eta Arantzazuko errebitsan agertutako bertsoak. Ikus "Aránzazu" XLII (1962), 309.

1/ Zarrok ikusten degu
eriotza urrian,
argatik gaude beti
bere bildurrian.
Egunaz otoitzian
baita ere gabian,
gertu-gertu egoteko
etortzen danian.
Maite artuko degu
borondate onian,
zerura igotzeko
zuzen-zuzenian.

2/ Gazteak ikusten dute
eriotza urruti,
orregatik ez dira
izaten bildurti.
Bitartian bidea
luze egonagatik,
bizkor ere etortzen
batzutan badaki.
Ezin igesik egin
nai izanagatik:
obe lukete gertu
egotia beti.

ZERU-BIDEA

Zeruko bidea latza da. Ara joateko, penitentzia egin bearra dago. Inpernuko bidea, berriz, lasaia, tabernaz betea.

Magnetofoniz artua eta gero Arantzazuko errebistan azaldua. Ikus "Arantzazu" XLII (1962), 309.

- 1/ Zeru-bidea estua da
ta damian aldapa dago,
penitentzia egin gaberik
aura ezin leike igaro,
lurgain onetako atsegifietan
ajolagabe badago,
eriotzako ordu estua
latza izango da gero.

- 2/ Inpernurako bide zabala
dana dijua goi-beera,
tabernak ere ugari daude
or sartu ta emen atera.
Amaika txoro txurrut egiñaz
iji-aja!, jera-jera!
juten dirade beren arima
Luziferreri ematera.

1962-KO URTEARI

1962-ko urtea ez zan pozgarria izan baserritarrentzat. Udako legorteak kiskaldu egin zituen baztarrak. Urte artako goraberak kontatzen dira bertso auetan.

Arantzazuko errebistan agertu ziran. Iku
"Aránzazu" XLII (1962), 343-344.

- 1/ Irurogeita biko au degu
urte goguangarria:
asieratik egin ginion
danok ongi etorria,
negu ariña ekarri zigun
elurterikan gabia,
baiña ixillik gordeta zeukan
geroko uda gorria.

- 2/ Txekorrak aisa karutu ziran
zortzi duro erraldeko;
ori pozgarri ona izan zan
gu baserritarrontzako;
uste genduan onbide oiek
zirala urte guzirako,
baiña zigorra gordeta zeukan
ate-ostian geroko.

- 3/ Udaberria etzan bikaiña:
 garaille zan aize otza;
 zorionian beti bezela
 etorri zan Maiatza:
 egunsentiak alaiak ziran,
 txoriak kantu ta dantza,
 naikua belar jan ondorian
 astuak jolas ta arrantza.
- 4/ San Juan illak ekarri zitun
 biar zituan euriak;
 oso mardulak azi ziraden
 belarrak eta gariak.
 Belar ontzeko egun ederrak
 etziran ain ugariak;
 zintzotasun ta saiamenakin
 garbitu ziran zelaiak.
- 5/ Gari-illian eguzki ori
 asi zan gogor berotzen,
 gariak ere goiz eldu ziran,
 ale ona eman zuten;
 laiñuak arin etortzen ziran,
 urik ekartzen etzuten.
 "Galduak gaituk, mutillak, aurtan":
 besterik etzan entzuten.

6/ Gero aguztuan bero ligorrak
ainbesteraño indartu,
berde ta eder zegon kanpua
erabat zuten igartu,
ganaduentzat janari onik
iñundikan ezin sortu,
iturri eta errekek ere
erabat ziran agortu.

7/ Agorri onek aguztuari
bere erara jarraitu,
arto ta baba ta beste gaiak
alerik gabe kiskurtu,
belar onduak ganadueiri
emateraño biartu:
bi il oriek egin digute
udia negu biurtu.

8/ Belar onduak jaten dijuaz,
arbi onik ezin ikusi,
Kastillatik ta Naparruatik
lastua biar erosi;
len artutako txekor-diruak
geiagokin jun igesi;
orain gosiak dauzkagun txalak
gero ezin onak azi.

9/ Ikusiko da zer datorkigun
gabonetaraiñokuan;
bere izena jarriko degu
gero ikusitakuan;
entrega ona egingo al dio
urteberriari eskuan!
Errukituta zaintu gaitzala
ondo datorren neguan!

10/ Arantzazuko Andre Maria
gure Zaindari maitiak
esaten digu ondo zaintzeko
gure euskera garbia.
Emen jarri dan mudantza dala
beretzako mingarria,
naigabez dago ikusirikan
erdeldun Euskalerria.

11/ Emakumiak dutela dio
erdera modako artu.
Gure euskera maitagarria
nai ote dute baztertu?
Moda okerrak arrapatutzen
oiek ezin dira aspertu.
Ama Birjiñak bai ote gaitu
orregatikan zigortu?

12/ Gure artian oitura txarrak
nola diraden ugaldu,
Ama Birjiñak berak nai badu
gu zigortutzia, al du.
Erderaz egin nai badegu ta
gure euskera ona galdu,
Erdalerriko denporalia,
Euskalerrira bialdu.

OKUMARDIN-GO NAGUSIARI EUN URTE BETETZEAN

Okumardin, izen famatua da Oñatin. XII gn. gizaldiko dokumentu batean agiri dan izena. (Ikus L. Zabaleta, "Oñate en los albores de su Historia", "Oñate" deritzaion errebistan, 1950 urtean; eta I. Zumalde, "Historia de Oñate", 1957). Antziña Oñatiko auzo baten izena zan Okumardin. Orain, herriz, auzoari Garagaltza deritzaio; eta Okumardin, auzoko baserri bakar bati.

Baserri ortako nagusiak 1957 gn. urtean, Santiago egunez, eun urte bete zituen. Ori dala-ta, omenaldi bat egin zion erriak. Grazianok bertso auek jarri ta inprentatu zituen. Baita asko saldu ere egun orretan.

1/ Oñatin dago auzo alai bat
Garagaltza deritzana,
antxen dagoan baserri batek
Okumardin du izena,
etxe orretzek izan bear du
oso bizileku ona,
gaur eun urte beteta dago
angotxe nagusi jauna.

2/ Zorion asko ematen diot
erri guziaz batean,
alkate jauna aurretik dala
guzizko borondatean,
doai onen bat egon bear du
Okumardingo etxean,
nekazaririk ez da lenago
Oñatin bizi eun urtean.

3/ Santiago du bere izena
gaur dauka bere eguna,
izen bereko apostolua
zeruan dauka laguna,
jai ospetsu au eginda gero
danok opa dioguna,
atsegiñezko bizimoduaz
luzaroko osasuna.

4/ Bere etxean egondu nintzan
berakin lengo egunian,
bere bizitza nola izan dan
garbiro iragarri zian,
gaztetatikan nola oitu zan
zintzo ta bizkor lanian,
orren damurik ez duala izan
bere denbora danian.

5/ Amar urtekin morroi ardizain,
amabirekin tellagin,
illean iru duro soldata
amasei ordu lan egin,
baba beltza ta talua janda
ura edan, burua arin,
labe erretzen ardo apur bat
tellia ondo erre zedin (1).

6/ Ze jazkerakin ibiltzen ziran
mutil sasoi ziranean,
eunezko prakak eta jipoia (2)
aste egunetan lanean,
abarkak eta praka azulak
brusa urdiñakin jaiean,
beste trajerik etzala izaten
beintzat ezkondu artean.

7/ Auzoko neskak panderuakin
jai egunetan billera,
txintirrin soñu entzundakoan
mutillak dantza egitera,
dantza alaia garbiro egin
Euskalerriko legera,
eguzkia ondo sartu orduko
danak saltoka etxera.

(1) Labea erretzerakoan edaten omen zuten ardo apur bat; gaiñerakoan ura bakarrik.

(2) *Jipoia* = eunezko txaketia (Graziano).

- 8/ Karlista gerra sortu zanean
 nola zan soldadu joana,
 zintzo ta zuzen betetzen beti
 agintarien esana,
 nagusi danak maitetasuna
 arturikan beregana,
 berak dionez igaro zuan
 guztiz bizimodu ona.
- 9/ Berrogei ta amar uda tellagin
 nola igaro zituan,
 karioia erre ta beste lanetan,
 etxean zintzo neguan,
 lurrak biziro ongarrituta
 labore onak soruan,
 kamara ondo betetzen zala
 Domu Santu inguruan (3).
- 10/ Arantzazuko aitona naiz ni
 Graziano izenakin,
 Santiago ta biok antziña
 giñan adiskide egin,
 pisua jaso ezinda nabil
 ni larogei urterekin,
 ogei geiago baditu baña
 orrek danak jaso arin.

(3) *Domu Santu* = Santu guztien jai.

11/ Aspaldi gure lurralde onek
Euskalerrria ez dirui,
tonto izena jarri digute
guri aitona zarroiri,
oitura onak urritu dira,
moda berriak ugari,
listo usteko asko oi dira
tonto ontzira erori.

12/ Barkatu danok, ez artu gaizki
aitona zar oien itza,
fandangoari goxo jarraitzen
gaur txoro asko dabilta,
gero bueltia datorrenean
sortutzen bada ekaitza,
zaparradatik nora iges egin
orduntxe istillu gaitza.

LENGO OITURA GARBIAK

Lehen, auzoetan ba zan dantza, askatu dantza garbia. Gero, baltziaren aitzakiz, kendu egin zan dantza ori. Jokabide kaltegarria, Grazianoren iritziz.

Gaur arte agertu gabeko bertsoak.

1/ Gure gaztetan baserrietan
jaia eldutzen zanian
dantza garbian jostatzen giñan
auzoko zelai batian;
igarri gabe igarotzen zan
aste guzia lanian,
atanboria (1) tin-tirrin jota
dantza jai arratsaldian.

2/ Neskak billera egiten zuten
mantal urdiñak jantzita
abarka txuri, gona mardulak
oñetaraño estalita;
gerriti gora txanbra-txaketa
lasai ta arin josita,
askatu dantza jolastutzeko
ai zer jazkera polita!

(1) *Atanboria* = panderua (Graziano).

3/ Panderuaren tin-tirrin soñu
gazte danen pozgarria,
mutillak ere batarren beste (2)
nor zan dantzari obia
danen aurrian erakutsiaz
soin arin saltalaria
iñori eskuz ikutu gabe
dantza alai ta garbia.

4/ Neskaxa danak etxera zintzo
eguzkiaren sarreran
ipui kontari, iji ta aja
mutillak ere aien jiran;
dantza tokian ezkon lagunak
nola billatu oi ziran
baserrietan garaiz eztaiak
orduan egiten ziran.

5/ Ez dakit nundi agertu zan
zorigaiztoko baltzia
antxiñakoak deitzen zioten
deabruaren saltsia;
moda zikiña gaztientzako
noiznai norinai eltzia,
orren aitzakiz galerazi da
azusetako dantzia.

(2) *Batarren beste* = zein baiño zein obe (Graziano).

6/ Mendi auzotan gaztientzako
gaur naiko lana badago,
gazte denbora jolastu gabe
nola ezin leiken igaro,
neskatxa danak dantzarik gabe
ernegatu ziara,
mutillak, berriz, txurrut-etxetan
gaba galduta egunaz lo.

7/ Neskak batzuk egun batean
ala esaten ziguten:
oraingo eran ez dakit nora
eraman bear gaituzten,
nobiorikan billatzen ere
orain ez digute uzten;
ikusten danez ez dakitenak
dabitz emen erakusten.

8/ Inguru-maiko auzoetatik
gazte guziak kalera
ortikan dator baserritako
bizi moduen galera;
baltzian egin, poltsia arin
noiz jungo diran etxera.
Uztarri gabe lokarrituta
tirin-taran goiz aldera.

- 9/ Mendi auzotan dantza lotua
oben astuntzat badago,
nunbait kalia lotutze orrek
dauka meritu geiago;
bide guzian askatu gabe
etxera dijuaz gero,
pekaturikan ez dago noski
kalian lotu ezkerro!
- 10/ Baltze soñuak ez al du ematen
asto zar baten arrantza,
ta dantzariak elkar botaka
idi bultzakaien antza,
nora jausiko, nun eroriko
or baimen, emen balantza
lotsagarritzko asto burruka
ori ez da euskal dantza.
- 11/ Aitona zarrai egi mardul au
euskaldun danok aditu,
nunbait kaleko jostatze orek
badauka zenbait meritu;
baserrirako kale festak
alderdi ederrak ditu...
Kale usaiak neskatzak artu
mutilzarrak ugaritu!

12/ Gaurko neskatxen apainduri ta
jazkera ta gona motzak
ezin asmatu nola erakutsi
gorde bear diran gauzak,
txorakeriaz kendutzen die
mutillairi ezkon pozak,
iji ta aja esku askotan
ibillitako larrosak.

13/ Baserri neskak artzen dijoaz
danak kaletarren antza,
mutillak ortik galdutzen die
ezkontzeko konfiantza;
baserrietan berrogeitikan
igarotako ezkontza...
berdin ez ote ximelduarte
kakuan dagon buzkantza?

14/ Baserriko ama alargun batek
negarrez esaten zidan:
gure alabak beti kalera
dijuaz jai illuntzian,
malko samiñez lotara gabe
egoten naiz gau guzian
goiz-alderako etxera datoz
mutil banen besartian.

15/ Semeak berriz berrogei urte
badarama bizkarrian
ezkondutzeko asmorik ez da
ama tatarraz aurrian;
berandu jeiki goizian eta
tabernan lasai gabian,
bide ortatik bizimodurik
ez daukagu baserrian.

16/ Ai zenbat gazte zori gaitzian
soseguz lotan goizian,
gero buruak ondo apainduz
asto-mantak bizkarrian,
aitaren poltsa sakiatuta
kalera illunabarrian...
Zartzaro ona igarotzeko
ez gaude garai txarrian.

17/ Baserritako oitura onak
galtzen dijoaz gogoti
gazterik ezin aldendu leike
ortan pekatu bideti,
dantza lekuak kendu digute
baserri auzoetati
nekazarien diru guziak
kalera biltziagati.

18/ Guraso zarrok negarrez gaude
gaurko gazteoi begira,
zenbat ofiaze sortzen diguten
gure biotzen erdira;
auzoetako dantza lekuak
berriztatzen ez badira,
Euskalerriko baserri danak
kale biurtuko dira.

PELLO MARI TONTUA

Mundu ontan maiz gertatzen dana da au: norbere burua listotzat artu eta lagun urkoari tonto izena jarri. Baiña atzenean ikusten da egia: tonto ustekoak ateratzen dira on eta zintzo probatuak, besteak herriz arrostelak, etxeko galgarriak.

Gaur arte sekula agertu gabeko bertsoak.

1/ Ostiralian jaiuak
dirala tontuak
ala esaten zuten
gure aurrekuak.
Nola ziraden asko
ikusitakuak
sinisgarriak dira
aik esandakuak.

2/ Semetxo bat jaiotzen zan
ostiral goiz baten
tonto eguna zan da
tonto biar irten
beste leluagorik
billatzen etzuten
tonto danen kapitan
bera egin zuten.

- 3/ Mariñazi zeritzan
beraren amari
zortzigarren semia
izan zuan ori
beste danak listuak
tonto bakarra ori
bere izena jarri
zion Pello Mari.
- 4/ Beste zazpi listuak
tontua atzena
alakua zalako
amak zuan pena
bestiengana zeukan
berez itxedopena
tontuori irten zan
danetan onena.
- 5/ Zazpi listo ziranak
danak irabazten
amari etzioten
dirurik ekartzen
berenak gastatuta
amari eskatzen
sekula errukirik
etzioten artzen.
- 6/ Orien antzekua
etzan Pello Mari
bere kintzena danak
osorik amari

jaietako lan danak
egiñaz berari
Mariñazi jarri zan
poz pozez igari.

7/ Zazpi seme listuak
parranda zaliak
bakoitzarentzat gitxi
bere irabaziak
makiñabat kostata
amatxok aziak
danak esker gaiztoko
erruki gabiak.

8/ Ikusiagaitikan
amaren negarrak
berari laguntzeko
ain biotz gogorrek
esana entzuteko
belarriak gorrek
amari diru eske
pagatzeko zorrek.

9/ Pello Mari gaixua
zintzo eta alai
amari lagunduten
beti aste ta jai
bere kintzena zuzen
entregatu ere bai
bestiak alakuak
izatia amak nai.

10/ Pello Mari etzan ba
parrandara joaten
amaren ondorian
beti bera zaintzen
lanak bizkor egiñaz
noiz zion agintzen
bere atsekabiak
zizkion arintzen.

11/ Mariñazi zebillen
esanaz negarrez:
gero zer datorkigun
ez dakigu aurrez
egin banitu seme
danak ostiralez
aberatsagorikan
ni baño iñor ez.

12/ Aurdun zeraten amak
aditu zazute
beste egunen baten
jaio nai badute
obe dezute eutsi
ostiralera arte
bestela beti gaizki
biarko dezute.

LENGO ERROTARIAK

Fiñak eta zintzoak omen ziran lengo errotari zaharrak. Zorroen eroan-ekarriak egiteko, astoa jartzen zizuten. Beti borondate ona erakusten zuten auzuentzako.

Bertso auek 1947'gn. urtean egiñak dira, baiña ez dira gaur arte agertu.

1/ Lengo errotariak
biotz onekuak
bezeruairi zintzo
lagundutzekuak
beren kontura jarri
morroi ta astuak
eraman da ekartzeko
auzoko zorruak.

2/ Amabostetikan bat
zorruari kendu
merma irtetzen bazan
berenetik ondu
morroia ta astuak
gañera mantendu
sekula ezin zuten
sakela gizendu.

3/ Errotari zar aiek
zintzoki munduan
beti Jainkuen bildur
bere aginduan
sufritu zutelako
pixka bat munduan
zoriontsuak dira
betiko zeruan.

4/ Aien antzik ez dute
gaurko errotariak
berez izanagatik
aien jatorriak.
Asko bilduta ere
beti egarriak
baserritarrok gaude
ondo igarriak.

5/ Nola ez duten orain
asto ta morroirik
ez dutela nai eman
pausorik alperrik
orientzako ez da
orain urte txarrik
irabazi guziak
berentzat bakarrik.

6/ Errotariak berak
agindu auzuan
zorruak ekartzeko
nork bere astuan
astorik ez daukanak
nai badu lepuan
bera soseguz bapo
sukalde txokuan.

7/ Gitxienetik kendu
amarretikan bat
txunpurtilako iriña (1)
seguru beretzat
trakimafia guziak
artu bear ontzat
merma irtetzen badu
zorrobientzat.

8/ Nik esango dizuet
aditu bezela
errotari zar batek
neri esan zidala
nola dan ain okerra
errotako pala
zuzen erabiltzea
oso gaitza dala.

(1) *Txunpurtila*. Iriñik onena egoten dan tokia.

9/ Alderdi onak ditu
errotako trankak
arek estaltzen ditu
nagusien tranpak
zorrua pisatzian
azpitikan anak
gero inperuan bai
a zer mutur jokak! (2)

10/ Gaurko errotariak
milla aitzakia
gari ximurra edo
arto eltzakia
beti auzuentzako
desborondatia
baña berak etxian
sakela betia.

11/ Beti berentzat gorde
gauzarik onenak
samur bereganduz
naiz da besterenak
diru zaliak dira
errotari danak
ark eragiten die
orrelako lanak.

(2) Grazianok berak esan zidan bertso au Txirritak Pello Errotari botatakua dala.

12/ Aberastu nai dunak
entzun aitonari
samur jarriko zera
dirutan igari
nai baldin badituzu
txanponak ugari
beste lanak utzita
sartu errotari.

PAULA AUNDI TA MARI TALAN

Umeen aziera ona izan da beti Grazianoren kezka aundi bat. Bere ustez, umeak txikitatik bear dira ezi, eta ortarako neke eta laztasun pixka bat ez dator gaizki. Emen jartzen ditu aurrez aurre bi ama: batak latz eta estu azi ditu bere umeak, eta orain etorkizun on baten begira dago; besteak lasai azi ditu, eta orrekin bere zartzarorako arria bildu besterik ez du egin.

Arantzazuko errebistan azaldutako bertsoak. Ikus "Aránzazu" XLIV (1964), 77.

Paula Aundik:

Ni Paula aundi ondo bizi naiz
amabi ume azita,
gaztetatikan morroi-neskame
danak ederki ezita.
Orain amari zintzo laguntzen
norberak irabazita,
zorioneko zarzaroa det
umiak ondo ikusita.
Atsegifietan bizi naiz orain
kezka guziak utzita.

Mari Talanek:

Nik Mari Talan zuk bezelaxe
amabi nituan azi.

Gaztetatikan morroi-neskame
ez nituan nik ikusi.

Nik uste nuan nere onduan
biar nituala ezi.

Ez bearrian, ez obeditzen
etzuten ondo ikasi.

Danak neretzat gorroto dute
ni ezin nindeke bizi.

Paula Aundik:

Praille ta moja batzuk jun dira
ezkondu dira bestiak.

Danak errukiz neri ematen
biar ditudan guztiak.

Begira zenbat balio duan
umiak zintzo aztiak,

Jaungoikuaren aginduetan
bide ona erakustiak.

Au egin ezik gurasoentzat
datoz ondoren tristiak.

Mari Talanek:

Praille ta moja iñor etzait jun
guziak ditut ezkongai.
Nire alabak emaztetzako
iñork ere ez ditu nai.
Semeak berriz alperrak dira
oiek nai dute beti jai.
Nik nituanak jan didate ta
geiago banu ere bai.
Zoritxarreko zarzaroa det
ez nago barrendik lasai.

Paula Aundik:

Zerorren erruz zaudela gaizki
zaude jakin bearrian.
Zuk jarri dezu zeure burua
orlako zori txarrian.
Nola ez dituzun umiak azi
Jaungoikuen bildurrian,
zu ilgo zera oiek utzita
bizibide okerrian.
Kontu estua emango dezu
Jesukristoren aurrian.

ALABAREN EZTAIETAN

Victoria Anduaga, Grazianoren alaba, Arantzazun ezkondu zan 1947-ko urriaren 2-an. Bere senarra, Franzisko Igartua, Arantzazuko auzotarra, Azpilleta baserrikoa. Aita Arcangel Mitxelena, komentuko Guardianak, bedeinkatu zuen ezkontza ura. Arantzazuko hospederian egin zuten bazkaria, eta an kantatu ziran bertso auk. Grazianok ba du illoba bat, Joxé Antonio izenekoa; artean mutil koxkorra zan, eta berak kantatu zitu en bere izenarekin datozen bertsoak.

Victoria Anduaga bere senarrarekin Legazpira joan zan bizitzera, eta an bizi da orain ere.

Bertso auk gaur arte ez dira sekula argitaratu.

- 1/ Zeruko Aita, bedeinka itzatzu
gaur emen gure eztaiak,
zorion gozoz jantzi itzatzu
gazte ezkondu berriak;
baita emen gauden senide eta
adiskide maitagarriak;
danok gauzkazu beso zabalik
Zeuri begira jarriak.

- 2/ Arantzazuko Andre Maria,
erregu zazu gugatik;
zure ondoan ementxe gaude
jaio giñan ezkeroztik,
zure laguntzaz bizi gera ta
maite zaitugu gogotik;
Zu emen egon ez baziñake
joango giñan emetik.
- 3/ Alabatxo bat bakarra degu
goxo-goxotan azita,
txikitan ere txintxoan zan da,
ala zeukan merezita;
aurki igesi jungo ote zan
aspaldi geunden etsita,
beraren gogoz orain dijua
aita-amak emen utzita.
- 4/ Seme herri au ezagutzian
au da artu dedan poza,
zeruko Aitak ematen digu
guk merezi ainbat gauza.
Gure famili maitagarria
beti dijua goruntza;
aita-ama zarrok izango al degu
zartzarorako laguntza.

5/ Aita zarrari entzun zaiozu
bai gure seme berria,
zu sortu zera gure famili
guziaren pozgarria.
Zorionsua izan dedilla
zuen bizitza berria,
opa dizutet urte askotan
ezti gozozko illargia.

6/ Gaur eman duten itz eder ori
daude bete bearrian,
juramentua ala egin dute
Birjiña Amaren aurrian;
norbere gogoz lotuko ziran
ezkontzako uztarrian,
beren biziko lokarri ori
artu dute bizkarrian.

7/ Aita zarraren erakutsiak
bear dituzu ikasi,
emazte ori zintzo zainduten
gaurtik bear dezu asi.
Bein pauso ori eman ezker
gizonak bear du etsi,
uztarri ori ausi artian
gaurko maitasunai eutsi.

8/ Ezkontza ez da edozein gauza
noiznai egiteko txorotan,
andria nola zaindu bear dan
artu zazute gogotan:
bero danian freskuran eta
otz dagonian berotan,
zure biziko naikua lana
emango dizu gai ortan.

9/ Arreta andiz aditu zazu,
gure alabatxo maitia;
zure aitaren biotza dago
gaur atsegiñez betia.
Zure sanarrari zintzo laguntzen
beti saiatu zaitia
oso osorik irabazteko
beraren borondatia.

10/ Beraren alde ipiñi itzatzu
dituzun abildadiak,
bere gustora zintzo jarriaz
jantzi eta janariak.
Eskutik iges egin ezker
norbere kulpaz txoriak
gero ondoren ez dira sortzen
asko lanbide obiak.

- 11/ Emaztearen egin biarra
 senarra zaindutia da.
 Zenbait emazte, senarraren ordez,
 norbera zaindu al bada;
 kanpokuakin izketa legun
 iji-aja ta algara,
 andrekumetan billatu leike
 amaika arta-galbara (1).
- 12/ Ezkonduarte asko zintzuak
 baña ezkonduakuan
 zintzotasuna askok sartzen du
 pardelkerizko zakuan;
 gero senarra zabarkeriaz
 oso nazkatutakuan
 aren ondoan ez da atsegin
 andikan aurrerakuan.
- 13/ Neskatxa danak dirade fiñak
 ezkondu bear danian,
 mutillak ere danak zintzuak
 eta leialak lanian;
 ezeren faltik ez da izaten
 ezkonberri diranian,
 gero kontuak izan oi dira
 San Martin datorrenian.

(1) *Andrekumetan billatu leike amaika arta-galbara.* Esan nai du = ajolakabiak, txatxuak. *Arta-galbara* = erderaz, *criba*.

14/ Erakutsi au gaizki badago,
zeuek obeto asmatu,
egun danetan Jaungoikuari
bere laguntza eskatu
eta gabian lotarakuan
agurtza beti errezatu,
munduan geran arte ta gero
aita ta amakin ez aztu.

Aitonaren deia illoba Joxe Antoniori:

15/ Xutitu adi, Joxe Antonio,
nere illoba maitia,
neurrigabea dek iretzat
aitonan borondatia,
iri begira ementxe zeudek
txoratzen tio ta tia,
oiek nai ditek nolabait ere
ik lau bertso esatia.

Joxe Antoniok:

1/ Zorion asko ematen diet
osaba ta izebari.
Bart amesetan atsekabe bat
burura etorri zait neri;
oien eskutik artuta nago
sarri goxuak ugari,
iduritu zait agortu dala
neretzat iturri ori.

2/ Naigabe orrek ez dit ekarri
min andirik biotzera,
nik beti maite izango ditut
illoba fiñen antzera,
eguerrietan turroiarekin
atozte gure etxera,
ezkon urtia zoriondu ta
musaldi bat egitera.

3/ Elkar maitatzen bizi gaitezen
Jaungoikuan izenian
gure pausuak eman ditzagun
beti bide zuzenian,
ikustaldi bat emango diet
ango eguna danian,
arkumatxo bat eramango iet
Santikruz datorrenian (2).

4/ Iñori miñik eman badiot
danok barka dezatela,
mutil koskorrak ezin itzegin
gizon elduak bezela.
Luzatu gabe nere jarduna
bukatzen det beriala,
gaurko eztaiak neri bezela
guzioi on degiela.

(2) *Maiatzeko Santikruz-egunean izaten dira Le-gazpiko jaiak.*

Azkena

Emen aitona eta illoba
maitasuna dariela
zorion asko guzientzako
merezi duten bezela
emen ezkongai diran guziak
gaur esnatu ditezela
beste eztairik arrapatzerik
guk ez daukagu bestela.

BASERRIKO EZTAIAK LEEN ETA ORAIN

Aspaldiko oitura zaharren alde azaltzen da beti Graziano. Anaitasun ederra agiri omen da lengo oituretan. Esate baterako. leen, baserriko eztaietan, danak artzen zuten parte, eta egun benetan gogoangarriak izaten ziran txiki, aundi eta danentzat. Oraingo oitura berriekin ori erabat galdu da. Ezkonberriak, osaba-izekoak artuta, kaleko ostatu batera joango zaizkitzu an bazkari bakar bat egitera, umeak eta gaiñerako aaideak etxean negarrez utzirik. “Anaitasunik ez du gaurko gizadiak”.

Bertso auek ez dira sekula argitaratu. Graziano beraren letraz idatzirik paperetik artu dira.

1/ Len pobre aberatsak
ziran baserriak
egiten ziran iru
eguneko eztaiak
Aaide ta bizi lagun
zar eta gaztiak
ume guziai egin
jantzitxo berriak
izaten ziran egun
goguangarriak.

2/ Elkarri lagunduaz
egun biz aurretik
txekor gizen bat ilda
zinzilik esegi
ardo beteta ekarri
iru lau zaragi
gañerako jangaiak
onak eta ugari
kafien gañerako
nai ainbat edari.

3/ Eztai bezperan andre
guziak bilduta
oillo eta bizkotxo
galantak artuta
oillo moztzen elkarri
zintzo lagunduta
danak kontu kontari
ondo bazkalduta
illunkaran etxera
bapo epelduta.

4/ Eztai egun goizian
txorien antzera
guztiak eleizara
ezkontza ikustera
dunzina ta pandero
eta bolandera
aiek eta bestiak
biltzen dira etxera
zori onak emanaz
bapo bazkaltzera.

5/ Oillo saldaren zopa
goxo guri guri
ondorian aukera
nai zan egoskari
aragi gisadua
ebakita lodi
gero oillo galanta
seiko bakoitzari
postre ta kafe kopak
onak eta ugari.

6/ Arriua irakutsi
bazkaldu ondorian
oe ta armario
aurreko gurdian
komoda ta gaiñentzak
an bigarrenian
jantziak dozenaka
aien barrenian
gero eskupekuak
bandejak betian.

7/ Duntziña ta pandero
dantza askatua
bigarren egunian
zarren zortzikua
mundu guziai parre
eragitekua
otordu guzietan
jan da edan naikua
au zan bizimodua
eztaietakua.

8/ Irugarren eguna
iritxitakuan
batzuek bertsotan da
bestiak jokuan
txekor istar osua
artian kakuan
koziñerak tupiak
jarri su onduan
etxera jungo gaituk
bazkaldutakuan.

9/ Oitura onak galdu
ditu baserriak
azpiratu gaituzte
gaur moda berriak
aita ta amarentzat
dira gaurko eztaiak
sukaldian negarrez
utzita bestiak
nola poztuko dira
umetxo tristiak?

10/ Eleiza ta apaiza
dauden auzuetan
eleizako ezkontza
egiñarren bertan,
osaba-izebak artu
automobilletan
gaiñerakuak utzi
triste etxietan
kalera bazkaltzera
bide luzietan.

11/ Bazkari bat bakarra
osaba izebairi
atsekabe galanta
gaiñerakuairi
orri deitzen diote
lujoko bazkari
bakoitzaren aurrian
platerak ugari
baiña ez ebakita
aragia lodi.

12/ Kale biurtu dira
orain baserriak
usai goxoa dute
oitura berriak
anaitasunik ez du
gaurko gizadiak
baserrirako lengo
oiturak obiak:
gaurko nekazariak
aberats pobriak.

AITA TA AMA IPISKI

Gaurko gazteriaren maiñak ematen diote biarleku Grazianori. Gaurko gazteak danak parranda-zaleak, arrokeria dute amets, aberatsak balira bezela nai dute bizi, zaharren esanik ez dute egiten.

Lehenbiziko bertsoa "Aitonaren Uzta"-n agertu zan, gaiñerakoak ez dira egundaiño argitaratu. Grazianoren letraz idatzitako paper batetik artuak dira.

- 1/ Aita ta ama ipiski (1),
 seme alabak aundizki,
 gaurko egunian toki askotan
 gertatzen da noski.
 Gazteen poltsak irazki,
 gurasuak matarraski (2),
 zarzaro ona igarotzeko
 ez gabilta gaizki.

(1) "Ipiskixa da labeko brasak bazterrera ekartzeko aga baten puntan lotuta jartzen dan erropa zarrezko moltsua" (Graziano).

(2) "Matarraski da oramaian gelditzen diran orondarrak biltzeko belakitxo bat" (Graziano).

2/ Eskola asko ikasiak
ongi nai dute guziak
lanik ez egin, bazkari ona
dotore jantziak,
gu ezjakiñok gosiak,
ezurrean ondo eziak,
alperrentzako izaten dira
gure irabaziak.

3/ Alper lotsarik gabiak
dira belar ugariak
oiek dirade zoritxarrian
munduan jabiak
jartzen dituzte legiak
pobrien ondagarriak
gaiñerakuak diradelako
eurak baiño obiak.

4/ Gaurko gaztien bizitza
tamalgarriko desditxa
ostikopian zapaltzen dute
gurasuen itza
beren buruen ekaitza
nundik bilduko dabilta
traste okerra gero zuzentzen
izaten da gaitza.

5/ Txorakerin dabiltz jaiian
beti ala bizi naian
gau illunian parrandan eta
egun argiz oian
sasoirikan onenian
norberaren galmenian
ez dute ikusten zer datorkien
gero ondorenian.

SANTU BERRIA

Mugakide diran erriak maiz izaten dituzte elkarrekiko zer esanak. Grazianok ere badu zenbait istorio irri egingarri zegamarrei buruz. Ona emen bat, elizan santu berria jarri nai zutenekoa.

Bertso auek aren aotik zuzen-zuzen artuak dira. Eztira egundaino argitaratu.

1/ Bertso berriak moldizkidatzen
badaukat naiko lana
nola nagoan oso auldua
aspaldi gazte izana
goguan daukat pasaizu bat
nere aitonak esana
orai iru bat gizaldi noski
Zegaman gertatu zana.

2/ Parroko jauna omen zeukaten
osoro maitagarria
egun batian berak deituta
bildu zuala erria
lengo santua txit erdoitua
zegola lotsagarria
festatarako eingo ote zuten
San Bartolome berria.

3/ Erri guztiak erantzun zion
borondatez beriala
enkargatuta ekarritzeko
berak nai zuan bezela
santu apaña idukitzea
etzala kalte ezela
danen artian eskota eginda (1)
samur pagatuko zala.

4/ Apaiz jaun orrek santugille bat
laister zuan billatua
iru itzetan egin ere bai
santu berrien tratua
bere enpeñuz an utzi zuan
seguru enkargatua
festatarako izan dedilla
berari entregatua.

5/ Festa bezpera allegatu zan
Parroko jaun ori larri
agindu bai ta santu berria
nola etzioten ekarri
Ataungo gizon lodi lodi bat
gauetz zuan erakarri
festa eguna zabaltzerako
baita ere aldarian jarri.

(1) *Eskota eginda* = diru biltzea eginda.

6/ Goizetik askok egiña zuten
elizarako bixita
danak txoratzen santu berrien
mardultasuna ikusita
dist eiten zion ezti olio
gorputz dana igortzita
euliak ere biltzen zitzaion
usai gozoa iritzita.

7/ Meza nausitan Parroko jaunak
pulpitora igotzian
ala esan zien: Santu berri au
ar zazute biotzian,
nola nai degu lagundutzia
gerok agurtu ezian?
Eska zaiogun gorde gaitzala
Jaungoikuaren grazian.

8/ Gero esan zion: Ai Bartolome,
zu santu aundia zera,
gaur mirari bat ein biar dezu
egiazkua bazera.
Au aditzian Bartolo orrek
basati baten gisara
besuak gora altxatu eta
salto egin zien elizara.

9/ Santu berria aldaretikan
saltoka zanian asi
danak txapelak bertan utzita
eleizatikan igesi
andre guztiak gonak galduta
iskanbilla ta garrasi
neurri artako pasaizorik
beste bat ezta ikusi.

10/ Bartolo ori tanta batian
geldi egon zan elizan
jende guztia aldendutzian
gero saltoka asi zan
mendi aldera ezkutatu zan
pizti gaizto baten gisan
Parroko jauna sustuarekin
pulpituan bertan il zan.

11/ Bartolo ori nola zeguan
bizi ro larru gorrian
eguzki argiz etxeratzeko
oso estadu txarrian
agertu zan bai mendi aldian
nunbait gorde biarrian
andreengana salto joan zan
gero illunabarrian.

12/ Bere tankera ikusi eta
andrea asi zan mintzen:
Nazkagarriko usai orrekin
ziaro naizu iguintzen,
nun edo nora ibilli zera
edo zeñeri laguntzen?
Nik etzaitut ba nere senartzat
zu geiago ezagutzen.

13/ Bartolo orrek espa gogorrez
andre ura ikustian
gauaz etxeti alde egin zuan
alako modu tristian
probetxu gabe negar egifiaz
erririk erri eskian
zaku batekin or ibilli zan
bere bizitza guztian.

14/ Obispo Jaunari jun zitzaion
Zegamati albistaria
zer gertatu zan eta zein gaizki
arkitutzen zan erria
zorigaitzian ekarri zala
alako santu berria
erremeditu zezala laister
eguera negargarria.

15/ Obispo Jaunak erantzun zien
lengo fedia ez galtzeko,
diligentzia eingo ziela
apaiz berria ekartzeko
lengo santua garbitu eta
bere lekuan jartzeko
oraingo santu berri oiekin
konfiantzarik ez artzeko.

LOTSATI BATEN EZKONTZA

- 1/ Senar emazte batzuk jun ziran
bei bat saltzera perira,
auzo besteko andre gizon bi
jarri zitzaien begira.
Berialaxe eragin zien
aberien eskabida,
eskeintza ona egin zien da
konpondu ziran erdira.

- 2/ Alboroka egin bear zutela
tratu orren izenian,
bi litro ardo edan zituzten
taberna txiki batian;
andrakumeak egarri xamar
arkitzen ziran artian,
beste tratu bat asmatu zuten
pamili bien artian.

- 3/ Ama erosliak esaten die:
Semia degu ezkongai,
gutzat moduko alabatxo bat
zuek ere etxian bai;
ezkontza orren alboroka ere
egin dezakegu lasai,
gure esanak gazteok ondo
artuko dute nolana.

4/ Tabernaria, atera zazu
beste bi litro osuak,
denontzat ondo izan ditezen
gure ezkontza tratuak;
seme alaben zuzentzalliak
nola geran gurasuak,
ondo berotu bear ditugu
gure urdabill gaxuak.

5/ Datorren jaian alabarekin
atozte gure etxera,
gaztiok alkar ezagutu ta
gurekin bazkaldutzero.
Gure semia lotsatia da
mendi mutillen antzera,
baña guk ondo esan ezkeru
jarriko da ezkontzera.

6/ Ama erosleak esaten die
txarrua ustuzan:
Gure tratuak izandu bitez
Jaungoikoen izenian,
pozaren pozez guazen etxera
bakoitza bere bidian,
agur goxo bat elkarri egin,
adios jaira artian.

7/ Amak semiai esaten dio:
Ara emen bei berria;
beste tratu bat egin diagu
iretzat txit egokia:
orain ezkondu egin bear dek,
jaian zetork andre-gaia,
egun-lanetan laguntzalle ta
gaubeko berogarria.

8/ Aita ta ama alabarekin
ala jun ziraden jaian,
semetxo ori leio batian
amak zeukan atalaian;
arrera ona egin zien bai
eldu ziraden garaian,
goxo-goxotan bazkaldutzeko
seirak jarri ziran maian.

9/ Neska-mutillai esaten die:
Entzun amaren egiak,
elkarri argi begiratuaz
bete zazute begiak,
ezkon aurreti au agintzen du
Jaungoikuaren legiak,
izan zaitezten bizi guziko
elkarren maitagarriak.

10/ Nola eguzkiak berotzen ditu
munduko toki laiotzak,
ala maitaki bildutzen dira
ardiak eta bildotzak;
amoriozko goxotasunez
elkartu zuen biotzak,
kariñuaren sugar biziak
berotutzen ditu otzak.

11/ Gero aita-amai esaten die:
Aguro gabiltzan arren,
ezkon aurreko tratu luziak
badakigu zer dakarren;
goxo-goxotan jarri ditugu
biok maitaki elkarren,
orain eztaiak kariñu ori
berriz otzitu baño len.

12/ Gertatu ondoren ezkondu ziran
egun gutxiren buruan,
eztai ederrak egin ere bai
oitura zuten moduan.
Artian ere semiarekin
amak zer egin bazuan,
andrearekin lo egitera
iñolaz jun nai etzuan.

13/ Esaten dio: Ai, nere seme,
jun adi Jainkuagati,
emazte ori azkar juteko
or daukak deika ogeti;
oraintxe bertan bere ondora
lotara juatiagaiti,
kutxillotxua ekarrikoiat
Pazkuetan Bergarati.

14/ Gero errañari esaten dio:
Itz egiozu poliki,
tamalik gabe jungo litzake
nora dijuan baleki.
Esan eiozu: Atoz, maitia,
ementxen dago eguzki,
epel epela dago oia ta...
etzera egongo gaizki.

15/ Lotsaz betia eraman zuan
amak elduta eskuti,
esanaz: Orlako esku aldirik
sekula ez dek ik euki.
Bizimoduai iritxi zion
berak uste baño obeki,
anega artoa taloz jan arte
etziran geiago jaiki.

16/ Geroztik ama bizi izan zan
beste amasei urtian,
seme errañak ondo zaindutzen
saiatu zan bitartian,
zazpi seme ta iru alaba
sortu zioten etxian,
artian ere bero zeukaten
kariñua biotzian.

17/ Lotsagabiak esango dute:
Lotsatiak bai leluak.
Au diotenak izan litezke
kaskarin ta kaskeluak.
Ezkon ondoren izango ditu
ezbiar eta zeluak,
bere almenak dituan orrek
bide txarretan galduak.

18/ Ezkon aurreti lotsa galduta
dabiltzatenak jostatzen,
Eleiz-ezkontza egingo dute
noizbait alakoren baten;
aundikeria erakus naian
erromerira dira juaten,
baña ondoren frutu onikan
askok ez dute ematen.

(Gesaltzako Grazianorenak. Madiñako
Bernabek etxean zeukan kopia batetik ko-
piatua.)

ANDRE GOGAIKARRIA

Maiz entzun diot Grazianori zein izan oi dan etxe askotan zorigaitzen sustraia. Ezkongaietan neskatxa danak omen dira piñak eta zintzoak. Baiña gero, ezkondukoan, emazte batzuk zabartu oi dira, *pardeldu*. Ez gizona zaindu, ez etxeko lanak egin, ez ezer. Gizonak orduan ez du sukalde artan gozorik arkitzen. Eta ortik datoz istilluak. "Pazientzi-zakua betetzen danian", egun beltzak gertatzen dira zenbait pamilitan.

Bertso auek ez dira bein ere argitaratu. Grazianoren letraz idatzitako paper batetik artuak dira.

1/ Andre gogaikarria
zeukan gizon batek
aren antza badute
amaika emaztek
iñoiz aditu zion
batek eta bestek:
Au zuzenduko duan
gizonikan ez dek.

- 2/ Ezin atera diat
goizean ogeti
ni gosaldu gaberik
biarrera beti
bera nai duanian
lasai lasai jaiki
soseguz orraztuta
gosaldu ederki.
- 3/ Eguedian larri
ni bai bazkaltzera
babak sartu gaberik
askotan eltzera
berandu gosalduta
egoten dek bera
ni bazkari otzakin
berriro lanera.
- 4/ Zintzo ta fiña zana
ezkongai zanian
gauza bat falta nian
ongi nintzarian.
Amaiko lo galduta
nik bere atzian
gaur milla gauza falta
ta pardela etxian.

5/ Beretzako etzaio
faltatuko ezer
karamelu, galleta,
platano ta pastel,
kafe ta txokolate,
jerez ta moskatel,
nire bizimodua
jan biar du laster.

6/ Danak eraman dizkat
nik orain artian
ikusiko degu zer
datorren atzian
pazientzi zakua
betetzen danian
goiak bea joko du
gure sukaldian.

5

GURE EUSKERA BIZI DEDIN

Bertso auek ba dute antza gorago jarri diran beste batzuekin (Ikus "Bizi dedilla euskera"). Baiña bertso batzuetan aiekin berdin-xamar izanarren, bertso berezi asko ere ba daude eta orregatik sartu nai izan ditugu bilduman.

Bertso auek ez dira egundaiño argitaratu. Grazianoren letraz idatzitako paper batetik artuak dira.

1/ Arantzazuko Andre Maria,
guzion Ama zu zera,
zori onian etorri zifian
Euskalerria zaintzera,
egun danetan naigabe mifia
sortutzen zait biotzera
ikusirikan aldapa bera
amilka gure euskera.

2/ Esnatu danok jaio giñanok
ama euskaldunengandi
aita ta ama maite ditzagun
gure biotzen barrendi
Jaungoikuaren urrena berriz
Euskera guzien gaindi
askok iltzia nai dute baiña
piztu genezake oraindi.

3/ Txiki giñala txurrut egiñaz
amatxoren bularrian
ze itz goxoak esaten zigun
maite-maite belarrian
al zan lenena bera itzkera
irakutsi biarrian
ordutik gaude bizi guziko
gurasuakin zorrian.

4/ Aita ta amak nekien puruz
maite maiterik azita
beren itzketan eta oiturak
gazterik erakutsita
erdera maite duten oieri
euskera oinpian utzita
Andre Mariak ez diela nai
egon ditezke etsita.

5/ Gure lurra ere sispuruz dago
malko miñak dariola
erderatarrak azpiratzeko
peril aundian dagola
deika dauzkagu zertako degun
gure zaiñetako odola
garbi ta txuri ez gordetzeko
geu jaiotako kaiola.

6/ Euskalerriko alaba danai
nai diet adierazi
erdeldunakin ezkonduarren
ain ongi diteke bizi,
baiña itzkera jatorriko au
galtzen sekula ez utzi,
zuen umiai txikitatikan
euskeraz ondo erakutsi.

7/ Erderatarrak gure errira
etortzen diradenian
beren itzkera egiten dieu
al dan modu onenian,
baita an ere beren errira
gu juten geradenian:
zertako guri gorroto artu
euskera onen gaiñian?

8/ Agintari ta buruzagiai
egiten diet erregu
guk itzkera ta apaltasuna
jatorrikuak ditugu
norbait asiko balitza jartzen
gure pausuak katigu
Andre Mariak goiko laguntza
beti iritxiko digu.

- 9/ Basarri jauna Zarautzen degu
itz neurketan txapeldun
egun batian bertsolari danak
bildu zazu zure lagun
nai dezun eran erabakita
esan zazu noiz eta nun
agoniara sartu baiño len
euskera indartu dezagun.
- 10/ Nik ez det uste naikua danik
gizonaren indar utsa
Arantzazuko Andre Mariari
eska zaiogun laguntza
aldapa bera jun dan euskera
ekarri zagus gooruntza
bakarrik tira ezin deguna
ark egingo digun bultza.
- 11/ Orain aditu nai ez badute
nik ez det berriz esango
igerri gabe jarriko zaigu
igaro ezin ala trango
gure arbolak, igartzen bada,
pujarik ez du emango,
orain bezela bertsolaririk
orduan ez da izango.

12/ Gure itzkera eta oiturak
ez dira eroriko beera
Basarri jaunak zuzentzen badu
bertsolarien billera
aitona onek jun naiko du bai
zuek danok ikustera,
diadartxo bat egin ere bai:
Bizi dedilla euskera!

EUSKALDUNA PARDELDU

Dirua ugaritu danean, euskalduna pardedu egin da, nagitu. Lengo zintzotasun ura eta oitura on-garbiak galdu egin dira. Euskera ere maldan-beera dijoa. Aurki erderatarrak jarriko dira nagusi.

Bertso auek ez dira bein ere argitaratu. Grazianoren letraz idatzitako paper batetik artuak dira.

1/ Garai aizetxu eta txoraa
nola dan gaztetasuna
diru xamurra uste dute ba
dala berentzat kutuna
aren bitartez egiten dute
ain bizimodu tuntuna
igarri gabe galdutzen die
anima ta osasuna.

2/ Bere garaian lotara juten
diruak ez die uzten
diabruaren jolastegiak
arek die erakusten
ain illunpetan pekatu asko
nola egiten dituzten
uste dutela zeruko Aitak
gabaz ez duala ikusten.

3/ Euskalerrian len bizi gñian
alako zori onian
zintzo ta alai erretiratu
danok illunabarrian
diru xamurrak gazte arruok
txoratu dituanian
Erdelerritan diran mutilok
emen ditugu gñian.

4/ Emengo amaa ez dakite ba
umia ondo azitzen
bizimoduko ikasbidian
ez dituzte erabiltzen
txoro azita ondorenian
neke da zintzo bizitzen
gaztetan lasai oitutakuak
nekez da gero ezitzen.

5/ Gure euskera ta zori ona
dijuaz bide txarrian
erdeldunak beren oituraz
jarri zaigu bizkarrian
aurre zaliak bagera ere
gaude ikusi biarrian
atzeko asto biar degula
oiek ditugu aurrian.

6/ Ai euskaldunak, esnatu danok,
orain ezbadegu ikusten
erbestetarrak igarri gabe
nola utziko gaituzten
txorakeriak oso lagatzen
orain ez bagera asten
gaitza da gero pardela danak
zintzoari irabazten.

BARTOLO TA PRAISKU

Bi anaien bizitza jartzen zaigu emen ispillu bezela. Bata, maiorazko zalako, etxearekin gelditu zan, eta bizimodua atera ezinda dabil. Bestea praille sartu zan eta ongi bizi da. Jakia eta ogia ez du falta.

Bertso auek ez dira bein ere argitaratu. Grazianoren letrarekin idatzitako paper batetik artu ditugu.

- 1/ Bi anaia ziraden
Bartolo ta Praisko
Bartolo gelditu zan
etxe maiorazko
anaia etzuan nai
lagun etxerako,
Praisko praille sartu zan
bizi guzirako.

- 2/ Bartolo ezkondu zan
beste asko bezela
ateratzen etzuan
bizimodurik ezela
lengo irabaziak
bazijuazela
eta zorrak bentaja
egiten zutela.

3/ Praisko jun zan batian
anaien etxera
nola bizi ziraden
gogoz ikustera
anaiak esan zion:
gaizki bizi gera
gure ondasun danak
badijoaz beera.

4/ Jai ta aste lanian
saiatzen gerade
artoa jan askotan
jakirikan gabe
ogirik erosteko
diru gabe gaude
nola jarraitu geike
guk etxien jabe?

5/ Ondasunez beteta
aitak bere etxia
ortxe dauzkak, artu ta
euretzat guztia
ta nik ere ez diat
kobratu dotia
oraindik geiago
nai dek ematia?

6/ Ezertxo gabe junda
nik praileetara
orra bizimodua
ederki atara
Jaungoikuari otoitz
egin bere erara
Aita egiazkotzat
agurtuaz bera.

7/ Nik etzaukiat zorrik
nunai artzekua
alporja bizkarrian
danak sartzekua
ogia ta jakia
badiat naikua
au bai dek izatia
zori onekua.

8/ Jarraitzen badek ondo
Jainkuen legia
ugari izango dek
jakia ta ogia
baiñan uzten ez badek
inpernu bidia
diabruarentzat
eu ta familia.

NEGU GARRATZA

Bertso bakarra, baiña borobilla eta ondo tajutua. Urte zati baten goraberak zeïnen ederki dauden kontatuak!

Oraindaiño sekula agertu gabea. Grazia-noren paperetatik artua.

Aurten ikusi degu
negu bat garratza
dana elur da izotz
jun zan il baltza
otsailla ere berdin
martxua lakatza
apirilla elkorra
legorra ta otza,
eldu da Maiatza
udaberri antza
txoriak be dantza
astoak arrantza:
onek ekarri digu
bizi esperantza.

AUNDIZKIEN OITURAK BEARTSUEN ETXEETAN

Gazteak zearo pardeldu (=nagitu). Au da gure aitonaren betiko leloa. Zintzo ta fiña zan lehen euskalduna, baiña fintasun ura joan zaio.

Gaur artio agertu gabeko bertsoak. Grazianoren paperetatik artuak.

1/ Zintzo ta fiña zan len
beti euskalduna
baiña galtzen dijoa
lengo fintasuna
lotsagarria da gaur
ikusten deguna
aitona zarroiri min
ematen diguna.

2/ Lengo oitura onak
ain digute galdu
aspaldi nola zaigun
dirua ugaldu
baiña zorrak pagatzen
ezin gera eldu
gaztiok zaigulako
ziaro fardeldu.

3/ Aundizkien oiturak
biartsuen etxian
gaztiok nai dituzte
bai zori gaitzian
apaindu ta jostatu
aberats antzian
gauza onik ez dute
oriek atzian.

EGI MARDULAK LENGO ESAERAK

Lengo esaera zaharren zalea izan da beti Graziano. Antziñakoen jakituria dago oietan mamitua. Ikasbide ederrak eskeintzen dizkigute.

Grazianoren paperetatik artutako bertsoak. Gaur arte argitara gabeak.

1/ Egi mardulak dirade noski
antxiñakuen esanak
eta batere bildurrik gabe
siñista zazute danak:
soiñu txikia joko dutela
naiz da izan berez onak
mingain gabeko arranak eta
diru gabeko gizonak.

2/ Siñisgarriak dirade noski
lengo esaera zarrak
otsailleko eguzki bero
eta abenduko izarrak
atzeti laster dakazkiela
elur edo kazkabarrak
eta pobrien arrokeriak
beti ondorenak txarrak
baita gaztien txorakeriak
atsekabe ta negarrak.

TONTO ARROAK

Apaltasuna erakustera datorkigu oraingotan gure aitona. Bai, apaltasun pixka bat ikasi bearrean omen gera euskaldunak. Arrotxo-xamar omen gera. Tonto arroak ere bai, frankotan. Eta arrokeriak bein ere ez dakar atzen onik. Dana dala, norbere utsak eta akatsak ezagutzea komeni zaigu. Ezaguera ori izandu da beti jakituriaren sustraia.

Arantzazuko errebistan agertutako bertsoak. Ikus "Aránzazu", XLIV (1964), 110.

1/ Zozuak esan zion beliari
ipurdia daukak beltza.
Erantzun zion: Esan didazu
ausnartu gabeko itza
utsa litzake zure ipurdia
txuriagua balitza
bere burua ezagutzia
orren al da gauza gaitza?
Lurgain onetan amaika txoro
zure antzera badabiltza.

- 2/ Au aditzian zozo leluak
 egin zuana lenbizi
 bere ipurdien koloriari
 begiratutzen zan asi
 belia baño ainbat beltzago
 au zuanian ikusi
 nola itzketan ala ipurdiz
 arkitzen zan ain itsusi
 sasi batian ezkutatu zan
 beliagandik igesi.
- 3/ Askok diote Euskalerrria
 berez aberatsa dala
 ta euskaldunok bestiak baiño
 bizkorraguak gerala
 nik ez det uste esaera au
 dan dana egia dala
 gaztetatikan zarzaroraiño
 ikusi degun bezela,
 Erdelerririk ez halitzake
 gu ezin bizi ezela. (1)
- 4/ Andik ekarri biar ditugu
 patatak eta gariak
 olio, ardo, fruta gozoak
 eta beste edariak,
 kafe, azukre, arroz, garbantzu,
 tabako ta jantzi gaiak,
 ganaduentzat lastua eta
 baita pentsu janariak
 aiek dirade gure txekor da
 esne diruen jabiak.

(1) *Ezela* = Iñola ere.

- 5/ Bei ganaduen konkurso edo sariketak diranian txekor eta bei bikaiñik bada, artu ta plazara bidian, erderatarrai irakustera apainduri ederrian. Aiek diote: Tonto arruok ara emen gure aurrian, kontribuzioak eta petxak gooratu Euskalerrian.
- 6/ Euskalerrian badira zenbait lantegi edo fabrika aiegatikan biargilliak etortzen dira amilka erderatarrai jornaletikan dirua sobratzen zaizka euskaldun askok dana gastatu baita geiago balitza eta gaiñera al dan guzia aidak emango balizka.
- 7/ Euskaldun askok esaten dute: Gu soldadurik onenak. Poltsa beteta juten dirade emendi dijuazenak gastatua len gero biraldu berriz aidak eta amak erderatarrak biribillatu berenak eta bestenak gurasuairi biraltzen die eskuratzen dituztenak.

- 8/ Gaur gazte asko ikusten dira
aberatsaren antzian
langillari ez dagokion
apainduri ta jantzian
egunsentian lasai lotan da
parrandara arratsian
buru arruak ez du ikusten
zer datorkion atzian
erruki dira gazte oriek
laister esnatu ezian.
- 9/ Arrokeria begi onakin
iñork ezin du ikusi
langilliaren apainduriak
ematen du ain itsusi
esan baiño len itzak ausnartzen
biar genduke ikasi
gastatzailleak dauden lekuan
zintzuak dira nagusi
mendeko izan nai ez duanak
dirua zaintzen ikasi.
- 10/ Ai euskaldunak, saia gaitezen
al dan lenena esnatzera
erbestetarrak ekartzen gabiltz
geure erria zapaltzera,
txorakeriaz ez gaitezen jun
besteri neurrik artzera
galdu baiño len begiratutzen
ez baldin badegu atzera
sasian gorde biarko degu
zozo leluen antzera.

AIZE GORRIA

Aize gorria deitzen dio Grazianok Norte edo iparraldeko aizeari. Au da, berak dienez, mendi-baserrietako etsaia. Aize kaltegarria, gosea ta legortea besterik ez dakarrena.

Aize gorriak egiten dituen kalteak kontatzen dira bertso auetan. Gaur arte ez dira agertu. Grazianoren paperetatik artu ditugu.

1/ Amaika aldiz nik aditua
lengo aitona zarrairi
aize gorria gorrotoz deitzen
Norte edo iparrari
uda guzian ibilli zaigu
aurten gure etsai ori
goi-baserritan ekarri digu
kalte galantak ugari.

2/ Zorigaiztoko ipar gorria
kaltegarritzko aizia
beste guziak azpiratuta
au da aurtengo nagusia
onen mendean otz eta legor
izan da uda guzia
nekazarioi ekarri digu
urte bateko gosia.

- 3/ Aize ongille goxoak ere
iñoiz ditugu ikusi
laiño ederrak atera eta
euria egiten asi
berialati au aterata
danak biraldu igesi
gure soluak ondo asetzen
sekula ez die utzi.
- 4/ Alia ondo bete gaberik
Eldu ziraden gariak
arto ta baba mirriñak daude
buruz lurrera jarriak
amaika neke eragiten du
jornal gabe baserriak
begira nundi bilduko diran
neguko bizigarriak.
- 5/ Birbelar edo ganadu jaten
danak dira ain urriak
otz eta ligor irten baiño len
ximeldu aize gorriak
baita zepotzak izan dirade
mendietako larriak
ganadurikan ez du loditzen
gose eta egarriak.

6/ Fabrika edo lantegi nausi
guzioiri nator deitzen
nekazarioi lagundutzeko
Jaungoikuari eskatzen
laiñuai zintzo agindutzeko
mendira ura ekartzen
elektrikako potzu guziak
betiak egon ditezen.

7/ Amaika gizon jakintsu dira
lurgain ontara azaldu
aize gorrien atari ori
iñork ezin du estaldu
eska zaiogun Jaungoikoari
au berak bakarrik al du
gure mendira aize gorririk
ez deigula biraldu.

8/ Zeruko Aitak gauza guziak
ditu neurrian jarriak
guztiok txoro badabiltza ere
zarrok gaude igarriak
ondo bete nai ez baditugu
eman zizkigun legiak
geroz da geio sortuko dira
munduan aize gorriak.

ETXEETAKO GORABERAK

Gurasoak neurri gabe maite dituzte beren umeak. Auek, berriz, beren guraso zaharrak ez dituzte askotan bear bezela maitatzen. Esker beltzakin ordaintzen dituzte gurasoengandik artutako mesedeak.

Grazianoren paperetatik ateratako bertsoak. 1957 gnean. egiñak izan bear dute. Ez dira iñoiz argitaratu.

- 1/ Ama on batek bere umia zertaraiño maite duan ezagutzeko neurrigarririk ez da asmatu munduan. Umetxo orrek aita ta ama maite izango balitu ondo gero beren zarzaruan bera izan duten moduan, gurasoentzat paraisua emen legoke munduan.
- 2/ Guraso askok bere umiak gozo ta maite azita ainbat urtian neke ta pena mantendu eta jantzita beti errukiz erabillita eskolajirak utzita mutil eginda dirua zoro naieran irabazita txorakeritan ondatzen dute aita amak gaizki utzita.

- 3/ Gurasoari bizi dan arte
lagun egin bear zaio
bein il ezkerero gero damuak
nola izango du balio?
Premi orduan bere umiak
lagundutzen ez badio
alako seme biotz gogorrik
obe litzake ez jaio
zarzaro ontan ditugulako
makiña bat arerio.
- 4/ Gurasoaren pozgarria da
umia ikustia parrez
nola agurtu ezin asmatu
geiegi maite bearrez
baiña atzetik zer datorkien
ez dute ikusten aurrez
gaur egunian etxe askotan
ikusten da zoritxarrez
seme okerrak jartzen dituzte
aita ta ama negarrez.
- 5/ Ama txoroak umien maiñak
aitari oi dio estaldu
ezluke ori egin biarrik
buruan zentzunik balu
gertatzen zaie igarri gabe
diru sakela argaldu
gero aitari zorrak pagatzen
beti akatsak azaldu
familiarako zorion asko
ortati oi dira galdu.

6/ Txoro azita dagon umia
nekez da zintzo irtengo
gurasuairi zarzaro onik
ez die noski emango
txorotan ez du irabaziko
bera ibiltzeko ondo
biarra zintzo jo biarrian
sarri egingo du tongo
ama txororik ezbalitzake
aur txarrik ez litzake izango

7/ Esaera da famili baten
alaba ezkontzen danian
senarra goxo oitzen duala
zintzo ondo esanian
guraso eta senidiakin
guztiz borondate onian
atsegiñezko bizimodua
danak maitetasunian
seme berri bat irabazita
sartzen dala familian.

8/ Baiña semia ezkontzen bada
erraiña askoren antzera
saiatuko da maitetasuna
beragana aldatzera
beti aurrera begiratuaz
zarrak utziaz atzera
zuzena bada zorionaren
erakarle dute bera
biurra bada zoritxarreko
famili danen galera.

FAMILIKO GORABERAK

Familiko arazoak beti eman diote buru-
auste pixka bat Grazianori: gurasoak zer
jokabide artu bear duten semeekiko, umeak
nola bear diran azi, ta abar. Gauza oietan
dituen iritziak garbi azaltzen ditu bertso
auetan.

Grazianoren paperetatik jasoak. Gaur ar-
te agertu gabeak.

1/ Amak bere umiak
zein maite dituan
au ez du iñork neurtu
sekula munduan.
Ume oiek aita ta ama
gero zarzaruan
maiteko balituzte
zor dien moduan,
gurasuen zerua
legoke munduan.

2/ Familiko burua
legez da gizona
zeruko Aitak berak
ala dauka esana
etxe askotan oker
agertutzen dana
ezin izan liteke
etxeko andre ona
bera bada fraka ta
bera bada gona..

3/ Asko ibillia naiz
erririkan erri
ikusten ditut andre
txoruak ugari
neska txikiak aundi
egiteko larri
moda zatar guziak
etxera ekarri
erruki geiegia
danen kaltegarri.

4/ Mutikotxuak mutil
ikusi nai amak
berak erakutsiaz
diran maña danak
gorputza azi arte
galgarri diranak
apainduri, txurruta,
jaieko parrandak
ortatik datoz etxe
askotan demandak.

5/ Aita dabillenan
kanpuan lanian
umiak traki-mañan
amakin batian
erruki geiegia
danentzat kaltian
ez dira saiatuko
zintzo biarrian
gero trumoiak aita
etortzen danian.

6/ Aita-amak biar dute
ondo alkar artu
Jaungoikuen bildurra
txikitatik sartu
egunero otoitzak
zintzo errezatu
esanak egiteko
ezbadaude gertu
merezi dutenian
pixka bat zigortu.

7/ Umiak biar dira
beti zintzo azi
lanian da eskolan
gaztetatik ezi
bizimodua zer dan
dezaten ikesi
parranda zatarretan
sekula ez utzi
ofiziotxo bana
albait erakutsi.

8/ Alde nai ez duana
amaren ondoti
amak kutun itxu
izango du beti
morroi edo neskame
oitu gaztetati
estadua goiz artzen
saiatu gogoti
patarrastu baiño len
aldendu etxeti.

9/ Begira ama txoruak
zetzuna nun duten
umiairi ixillik
mañak erakusten
aita batzuek ori
ez dute ikusten
agertu arte gaitzak
nundikan datozen
denbora jun da gero
gaitza da eragozten.

10/ Ama onak oi ditu
alabak bizkortu
neskame bialtzeko
beti egon gertu
onbideko lanetan
iñoiz ez aspertu
moja edo ezkondu
estadua goiz artu
zabar buru ariña
oi da neska zaartu.

11/ Ama txoro, zuk dezu
pekatu astuna
umiak zabarkeriz
azi dituzuna
zeure buruen kaltez
zuk egin dezuna
ondoren datorkizu
zarzaro illuna
gorroto biurtuta
lengo maitasuna.

12/ Goguan artu biok
Jaungoikuen itza
familiko burua
zu bai zera, aita,
ezbadaukazu ondo
emaztea ezita
eta ajola gabe
umiak azita
ondoren txarra dezu
zeuk irabazita.

SUKALDEA ERDIBITU

Bi emakume sukalde batean ez omen dira sekula ondo etortzen. Gaitz onentzat erremedioa esmatu digu Grazianok.

Aita Antonio Zavalak Grazianori jasotako bertsoa.

Milloi bat aldiz egiñak gera
ikusi eta aditu,
sukalde baten bi andre ongi
ezin dirala kabituz,
ta bat bakarra gutxitxo dala,
au nola erremeditu?
Dontzella bana bientzat jarri
eta sukalde erdibitu.

TRASTERIK OKERRENA

Gizadian zabaldurik dauden gaitz-mota batzuk aipatzen dira; baiña danetan okerre-na andre berritsua omen da. Aita Zavalak Grazianori jasotako bertsoa.

Ezjakiñaren gaindik
dago jakintsua,
zazpi alperrak baiño
obe bat zintzua,
iru plako baiño bat
obe mamitsua,
gaitz mingarriyak dira
mutua ta itxua,
trasterik okerre-na
andre berritsua.

KOMUNISMUA

Komunismua zer dan esaten digu labur eta egoki Grazianok bertso mamitsu eta zorrotz ontan.

Aita Zavalak Grazianori jasotako bertsoa.

Langilleak gabilta
nekez eta miñez,
munduko alper danak
loditu eziñez,
alperrikan saiatu
gure alegiñez,
alperkeriak oso
egin digu gaiñez;
komunismoa dator
askok diyotenez,
zer izango ote dan
dabilta esanez,
orrek izan bear du
nik uste dedanez:
aberatsai kendu ta
pobriai eman ez.

AUZOKO ETXEKOANDREEN BIZIMODUA

Auzoko andreen kalejira nola egiten zan lehen eta nola egiten dan orain: au da bertso eder auen gaia. Ontan ta beste gauza askotan ere bizimodua asko arindu ta obetu da, baiña ala ere oraingo neskak baserrira ez nai ezkondu. Fandango onek, ordea, ekarri bear omen du buelta, eta orduan izango dira kontuak.

“Aránzazu” aldizkarian agertutako bertsoak. Ikus “Aránzazu” XLIII (1963), 22.

L E E N

- 1/ Automobillik etzan garaian
emengo andreen biziera:
traste guztiak artu lepuan
ta joaten ziran kalera;
jai egunian zan garai artan
plazako gauzen salera:
aura bai zala andra gaisuen
negargarrizko galera!

- 2/ Astorik ere etzan orduan
trastiak eramateko,
pisugarriak ari botata
eurak gainian jartzeko;
norbera asto, gauza guztiak
eraman ta ekartzeko;
alaere pozik orduko neskak
baserrira ezkontzeko.
- 3/ Goiz-goiz jaikita etxeko lanak
egin al zuten moduan,
kaferik ere orain bezela
etzan artzen orduan,
traste guztiak nolabait artu
lepuan edo buruan,
lenengo mezia entzun bear
kalera joandakuan.
- 4/ Meza ondoren denpora gutxi
euren lanak egiteko,
beti laisterka ibilli bear
bidiari ekiteko,
ordu pare bat, iru bat bear
etxera alleatzeko;
zer jai ederra andre gaisuak
gazterikan urratzeko!

- 5/ Traste guztiak soñeratuta,
kaletik urten larrikan,
euria bazan busti otzetan,
bero bazan izerditan,
txakurraundiko opil bat janaz
ura edanaz iturritan
nekez etxera, aste guziko
ondatzen ziran sarritan.

O R A I N

- 1/ Zapatuetan egiten da orain
plazako gauzen salera;
soseguz jaiki, ondo kafetu
ta etxeko andria bera
beste lagun bat kamiñoraiño
trastiak eramatera,
autobusian plasta jarrita
kontu kontari kalera.

- 2/ Denpora asko nola daukaten
kalera joandakuan,
plazarik denda ibiltzen dira
tratua nola dagan,
txanponak ere ugariago
lenago baiño eskuan;
artu-emanak egiten dituzte
ondoena dan lekuan.

3/ Ala aukeran egindakuan
bere saldu-erosiak,
amarretako gozo bat egin,
eztira egongo gosiak,
autobusera eraman gero
dauzkaten traste guztiak,
plasta jarri, ta kontu kontari;
orla daude ikasiak.

4/ Autobus ori eldu orduko
bakoitzen gelditokira,
beste lagun bat astoarekin
an egongo da begira,
traste guztiak airi emanda
txit alai etortzen dira;
aste guztiko pozgarri dute
zapatuko kalejira.

5/ Urte askotan bizi dan batek
goibera asko ikusten du,
len oker ziran bizibidiak
asko dirade zuzendu,
emengo andreen bizimodua
orra noraño dan ondu;
alaere oraingo neskak
ez nai baserrira ezkondu.

6/ Lan gogorretik aldentzia da
neska oien pelemesa, (1)
kalian samur bizi izateko
askok egiten du amesa,
fandango onen bueltia gero
ezton izango jolasa:
amaikak damu izango dute
baserrira ezkondu eza.

(1) *Pelemesa*=asmoa, ustea, ametsa.

JESUS, SAN JOSE ETA ASTOA

Mingaiñaz lagun urkoa jorratzea gustatzen zaio gizonari. Au egin naiz bestea egin, beti dago zer esana. Gure griña txar ori ispillu batean bezelá jartzeko asmatu zan dudarik gabe istorio polit au. Euskalerrian oso zabaldurik dago.

Arantzazuko errebistan agertutako bertsoak. Ikus "Aránzazu" XLIV (1964), 180.

1/ San Jose Jesusekin
munduan zanian
bidante zijuazen
biak bein batian
bera oiñez da Jesus
astuen gaiñian.
Gizon batekin triki (1)
egin ziranian,
ala asi zitzaien
gaizki esanian:

(1) *Triki*=topo.

- 2/ Au da ikusgarria
begien aurrian:
ara mutikotzarra
astuen gainian,
aita gaxua oiñez
jarraitu eziñian,
zer ikusiko degun
gero atzenian,
gaztiak agintari
jartzen diranian!
- 3/ Aldendu ziranian
nor bere bidera
San Josek esan zion:
Jesus, atoz beera,
ni igoko naiz orain
astuen gainera,
beste batekin triki
aurki egingo gera,
ikusiko degu nola
mintzatzen dan bera.
- 4/ Laster egin zituan
beste batek triki,
esanaz: Ze biotza
biar dan iduki!
Bera asto gainian
jarrita ederki,
bere seme gaxua
ez badu erruki,
laster jarriko zaio
erren edo maki (2).

(2) *Maki*=maingu.

- 5/ Jesusi esan zion:
Atoz ona goora
astuaren gaiñera
neronen ondora,
au gu biokin ere
ain lasai juango da.
Urrengo datorrena
norbait izango da,
zer dion aditzeko
ba-degu denbora.
- 6/ Mutil bat diadarka
an zitzaien asi:
alperrak nola diran
mundu ontan bizi,
lau oiñak biar zaio
astuari ausi,
danok buruz aurrera
biar dute jausi,
alperkeria degu
lurreko nagusi.
- 7/ San Josek esan zion:
Jesus, guazen bera,
astuaren atzetik
oiñez juango gera.
Beste bat aurki dator
gaizki esatera
aurretiko arroski
orien antzera,
guk ez degu egingo
sekula atzera.

8/ Agertzen da gizon bat
ja, ja, jaaa egíñez,
lelokeriak oso
egin ziguk gaiñez
astotzarra alperrik
eurok biok oiñez
astua zertako dan
oraindik jakin ez,
laister dituk leluok
anketako miñez.

9/ Orduan esan zion
San Josek Jesusi:
Gizona ze traste dan
orra gaur ikusi
bestek egindakua
dana da itsusi
nai dutena esaten
bakoitzari utzi
besteren esanari
egin kaso gutxi
norbera beti zintzo
eta zuzen bizi.

1962-KO UDAZKENA

Gorago ikusi ditugu 1962-ko aurreneko zatiari ateratako bertsoak. Urte onek bere azken aldera astindu latzak eman zizkigun. Uda bero eta legor baten ondoren, itsumustuan sartu zan negua, bere otz eta elurte larriekin.

Arantzazuko errebistan agertutako bertsoak. Ikus "Aránzazu" XLIII (1963), 88-89.

- 1/ Irurogeita biko urtea
artu zenduan goguan,
agorrillaren atzenerarte
bertsotan jarri genduan;
zenbat sufritu eragin digun
udako legor beruan,
nola izan dan esango degu
andik atzenerakuan.

- 2/ Urri-illak ere asieratik
agorraren jarraipenak,
etzigun eman berez datozen
izakirik samurrenak:
gorritxo, urrak eta masustak,
mizpillak eta aranak,
mutiko eta neskatillentzat
pozgarririkan onenak.

- 3/ Sagarrik ere etzigun eman
sabelak engañatzeko,
postretan eta jan bitartetan
gose aldia kentzeko.
Uda-atzena gose garaia
nola dan baserrirako,
dieta ona dala diote
bizia luzetutzeko.
- 4/ Ill onek bere erdi aldera
ekarri zuan euria,
biarrekua eta gozua,
baiña etzan ugaria,
busti orduko zelaietara
urten zan urri larria,
batere etzan ugaritutzen
nola etzan udaberria.
- 5/ Busti orduko otza zetorren;
etorri zan azarua:
dana zan otza, dana gosia,
dana jateko gogua;
gaztaiñak nekez etorri ziran,
baiña sobra medrañua (1);
uste genduan artian ere
urrin zegola negua.

(1) *Medrañua*. Gaztaiña-ale kaskarra.

- 6/ Ganaduentzat ekarritzeko
ezer etzeon kanpuan,
okulluetan gobernatzia
samurra zan jatorduan;
belar ondua beti bildurrez,
lastua arbi lekuan,
nasaitu biarrikan etzuten
txalak katiak lepuan.
- 7/ Trumoi gogorak arrondu ziran (1)
amazortziko gabian,
gau guztia zan erasua, eta
elurra zuri goizian;
etengabeko zaparrada bat
jardun zan egun guzian,
artzaiak larri ardien billa
mendirik mendi juan ziran.
- 8/ Neurri gabeko erasua,
elurra bota ta bota,
ardi gaisuak zapaldu ala
gaiñera ezin igota,
batzuek ala agertu ziran
elur azpian itota,
ta beste batzuk zalapartaka
artian bizirik ozta.

(1) *Arrondu*. Trumoiak soñua jo.

9/ Ze ibillerak ein dituzten
artzaiak ardi billa!
belaunez gaindi daon elurra
ebakitzia da zailla,
toki askotan gelditzen ziran
ezkutatuta urkilla (2);
orduantxe bai umillatzen da
arro dagoan mutilla.

10/ Piñu gaztiak mendi gairietan
dotore zuti ziranak,
bere nagusiak seguru uste
oien irabazi onak,
bakoitzak ezin gainian eutsi,
jausi ziran elur danak,
gelditu ziran asko ausita,
beste asko lurrera etzanak.

11/ Abenduakin genduan gero
ona izango zan ustia;
ainbesteraifio ugaritu zan
dana otza ta bustia;
esan genduan: "ontan izango
ote da urte guzia";
santa Luzitan botatzen digu
bigarren elurtia.

(2) *Urkill*a. Anka-arte

12/ Aize gorria buru zebillen
tenporatako gabian,
esan genduen: "gauza onikan
onek ezdu ondorian,
jakiña dago beste mutilla
badatorrela bidian";
uste gaberik elurra lodi
jausi zan gabon goizian.

13/ Esan genduan: "agurtu zagun
gure Jesusen jaiotza,
oso osorik eman deiogun
bakoitzak bere biotza,
lagun deigula pazientzian
pasatzen gose ta otza,
bere eskuan itxi deiogun
danok geure esperantza".

14/ Arrokeriak ekartzen digu
ezbiar asko etxera,
urteberriari egin deiogun
maitasunezko arrera,
arrokeria zapaldu eta
umillatutzen bagera,
Arantzazuko Ama Birjiña
errukituko da bera.

TENPORETAKO AIZEA

Tenporetako egunetan buru egiten jarzen dan aizeak aginpidea omen du urrengo tenpora-artean. Siñiskera au oso zabaldua dago eta Graziano ere iritzi ortakoa da. Jakintsuak uste oni parre egiten diotela badaki, baiña baserritarrak ere ez al ditu bere jakite-bideak? Bere bizi guzian aizeen lanak ez al ditu berak ikusi?

Arantzazuko errebistan agertutako bertsoak. Ikus "Aránzazu" XLIII (1963), 110-111.

- 1/ Gabonetako tenporatako
gau erdiko amabitan,
lasto bateri sua emanda
kanpora atera nintzan;
gogua neukan ikusitzeko
aiziak nola zebiltzan:
beste guziak burrukatuta
nortia buru jarri zan.

2/ Esan genduan: "Ai aize gorri,
zorigaiztoko nortia,
zeintzuk ibilli ote dirade
orri zabaltzen atia!
Orren mendian biarko degu
urrengo tenpora artia.
Orduan buru jarriko al da
gure ongille maitia!"

3/ Begira ondo aize gorria
zertara zaigun azaldu:
arbiak eta ortuetako
gai danak digu usteldu,
ganaduentzat eta guretzat
bizigarri danak galdu;
norte min onek gauza onikan
sekula ekarri al du?

4/ Entzuten dira radiotikan
etortzen diran berriak
toki askotan izan dirala
otzak ikaragarriak,
izotzarekin arras usteldu
kanpoko bizigarriak;
zenbat millaka ete dirade
otz eta gose jarriak!

5/ Elurra eta izotza dira
aize gorrien emaitzak,
zoritxarrian oiek dirade
baserritarren ekaitzak;
ezer ezetik sortutzen dira
beste guztientzat gaitzak
ez aispuakin putz emanda
txalak asiko balitzak.

6/ Baserritarrak eta artzaiak,
baita ere itxasgizonak,
tenporatako aiziarekin
ditugunak sinismenak,
antxiñatiko aitonetatik
probatuta datozenak,
eta guk ere bizi guztian
garbi ikusten ditugunak.

7/ Jakintsu batzuk urtien puruz
karrera egin dutenak
izango dira ezjakiñari
burla egiten digutenak.
Oietan ere ez ote dira
deskuidatutzen diranak,
uste dutenak badakitela
munduan diran gai danak?

8/ Sinismen ori nola daukagun
aspalditik probatua,
baita guk ere bizi guztian
garbiro ezagutua,
liburu asko erabillia
izanarren letradua,
norberak ondo aprobatua
baida seguruagua.

9/ Au ikusteko tenporatako
irugarrengo gabian,
sua artuta urten bear da
kanpora salto batian;
keiari bultza egiten dionak
amabiak diranian,
aginpidea ak izango du
urrengo tenpora artian.

10/ Gaztetatikan eskolarikan
etziguten erakutsi,
liburutako aurrerapenik
guk ezin iñola ikasi,
bizi guzian aizien lanak
nola ditugun ikusi,
Jaungoikoaren laguntzarekin
gu ere nolabait bizi.

11/ Jakintzaren bat danok daukagu
norberen eginkizunetan,
bizimoduak ain ezbarदिñak
dirade mundu onetan,
gai danak ezin billatu leike
iñungo liburuetan;
obeko dute ez burla egin
gizajuen jakintzaetan.

12/ Arantzazuko Birjiña Ama,
gu gera zure premian,
gu ezjakiñok bizi gerade
jakintsu askoren mendian,
iñola ezin bizi gindezke
zuk ondo zaindu ezian,
pazientzia eman zaiguzu
geure bizitza guzian.

JAINKOAREN AGINDUETAKO BIDEA

Jainkoak bide bat erakutsi zion gizonari bere amar aginduekin; baiña griñak beti ari dira tiraka. Arrokeria dala, ondasun zalea dala, edo gorrotoa, ta abar... Griña oei neurriak artu ezik, ez dago Jainkoaren legea gordetzerik.

Arantzazuko errebistan agertutako bertsoak. Ikus "Aránzazu" XLIII (1963), 169.

1/ Gastatzaillea baldin bazera,
beti bazabiltz gastatzen,
gazte garaian zarzarorako
ezbadezu begiratzen,
premi orduan besteren gauzak
gaitzak dira eskuratzen;
egun illunak izango ituzu
atzen urtiak pasatzen.

2/ Diru biltzailla baldin bazera,
beti biltzen ibillita,
gero ondoren zer datorkizun
egon zindezke etsita;
alper alperrik poztuko zera
pilla aundia ikusita;
txanponik gabe jun biar dezu
danak besteentzat utzita.

3/ Kaltegiillia baldin bazera,
gero zuk kalte egiñak
begi txarrakin zu ikusita
estutuko ditue agiñak,
beste munduan emango dizu
gero tripletako miñak,
galduta gero damutuarren
erremeditu eziñak.

4/ Mesedegille baldin bazera,
zuk on egindako danak
ao betian jarriko dizute
ongille zintzuen famak.
Zu ildakuan miñaz erreguz
geldituko dira danak,
eta zerura jasoko zaitu
zu Arantzazuko Amak.

5/ Jaungoikoaren Amar agindu
bildutzen dira bitan:
guztien gaindi Bera agurtu
agindutzen digun gisan,
lagun urkoa norbera bezin
maite biar degu izan,
edo bestela alperrik guaz
meza entzutera elizan.

- 6/ Guztiontzako ematen ditu
Jaungoikuak ondasunak,
batzuek asko arrapatziek
dira pekatu astunak,
norbera bere naieratan da
sufritzen bizi lagunak;
beste munduan pagatu biar
orrelako eginkizunak.
- 7/ Ondasun asko dituanari
sortutzen zaion gaitza
Luzifergandik datorkiona
arrokeria deritza.
Segurua da norbere kaltez
ortik datorren emaitza,
gorputzarentzat bentajarik ez,
animarentzat ekaitza.
- 8/ Jaungoikoaren aginduetan
ikasitako dotriña
zintzo zaindu ta ondo gordetzen
egin zagun alegiña,
arrokeriaz besteren kaltez
dabilen buru ariña,
damutuko da kobratutzian
beste munduko propiña.

9/ Baserrietan len esaten zan
gabaz errosariua,
gazte txoruak ezin siñistu
zer dan bere baliua;
errosario ordeaz gaur askok
soiñu jotzen radiua,
sukalde artan iji ta aja
an dabil demoniua.

JAINKOAZ AAZTU GIZONA

Betiko kontua da nonbait. Gizona atsegiñetan eta bere naierara hizi danean, okertu eta Jainkoaz aaztu oi da sarritan. Oñazeak, berriz, atzera du zentzutzen eta bide onera ekartzen. Mediziña garratz ori probatu bear, jakinduria ikasteko.

Arantzazuko errebistan azaldu ziran bertso eder auek. Ikus "Aránzazu" XLIII (1963), 270-271.

- 1/ Txomin aspalditikan
zeruan zeguan;
Jainkoak egun baten
bialdu omen zuan:
"Ia, ikusi nola
dabiltzan munduan;
bizkor etorri adi
ikusitakuan".

- 2/ Txomin jaitxi zanian
zerutik lurera,
danak ikaratuta
ikustera bera:
"Nundikan etorri aiz
i, Txomin, onera?"
"Jainkoak bialdu nau
zuek ikustera.

- 3/ Danontzako errukiz
antxen dago Bera,
Berak emanarekin
danok bizi gera;
ondo gauden garaian
arrotzen bagera,
laister izango degu
zigorra gaiñera”.
- 4/ “Ezeik ekarri, Txomin,
orren berri txarrik,
ondo konpontzen gaituk
emen geu bakarrik.
Ardua dagon arte,
etzeok egarririk,
guk eztaukiagu emen
Jainkuen bearrik.
- 5/ Atoz onera, Txomin,
edan zak ardua,
onek berotutzen dik
gizonen barrua;
onela pasatzen diau
guk bizimodua,
au dek bizilekua,
utsa dek zerua”.

6/ Dana zan parrandia,
dana jan edana,
ezeren faltarik ez,
osasuna ona,
etzuten aditu nai
Txomiñen esana,
maitaliago zeuden
Luziferrengana.

7/ Txomin jun zan esanaz
Jaungoikuagana:
"Alperrikan egin det
nik alegin dana,
ez dute aditu nai
berorren izena,
Luziferren soifua
da maite dutena".

8/ "Nik eman osasuna
ta ondasun dana,
eta aditu nai ez
orain nire izena?
Dijoazela pozik
Luziferrengana,
gozoa izango dek
gero ak emana.

- 9/ Parranda itxusian
dabilz gau guzian,
Luziferren soiñuan
jolas lizunian,
aspertzen diranian
lotara goizian,
eztira zuzenduko
zigortu ezian”.
- 10/ Andikan geruago
esan zion: “Txomin,
beste jira bat ein zak
mundutikan arin,
ia naikua dantza
bai alduten egin,
Luziferren soiñuak
eman al dien min”.
- 11/ Txomin etorri zala
jakin zutenian,
danak negarrez larri
bere ondorian:
“Arrotu bagiñian
ondo giñanian,
orain etorri zaigu
zigorra gaiñian”.

12/ Asko illak ziran da
beste asko iltzen,
gosiak eta gaitzez
ain gaizki zebiltzen:
“Txomin, Jainkoari
emaiok aditzen
asi dedilla, arren,
gutzat errukitzen”.

13/ Txomiñek Jainkoari
ala zion adierazi:
“Aien artian orain
ezin leike bizi,
larri etorri naiz ni
andikan igesi,
Berorrek errukitzen
bearko du asi”.

14/ “Gizona berez orren
argala izanik,
aditu ere nai ez
Jainkuen izenik?
Ondasun danak euki
Neronek emanik,
nola siñistu Luzifer
obiago zanik?”.

BASERRIKO EZKONTZA-LEGEA

Grazianok dionez, antziña ba omen zan lege bat. Etxeko semeak ez zeukan ezkontzerik, arik eta bere aita burrukan garaitu artean. Eta baserrira ezkondu bear zuen neskatxak, anak imiñan sartuta, anega bat gari jaso bear zuen bizkarrera. Lege au jarrita zegoen seme-alabak sendo eta azkarrak atera zitezen (Ikus "Aitonaren Uzta", 1).

Arantzazuko errebistan ateratako bertsoak. Ikus "Aránzazu" XLIII (1963), 315.

1/ Orain milla bat urte inguru
Gipuzkoako legiak
neska mutillei jarritzen zien
ezkondutzeko neurria;
ori omen zan baserritarrak
beren artian jarria,
makaldu gabe jarraitu zedin
euskaldunen jatorria.

- 2/ Etxeko seme mayorazguak
goiz ezin bazan berandu,
legia bete bearra zeukan,
ezin pitxinikan kendu,
soltero egon biarra zeukan
au ezin bazuan ondu:
aita burrukan bentzitu arte
ezin zeikien ezkondu.
- 3/ Beren neurria jarritzen zien
neskatxa ezkongaiari:
imiñan anak sartuta jaso
biar anega bat gari;
baserritara ezin ezkondu
egin ezin zuana ori;
naiz izanarren, ezkondu gabe
gelditzen ziran ugari.
- 4/ Baserritarrak jarria zuten
lege ori berentzako
arbola onak biar dirala
frutu onak etortzeko
etxe askotan arkitzen zala
jatorria guziz flako
neska makálak baserritara
ezkondutzen ziralako.

ARDI JANTZIKO OTSOAK

Ardi jantziko otsoak dira zurikeriz eta engañuz eta on-itxuran gugana datozenak; baiña gu engañatzea beste asmorik ez dute izaten alakoak.

Arantzazuko errebistan agertutako bertsoak. Ikus "Aránzazu" XLIII (1963), 334.

- 1/ Tranposo batzuk ibiltzen dira
beti ifusente billa,
gizarajua ondo esanaz
adiskide izan dedilla,
igarri gabe emango diote
berak ezer ez dakilla
karameluak muturretik ta
bizkarretikan makilla.

- 2/ Inbustero bat badatorkizu
itz gozuak esatera,
ez uste izan datorrenikan
gauza onik zuri ematera;
seguruago etorriko da
zeuri zerbait eskatzera,
engañatuko zaitu poliki
deskuidatutzen bazera.

3/ Alakuari bere esanak
zuk ixillikan aditu,
zeuk gutxi esan eta beriak
ain gutxiago sinistu,
aitzakia bat ona asmatu,
zuk izketa ez luzatu,
gero pentsatu biar dezula,
eta siku despeditu.

4/ Zorionaren galdutzailliak
dira inbustero faltsuak,
norbere lagun erabiltzeko
ez dira traste gozuak,
konfiantza artu ezkeru
ain dira peligrusuak;
aspalditiko izena dute:
"ardi jantziko otsuak".

5/ Ongilleren bat badatorkizu
berri onak zuri ematen,
ezta ibilliko inbusterial
gezur trasteak asmatzen;
zuk ere ari ondo erantzun
al dan onduen esaten,
biok saiatu bata bestiai
mesediakin ordaintzen.

6/ Arantzazuko Birjiña Amari
danok egin eskaera,
zaintu deigula zintzo ta garbi
mundu ontako biziera;
berari otoitz egiñaz danok
zuzen ibiltzen bagera,
gure animak zeruratzeko
pozik egongo da Bera.

BERTSOLARI TXIKIAK

Arantzazuko auzoak Ama Birjiña Arantzazukoaren eguna artua dauka jaitzat. Egun ortan kanpotik etorritako bazkaltiarrek ikusiko dituzu baserri geienetan: naiz dala osaba, lengusu, senide, lagun ta abar. Urte artan ere alaxe gertatu zan, noski. Gesaltzako baserrietan ba zan makiña bat jende. Eta oien ikusgarritzat, Grazianok bi mutiko jarri zituen bertsoetan: Bere illoba Antonio eta etxekoneko Jose Luis. Orduan zortzi bat urte zituzten.

Gesaltzako atarian, bada, Ama Birjiñaren eguneko arratsaldean, jende guztiaren aurrean ederki kantatu zituzten. Gero neskatilla batek bandeja pasatu eta amarna duro tokatu zitzairen bertsolari txikiei. 1942 urtean egin omen zan bertsolari saio au.

Orain, bai Antonio eta bai José Luis Gesaltza ondoko arrobian dira langille.

Arantzazuko errebistan agertutako bertsoak. Ikus "Aránzazu" XLIV (1964), 284.

1/ Jose Luisek:

Gure Arantzazuko
Birjiña Amari
guziok zor diogu
eskerrak ugari.
Gaur egun bat alaia
eman digu guri:
Gesaltzako atariak
zerua dirudi.

2/ Antoniok:

Biba gure aaide ta
adiskide danak,
gure etxietara
etorri diranak
on deiela guzioi
gaurko jan edanak,
danok gorde gaitzala
Arantzazuko Amak.

3/ Jose Luisek:

Guri begira zeok
gizadi arrotza
nola irten geraden
pareja ordotsa,
i arkazte kumia
ni azken bildotsa
bertsotan egiteko
gu ez gaituk lotsa.

4/ Antoniok:

Ni lenbizi jaiua
ala biarrian,
esne gutxi edana
amaen bularrian,
i nola jaio intzan
danen atzenian
nik baiño titi geio
ik edan ebian.

5/ Jose Luisek:

Munduko suertia
dana berezkua
ni soka libria ta
i maiorazkua
ni beti morroitxo bat
soldat gabekua
nun izango ote diat
nik bizi lekua?

6/ Antoniok:

Ikusten ditut zenbait
kontu aldrebesko
libriak zeratenok
lasai eta fresko
konbidau egunetan
San Tripon eiteko
etxeke gizajuok
zorren maiorazko.

7/ Jose Luisek:

Lenbiziti daukanak
kaiola beria
nolanai egingo dik
bere naieria
berak nai duanian
ekarri txoria,
esan zak zeñek degun
suerte obia.

8/ Antoniok:

Etxeko lanak utzi
alderdi batera
lasai jungo zerate
zuek jornalera
zuentzat irabazi,
etxera jatera,
kontu andirik ezin
anaiak atera.

9/ Jose Luisek:

Gu nola ez giñian
jaio etxerako
libre gaude al danez
noranai juateko
lendabizi jaiua
beti maiorazko:
zuek daukazutena
aitzakia asko.

10/ Antoniok:

Guziontzako zio
munduan aldatza
pobre jaio geranok
bizimodu latza,
etxe koskor oietan
da maiorazkotza
zorra beti buruz gain
diru gabe poltsa.

11/ Jose Luisek:

Nola dan ain astuna
bertsotako lana
ikusten dezute ba
gaztetxo gerana
zintzo saiatu degu
alegiña dana
ez al degu merezi
propiñatxo bana?

12/ Antoniok:

Mundua mundu emen
beti eskabida
bakoitza larri zeok
poltsara begira
obligazio gabe
oik izan oi dira
borondate onekuak
agertuko dira.

13/ Jose Luisek:

Aiziak daramazki
gizonaren itzak
elkarren enbiditan
alferrik gabiltzak
ezditugu ikusten
projimuen gaitzak
guziontzako zeudek
munduan ekaitzak.

14/ Antoniok:

Eskubiko bideti
ibilli gaitezen
elkarri on egiñaz
beti zuzen zuzen
Jainkuak ortarako
biraldu ginduzen
gure anima oiek
zerura ditezen.

15/ Jose Luisek:

Asperten asi dituk
aditzaille danak
bukatutzera guaz
bertsotako lanak,
barkatu zaiguzute
gure gaizki esanak
nola oraindikan gu
ez geran gizonak.

16/ Antoniok:

Nere kontrariuak
dizkion antzera
barkaziua nator
danoi eskatzera
urrenguan obeto
portatuko al gera:
orain aurki guziok
meriendatzera.

ZEZENAREN BERTSOAK

Bertso auek, eta auen ondoren datozen beste biak, dira Grazianoren bertsorik zaharrenak. Zezenarenak 1902 urtean agertu ziran. Oekin egin zuen bere estraiña. Eta a zer nolako estraiña! Makiña bat kopet illun ikusi bear izan zuan auzoan bertso oiek dirala-ta.

Bazan auzoan ermandade edo alkartasun bat, amazortzi etxeren artean. Billera batean erabaki zuten zezen bat danen artean erosi eta txandaka danen artean mantendu eta zaitzea. Baiña “askoren astoa otsoak jan” dio esaerak; mendira bota zuten zezena eta an ibilli zan gaixoa goseak illa. Zenbait illabeteren buruan ekarri zuten etxera: errukarri omen zegoan. Orduan erabaki zuten zezen ura saldu eta beste bat ekartzea. Ala egin zan. Jakiña, erosi zuten baiño askoz merkeago saldu bear izan zuten zezen zaharra. Egin zuten gero beste billera bat, egindako zorrak danen artean partitzeko, baiña ermandadeko bi lagun ez ziran azaldu. Orduan besteak, sumindurik, erabaki arrigarri bat artu zuten: zezen erosi-berria errema-

tean (subastan) antxe bertan jartzea. Ala egin zan. Batek erosi zuan, eta arrezkero ez da geiago ekarri ermandadeko zezenik.

Bertso auek Oñatin, Raldua-ren etxean inprentatu ziran. Nik, egia esan, alerik ez det arkitu al izan. Jakin bear da auzoko batzuk oso gaizki artu zituztela bertso auek eta aleak batzen ibilli zirala, beroien arrastorik geldi ez zedin. Oñatiko juezarengana ere jo zuten, denuntzia jartzera.

Julian Martitegi Nabarro jaunak buruz dakizkian bezela jarri dira emen. Jaun ori Arantzazuko auzoan azia da. Orain Mañarian bizi da, eta beti izan da bertso-zalea eta bai bertsolaria ere.

Baliteke osorik ez egotea. Batzuk diote 33 bertso zirala guzira, eta emen ez daude 26 baizik.

1/ Milla pasata bederatzireun
ta bigarrenko urtian
komeria bat gertatua
Gipuzkoako partian
Oñati aldeko iri mugetan
auzo txikitxo batian
ermandadia formatu dute
emezortziren tartian
zerbiziuan paratutzeko
zezen bat danen artian.

2/ Apirillaren erdi aldian
gauza ori disponitua
txekor bikain bat billatutzeko
arturik pentsamentua
alde guzira begiratuaz
berak zeukala kontua
edozein moduz ezda egiten
ermandadian gustua
etxe batian billatu zuten
bastante txekor prestua.

3/ Gorputz guzia gorria zuan
matralletara zan beltza
etzan argia gau illunian
bere kopetaren ertza
mokadu onak eman ezker
apetitua zorrotza
ongi esanaz dominatzeko
etzan animala gaitza
muturra guziz polita zuan
trikua izan balitza.

4/ Pozez beterik eraman zuten
zezen gaztia mendira
biaramona pasa baiño len
etxeratu zan segida
tentazioak alderdi oietan
beti agertu oi dira;
iñok etzuan berriz eraman
ordena zeukan tokira,
uda guzia or pasatu du
ontzen ojuari begira.

5/ San Migeletan destiñatua
zezena erretiratzeko
iñok etzuan gogo aundirik
aren ondoren joateko
arrisku aundian arkitzen zala
bere burua galtzeko
orretarako disponitua
ermandadia biltzeko
zezen gaxua galdu baiño len
probidentziak artzeko.

6/ Junta orretan erabakia
zeukaten diferentzia
abere ura ekarritzeko
egñik dilijentzia
modu berrian isildu zedin
inguruko ausentzia (1)
zezen gaixuak sobra geiegi
artu du pazientzia
aspaldian egiña zuan
naikua penitentzia.

(1) *Ausentzia* = marmarra, murmurazioa.

7/ Begiak zeuzkan ezkutatuak
tormenta eta gosiak
zorritz ta sarnaz apestatuak
beren alderdi guziak
negargarriak pasa zituan
ango gau egun luziak
patu onikan jotzen ezbadu
jabe askoren gauziak
erdel errietan galdetzen zuten (2)
nun ziran aren nagusiak.

8/ Sokaz lotua ekarri zuten
gizon batzuen erdian
lotsaz beterik presentatu zan
ermandadien aurrian
koltxoi batentzat naikua ille
bazan aren bizkarrian
gizarajua nola zeguan
ala tankera txarrian
bizirik ozta allegatu zan
gobiernu biarrian.

(2) *Erdel errietan galdetzen zuten* = Narbajan. Au da Arabako lenengo erria, Arantzazuko mendiez beste aldera.

- 9/ Denborak junda akordatuak
utsegite bat egiña
esaten zuten: Au da gauza
erremeditu eziña
San Migeletan txekor onekin
premiora juan bagiña
dudarik gabe artuko zien
beste guziari gaiña
bere illezko adornuakin
markatzen zuan ezpaiña.
- 10/ Berialatik pentsatu zuten
zezen herria ekartzeko
Mondragoera eraman eta
lengo zar ori saltzeko,
kapaz zala ura ermandadien
onore dana galtzeko
komententzia onik izaten bazan
urrutira bialtzeko
erostunikan bazetorkien
begietatik kentzeko.
- 11/ Orretarako lendabiziko
orosi dute berria
berrogeita bi duroren truke
prenda konsolagarria
jende guzia txoraturikan
ari begira jarria
gaztea eta polita zala
kolorez ere gorria
esaten zuten: Irtengo al dau
lengua baiño obia?

12/ Zezen berria ekarri zuten
jai arratsalde batian
umilla eta begitangua
gizon oien iritzian
kontu aundian entregatua
bere destiñoko etxian
pozez beterik persona batzuk
ikustera juan ziran
makurkeri au egiten zien
bere talentu guzian.

13/ Aurretik junda, adarka, eta
atzetikan ostikada,
jende guzia paratu zuan
bertan bildurrez ikara
nagusiari abisatua
etorritzeko bertara;
esan zioten: Txekor politau
aparaju onen bat bada,
galduak gera zu ikusita
oneratutzen ez bada.

14/ Nagusi ori presentatua
gizon formalen peskizan
ongi esanda bizkarretikan
igortzi naian asi zan
baiña jotera egiten zion
pizti gaiztuaren gisan.
Orduan zion arek etzuala
jenio txarrikan izan,
nunbait parajez mudatutzian
izuturikan jarri zan.

- 15/ Jabea gauza orren bistan
asi zitzaien esaten
ura etzala sekula oitu
bakardadian egoten,
berialatik biai gazte bat
albora eraman zioten,
batak bestiai usai egiñaz
asia zan sosegatzen
bere gustua egin ezkeru
gaiztorik ezda izaten.
- 16/ Pozez heterik zezen berria
bere onera zanian
bestearikin Mondraguera
lendabiziko perian
animalia ibillia zan
estimazio onian
bere tratua egiña zuten
allegatu ziranian
iru itzetan konformatua
erostunen esanian.
- 17/ Ogeita amalau duro kostata
mantendu uda guztian,
azaro illian saldua zuten
gero ogeita bostian,
tratu bikaiña egin zutela
gizonak eren ustian,
oso konforme gelditu ziran
egindako ajustian;
esaten zuten: Baten galdua
irabazten da bestian.

- 18/ Jende askori gusto emana
zezenaren presenziak,
an asaldutzeko eraman zuten
auzoaren lizenzia
erostunakin izandu zuten
naikua komerentzia
etxeko edo bideko gastuak
konturatuaz guzia
amar duron zorra bazan
egin zuten ganantzia.
- 19/ Junta berria dispoñitua
oitura zuten puntuan
alde aurretik ipiñi zuten
jende guzia kontuan
giza artian segurantzirik
ez dago gaurko munduan
amazortzitik bi uts emanak
arrazoia zuten moduan
beste gauza bat dispoñitutzen
asi ziraden orduan.
- 20/ Junta orretan ikusitzian
persona biren faltia
arrazoiarekin sentitu zuten
burla ura egitia
merezi zuten gauzia zala
eskarmentu bat sartzia
pentsatu zuten zezen berria
bertan errematatzia.

21/ **Kandelatutzen** (1) asi ziraden
jende guzien aurretik
ogeita emezortzi duro zioten
eskeiñi lendabizitik
duro-erdi bat geiago dio
pujante batek atzetik,
kantara-erdi ardotan dio
besteak aldamenetik,
laugarrengiak azunbretxo bat
beste guztien ganetik.

22/ **Ermandadia konformatua**
emateko agindutan,
ogeita emezortzi duro justuak
ziraden dirutan,
gero aurretik esan bezela
bost azunbre ardotan,
alako pasadizorikan
etzeukala iñork gogotan
bere esana kunplitu arte
etziran egondu lotan.

23/ **Modu berri au akabatzeko**
demanda ta zer esanak
erremateko zezenarekin
kontentu ziraden danak
portamonedak bete ziraden
aurretik ustu ziranak
gero buruan azkura zuten
presentatu etziranak.

(1) *Kandelatu*. Gauza bat subastan jartzen danean, kandela oi da piztu. Pizturik dagoen artean egiten dira eskeintzak. Bein itzali ezkerro, geien eskeiñi duenari saldu bear zaio.

24/ Oien zezenak aisa jun dira
preziuetan beraka
eskotia eta pagakizuna
boltsia beti tiraka
saltzen danian ezin antxitu
len pagatutako marka
batak ostikada egin badio
besteak berriz adarka
oien atzian txikitu dute
makiñatxo bat abarka.

25/ Auzuetako desuniuak
gauza astunak izanik
ezgenduan uste zezenarekin
ori gertatuko zanik
beti demandan jardunda ere
etzeukatela gauza onik
kontu guziak likidatzian
gelditu dira esanik
apenas berriz jarriko dala
ermandadeko zezenik.

26/ Gauzak garbiro esplikatuta
orain nua bukatzera
emen gezurrik bialtzen badet
etorri kastigatzera
kopeta illunak ikusiarren
ezdet egingo atzera
merezi duten asunto danak
eman ditut aditzera
orain banua paperen truke
diru piska bat biltzera.

DITXA GOZO BATEKIN

Bertso auek dira Grazianok ateratako bigarrenak, zezenaren bertsoen urrengo, eta oekin dute zer-ikus. Izan ere, bertso aiek atera eta zabaltzea batzuk gaizki artu zuten, batez ere Arantzazuko auzoan bertan. Jue-zari ere eraman omen zizkioten. Bertsolaria eta bere lagun kantaria (Migel Igartua) biok preso sartuko zituztela ere zabaldu zan. Juezak, ordea, ez zuen salakuntza aintzat artu. Eta orduan Grazianok beste bertso auek atera zituen bere etsaien burla egiñez eta bere delito guztia zein izan zan esanez.

1902 edo 1903-an atereak dira. Raldua-ren etxean inprentatu ziran eta bertso-paperetan banatu. Juanita Igartua (Migel Igartuaren alabak) buruz dakizkian bezela jarri dira emen. Juanita Igartua ori orain Mondragoen bizi da, baiña Oñatiko Uribarrin jaio ta azi zan. Bere aita Grazianorekin ibilli zan Oñatiko kalean bertsoak kantatzen eta bertso-paperak saltzen.

1/ Ditxa gozo batekin
biba gure Oñati
sakrifikatzen gera
mutil fiñen antzera
danon onagaitik.
Oñatiren fabore
saiatu gogotik
onrak ugarituaz
etsaiak garaituaz
bizi dedin beti.

2/ Oñatin jaio giñan
seme pobretxo bi (1)
ez diogu kalterik
al bada on besterik
egiten iñori.
Aspaldian badegu
bajeza ugari:
zer dabillen ostian (2)
probintzia guztian
publikatu bedi.

(1) *Seme pobretxo bi* = Auek ziran Migel Igartua, Arrikruzko baserriko semea, eta Graziano berbera. Biok ibilli ziran zezenaren kanta-paperak saltzen Oñatin. Igartuak bertsoak kantatzen zituen eta Grazianok paperak saldu.

(2) *Ostian* = atzean, atzetik.

- 3/ Estudio aundirik
 ez gendun ikasi
 orain abonurikan (3)
 deshonra besterikan
 ez degu merezi.
 Karnabaletan giñan
 tabernarikan plaza
 paper saltzen asi
 kopak edanaz lasa
 ondotxo irabazi.
- 4/ Motibo bat izan zan
 bertsuak jartzeko,
 jo zituzten soiñuak
 baziran enpeñuak
 gu preso sartzeko
 posibliak egiñaz
 al bazan galtzeko,
 mintzatu da jentia
 nun degun patentia
 papelak saltzeko.
- 5/ Ots ori zabaldu da
 jendien artera
 preso garamatela
 lapur batzuk bezela
 kartzela batera.
 Askok galdetzen zuten:
 egia ote da?
 Esan ere badute:
 Ongi merezi dute.
 Konsolatzen gera.

(3) *Abonurikan* = alabantzarikan.

- 6/ Biotzen desiu
mingaiñez itz egin
gezurak aditzia
kulpa gabe iltzia
ez dala atsegiñ.
Oraindik ez digute
kartzelara ots egiñ:
gure kontrariuak
itz alfer jariuak
ederki uts egiñ.
- 7/ Aspaldian badabil
amaika ausentzi
ez bagendu bezela
guk iritxi ezela
biar dan lizentzi.
Esan oriekgaitik
gutxi digu antsi
gure partez danentzat
gaitz nai digutenentzat
milla bat goraintzi.
- 8/ Amaiak artu dute
gugaitik ardura
gero daukagu lana
gaizki egiten dana
norbere kargu da.
Esplikatu ditzagun
bear dan modura
danok entenditzeko
karnabal eguneko
gertakari ura.

- 9/ Bazkaltzen egon giñan
ostatu batian
konsueloz beterik
etzan broma besterik
kuadrilla guztian
pentsamentu politik
baziran ostian
nai ginduzen tentatu
ziraden presentatu
gu probatu naian.
- 10/ Alako gauzarikan
ez genduen uste
gu ikustera nunbait
etorri ziran zenbait
bertsolari gazte
aitatu baligute
itz bat edo beste
elkarren konpañian
egonduko giñan
broma eta txiste.
- 11/ Konfiantza aundirik
etzuten gurekin
asmoren bat bazuten
duda gabe nai zuten
gure berri jakin,
etzuten nai metitu
lagun bajuakin,
mutil formalak ziran
gu bezela etziran
bersuetan ekin.

12/ Talentu txikitxua
bertsotan daukagu
asuntuak jakiñak
argatik esamiñak (1)
izaten ditugu,
itz neurtuak asmatzen
eskasak gaude gu
mundutar guztiairi
zar eta gaztiairi
barkatzen diegu.

13/ Onrak merezi ditu
zenbaiten fediak
atenziaz aditu
biak egin ditu
gure miseriak
askok egiten digu
gogoz mesediak
au da gure itzala
entenditu ditzala
bakoitzak beriak.

14/ Bertso oiek dirade
ongi mereziak
bakoitzak begiratu
ez dira baliatu
itz alfer guziak
betik laguntzen digu
Jaunaren graziak
askok ezin sufritu
amaikak damu ditu
guk irabaziak.

(1) *Esamiñak* = kritikak.

15/ Despedida biar dau
gure fiestiak
egiak esplikatu
ikasten aplikatu
asunto guztiak
batzuk esan ditugu
geroko bestiak
ala gertatu ziran,
biba Oñatin diran
zer eta gaztiak!

ISPILLU BAT JARTZEKO

Bertso auek ere 1903 aldera inprentatu ziran, Raldua izeneko inprenteruarien etxean, Oñatin, eta bertso-paperetan banatuak. Aizkirri baserriko Victoria Igartuak buruz dakizkian bezelaxe jarri dira emen. Arantzazuko errebistan ere azaldu izan dira. Ikus "Aránzazu" XLIV (1964), 21-22.

Auzoetako gaitz ezaguna da alkarrenganako ezin eramana. Ortaz ari da emen Graziano. Batean beia dala, bestean ardia edo txerria, beti dago zer esana. Uskeri bategatik zelako gerrak eta burrukak!

1/ Ispillu bat jartzeko
mundu guztiari
motibo bat justua
etorri zat neri.
Iritxi al baneza
argitasun ori
fabore eske nago
Birjifia Amari.

- 2/ Projimuenganako
eraman eziña
au da gure denporan
ugaldu dan griña,
guziok ez daukagu
jenio berdiña
bearrago genduke
justuak bagiña.
- 3/ Besteren pekatuak
konfesatutzia
au da kristau askoren
enpeñu guzia;
maiz ikusten degu
zenbait ausentzia,
gero ikusten degu
naiko desgrazia.
- 4/ Etxe junto askotan
gertatutzen dana
ondo esplikatutzen
badaukagu lana:
beziñuen arteko
ezin eramana
danok izango degu
faltatxoren bana.

5/ Azpikuak diote:
Gure garaikuak
aparato gaiztuak
egin ditu Jainkuak,
inguruko guztiak
desondratzekuak,
Judas eta lagunak
ziran modukuak.

6/ Garaikuak diote:
Gure azpikuak
beti izandu dira
zintzo ta zikuak,
arrapatzen dutena
eskuratzeak,
asko sufritzen die
aldamenekuak.

7/ Besteak berriz dio:
Aldeko txerriak
ondatau dizkigute
arto eta gariak,
kulparik aundiena
daukate jabiak,
inpernuan badaude
oiek baiño obiak.

- 8/ Bestiak izango du
oillo edo katu,
motibo txikiagatik
aguro kejatu,
gauza utsagatikan
gerra bat formatu,
projimuen tokian
Luzifer amatu.
- 9/ Besteak berriz dio:
Aldeko gizona
ori zeok, mutillak,
aparaju ona,
etzaio damututzen
tabernan egona,
ardo truke saltzen du
andrearen gona.
- 10/ Besteak berriz dio:
Aldeko atsuak
maiz egiten dizkigu
azio faltsuak,
danok dirade oek
gezurti osuak,
enredadore eta
fastidiosuak.

- 11/ Batian beia dala
bestian ardia,
gerra bizian dabil
mundurik erdia,
mingaiñaz egiten da
zenbait pikardia,
gero oroipenak
jarri bear dira.
- 12/ Batak biatz txikian
ikutzen badio,
besteak aunditikan
orzka egingo dio,
parian pasatzian
beltz eta serio
asko kondenatzen da
gauza ori medio.
- 13/ Jauna tribunalera
bear degu deitu,
merezi dan moduan
juzgatuko gaitu,
grña oiek bakoitzak
uzten ezpaditu
denpora joan da gero
ezin erremeditu.

14/ Eskandalu guziak
utzi alde batera,
saiatu bear degu
alkar amatzera,
bestela danok goaz
anima galtzera,
inpernuaren truke
zerua saltzera.

15/ Konsidera dezagun
kontuak ateriaz
egunero itzegin
Birjiña Mariaz,
ezin bizi gindezke
bakoitza beriaz,
Jauna erruki bedi
gure mixeriaz.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategui, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso asko.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
6. *Toribio Alzaga*: RAMUNTXXO.
7. *Ramos Azkarate*: GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
8. *Antero Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *Bitoriano Iraola*: OROITZAK ta beste ipui asko.
10. *Bertsolariak*: ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. *Piarres Larzabal*: BORDAXURI
12. *Billintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *Mariano Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *Piarres Larzabal*: IRU ZIREN.
15. *Bertsolariak*: EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *Alfonso M.^e Zabala*: GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
17. *Antonio M.^e Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. *Antonio Zavala, S.I.*: TXIRRITA (Bizitza ta bat bateko bertsoak).
20. *Franzisko Goñi, S.I.*: LURDESKO GERTAE-RAK.
21. *Piarres Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
22. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.

24. *Fermin Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOIASAK.
26. *Alfonso M.^o Zabala. A. Larraitz, Juan Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.—Melitona'ren bi senarrak.—Mendibe'tarren larriyak.—Utzi bearkol —Gizon bikañak.
27. *Bertsolariak*: AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *Bizenta A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *Toribio Alzaga*: BURRUNTZIYA.—Bernaiño'ren larriyak.—Txibiribiri.—San Tomas'eko feriya.
30. *Graziano Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA ta beste bertso asko.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA, here alabak kontatua.
33. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *Piarres Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *Agustin Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *Sebastián Salaverriá*. NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. *Bertsolariak*. AMAR URTEKO BERTSO-PAPE-RAK.
- 40-41. *Jose Ramon Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *Piarres Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *José María Satrústegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P.M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *Pedro Barrutia, Sor Luisa, Xabier Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *Antonio Zavala S.I.*: PELLO ERROTAREN ITZALA.
51. *P.M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *Graziano Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.

